

GIPUZKOAKO ZUZENBIDEAREN BILKETA PROZESUA ETA 1696KO BILDUMA

Gipuzkoako zuzenbideak Behe Erdi Aroko dokumentazioan du sorburu, 25 hiribilduen Ermandadearen inguruan biltzen ari zen lurraldeari lotuta. Hiri-bilduok, 1180az geroztik (Donostiaren sorrerarekin) eta 1383ra bitartean (Zestoa eta Urretxuren sorrerarekin), kanpoko zuzenbidearekin Herrialde osoko lurrak jendeztatzen joan ziren, baita bi bailara (Leintz eta Oiartzun) eta hiru alkatetza nagusi (Azeria, Saiaz eta Aiztondo) ere.

Ordura arte Gipuzkoan, bere geografia malkartsuaren babesean, ohituran oinarrituriko zuzenbidea garatu zen, aldameneko lurraldeen (Bizkaia, Laudioko ibarra eta Nafarroako mendialdea) antzera, sendoki errotutako erakundeekin. Ohiturazko zuzenbide hura, denboraren igarotze naturalaren poderioz eta lurraldea bildu eta gobernatzen zuten Ermandade Batzarren lanari esker, idatziz jar-tzen hasi ziren XIV. mende bukaeran.

Ermandadearen lehen ordenantza horiek kutsu penal nabarmena dute, eta beren jatorrizko ohiturazko zuzenbidearen zantzuak dituzte. Eta ezaugarri hori gero eta nabarmenagoa izango da, denbora igaro ahala Koadernoak zabalagoak diren neurrian eta, gai penalez gain, bestelako gaiak ere arautzen dituzten neu-rrian.

Horregatik, Gipuzkoako zuzenbidearen 1696ko bilduman biltzen direnak Probintziako *pribilegioak*, *usadio eta ohitura onak*, *legeak eta aginduak* direla adierazi behar da, eta horiek guztiek bere *Forua* osatzen dute; hau da, bere lege-ria. Baina azken termino hori 1650 aldera hasi zen erabiltzen Gipuzkoan, lehen *Legeak eta Ordenantzak* terminoa erabiltzen baitzen. Hala ere, gipuzkoarrek beren legeriari ematen zioten balio juridikoa bizkaitarrek beren foruari ematen ziotenaren adinakoa zen.

Bildumak, beraz, errege-xedapenak, Batzarren erabakiak eta antzina-an-tzinatik finkatutako usadio eta ohiturak jasotzen ditu, halako moldez non bere aplikazioan *memoria de omes non ha en contrario*. Idatzi gabeko usadio eta ohiturak dira, baina haietan oinarritzen dira, neurri handi batean, Batzarreta-ko erabakiak, dekretuak edo ordenantzak. Erabaki, dekretu eta ordentza horiek, errege berrespenaren ondoren, lege maila izango dute eta, beraz, probintzian lehentasunezko aplikazioa izango dute.

Hortaz, errege-berrespina da foru-arauen errespetua eta aplikazioa bermatzeko tresna garrantzitsuena. Egiazki, Batzarrek ordezkatzan duten erkidegoa bertan hartutako akordioak betetzera behartuta dago, baina kanpoko agintarien eta errege-auzitegien aurrean errege-berrespenak Batzarretan onartutako arauari maila gorena ematen dio; errege-legarean maila, alegia. Eta bere aplikazioa lehentasunezkoa zen, erresumako beste edozer legeren gainetik. Izan ere, berrespen horren aurretik, berretsi beharreko arauaren azterketa zehatza egiten zuen Errege Kontseiluak. Horrek arauaren ontasuna edo zilegitasuna xedatzen zuen, errege-zuzenbidearen aurkakoa izan ez zedin eta, batzuetan, behin betiko errege-berrespina eman aurretik, aipatutako araua aldatu egiten zuen.

Horren adibide garbi dira, dudarik gabe, 1480an Usarragako Batzarrean egindako ordenantzak, gero Isabel erreginari berresteko aurkeztu zitzaizkionak. Urriaren 16ko errege-berrespinean adierazitakoaren arabera, Kontseiluak ordenantzak aztertu eta bere erabakian ordenantza horien edukia aldatu, *aitortu* edo *mugatu* zuen; beraz, berretsi egin zituzten, bete eta gauzatu zitezten (*con las limitaciones e declaraciones en esta mi carta contenidas, e non en más nin allende*)¹.

Beraz, berrespenak esan nahi du Erregeak onartzen duela Gipuzkoak egindako –eta Kontseiluari aurkeztutako– araua, eta arau horri probintziako ordenamendu juridikoan maila gorena ematen dio. Ordenantzak banaka, taldeka edo koadernotan multzokatuta berrets zitezkeen, eta guztiek *Foruaren* muina osatzen zuten. Horri Erregeak emandako hobariak eta pribilegioak gehitu behar zitzaizkion².

Dena dela, Probintziari eta bertako Batzarrei dagokie beren zuzenbidea erabakietan edo ordenantzetan adieraztea eta gauzatzea, baita Batzarrean erabaki ez diren xedapenak –Batzarreara aurkeztan direnean– onartzea edo errefusatzeari ere, nahiz eta xedapen horiek errege-berrespina eduki. Horrela bakarrik uler daiteke Batzarrek 1529ko abenduaren 22ko ordenantzak errefusatu izana. Otxoa Alvarez de Isasaga komendadoreak ordenantza horien errege-berrespina eskatu eta lortu zuen, dirudienez Gipuzkoako erakunde gorenaren beharrezko baimenik gabe, azken horrek 1530ean errefusatu egin baitzituen Zumaian, honako arrazoiak tarteko³:

¹ AGG (RGS), X-1480, 35. or.; eta AGG-GAO JD IM 1/11/27. Neuk argitaratua «La creación del derecho de la Hermandad guipuzcoana: la presencia de los letrados en sus Juntas» lanean. *Estudios de Historia del Derecho Europeo* liburuan, Gonzalo Martínez Díez Jn. Irakasleari omenaldia. Complutense argitaletxea (Madril, 1994), 3. liburukia, 227-244. or.

² Sebastian Intsaustik ondo dioen bezala, erregeek hiru arrazoi edo helburu zituzten hobari horiek emateko: lehenagoko egoerak aitortu eta berrestea, emandako zerbitzuak ordaintzea eta saritzea edo, azkenik, populazioa sustatzea (lurraren antzutasunagatik nekez kokatzen zenean) eta mugen defentsa ziurtatzea [Introducción a la Recopilación de 1583, XXIII. or.].

³ 1530eko apirila-maiatza. Donostian argit., 1927, 11-12. or.

Por quanto ellas eran nuevas y del establecimiento de ellas no había sabido la Provincia universalmente, diciendo que no recibían ni recibieron las dichas ordenanzas ni el uso ni el ejercicio de ellas, antes protestaban y protestaron de usar de sus ordenanzas antiguas para el gobierno de la dicha Provincia, no obstante las dichas ordenanzas nuevas, las cuales mandaban y mandaron que no se pusiesen en el libro de las ordenanzas y privilegios de esta Provincia para usar de ellas, y que así lo mandaban poner en el registro del escribano fiel⁴.

Eta 1533an ere berriro errefusatu zituen⁵.

I. AURREKARIAK

1. Lehen Bildumak (1397, 1457, 1463)

Baina 1696ko Gipuzkoako foru-bilduma prozesu luze baten emaitza da. Jakina, bilketa-prozesu batek arrakasta izango badu, aurretik egindako ahalegiak baliatu behar dira; gutxi-asko egokiak izan daitezke, baina bilketa egiteko beti baliagarriak dira, nahiz eta biltzailearen asmoa beti ez izan liburu bakar batean foru-araudi guztia biltzea.

Gipuzkoaren kasuan, badaude Ermandadearen hainbat ordenantza jasotzen dituzten koadernoak; hala nola, 1375ekoa⁶. Baina ezin har daitezke gure foru-zuzenbidearen aurrekaritzat, bertako ordenantza guztiak egintza arauemaile beretik sortu baitziren eta errege-berrespena geroago lortu baitzuten.

Foru-zuzenbidearen lehen bilduma, hainbat egintza arauemailetan onartutako ordenantzen konpilazioa, 1397ko Ordenantzen Koadernoak dugu, aldeztu aurretik bere ontasuna berrikusita eta xedapen zaharkituak kenduta⁷.

⁴ AGG-GAO JD IM 1/16/3 (1598). Marichalar-Manriquek argit., *Fueros de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Álava* (Madril, 1868), 374-380. or.

⁵ 1533ko azaroan, Hernaniko Batzar Nagusian (Donostian argit., 1927, 9. or.), honakoa esanda: *En cuanto a lo de las ordenanzas que el Comendador trajo, que en la Junta General de Zumaya se asentó que no podía usar de ellas, e así estaba asentado por la Provincia.*

⁶ Tolosan ospatutako Ermandadearen Batzar Nagusiak idatzi zuen, García Pérez de Camargo alkate nagusia bertan zela, eta Enrique II.ak berretsi zuen Sevillan, 1375-XII-20an. Gero Juan I.ak berretsi zuen Burgosen, 1379-IX-18an [AGG-GAO JD IM 1/11/7, 1. or. atze.-4. or. atze.; eta 1/11/13, 69. or. atze.-72. or. atze. A. Santos Lasurtegik argit., *La Hermandad de Guipúzcoa y el Corregidor Gonzalo Moro*, Donostia, 1935; eta Barrena Osoro, Elena, *Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa (1375-1463). Documentos*, Eusko Ikaskuntza (Donostia, 1982) 13-15. or. (Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 1)].

⁷ AGG-GAO JD IM 1/11/7, 5. or. aurre.-31. or. aurre.; eta 1/11/13, 73. or. aurre.-96. or. aurre. Elena Barrena Osorok argit., *op. cit.*, 27-47. or.

1.1. Ermandadearen Ordenantzen lehen bilduma. 1397

Jada Henrike III.ak Gonzalo Morori (Gipuzkoa, Bizkaia eta Enkarterrietarako bere korrejidore eta ikuskatzailea) emandako mandatuan (Ávila, 1397ko martxoaren 23an), erregeak prokuradoreak bildu zitzan agindu zion:

Veades el quaderno de la Hermandat que entre ellos fasta aquí avían de los dichos senores Reyes, et en todas aquellas cosas que vos entendiéredes que cunplen a mi serviçio et a pro e guarda de la dicha tierra e toda Hermandat que vos entre ellos ficiéredes e firmáredes yo lo he e avré por firme, bien así como si yo mismo la fisiese estando presente en la dicha Hermandat.

Agindua betetzeko, Gonzalo Moro Getariara joan zen eta uztailaren 6ko Batzarrean, bere prokuradoreen adostasunarekin eta baimenarekin; beren lehen-dabiziko ermandadea aztertu, eta alde zuzenetik honakoa hitzartu zuten:

Si lo el dicho Dotor entendiese, para que la dicha tierra se rregiese mejor en justicia et la dicha Hermandat fuese mejor guardada, que algunos eran de añadir et tirar e declarar, que lo fisiese así, ca aquella Hermandat que yo el dicho Dotor fesiese [...] estaban prestos e çiertos para la guardar.

Halaxe egin zuen korrejidoreak Batzarrean baimenarekin, eta 59 xedapen edo ordenantza zahar eta berriekin bilduma edo Koaderno bat eratu zuen; azkeneko xedapenak Koaderno honetan jasotzen ez zen lehenagoko beste edozein ordenantzaren indarra baliogabetzen zuen, hitz hauekin:

Iten, todas las otras Hermandat o Hermandades, ordenanças e ordenación que esta Hermandat de Guipuscoa avía fecha aquí, por que se rregia e mantenía a curso de Hermandat, que sean ningunas e que non usen por ellas alcalde ninguno que sea por las tales ordenanças que así fueron fechas el tiempo pasado, salvo tan solamente por este quaderno de Hermandat que agora nuevamente es fecho e por los capítulos en él contenidos.

Horrela, Ermandadearen legeria eguneratu zen, eta indarrean egon zen araudi bakarra izan zen 1415era arte. Urte hartan Batzarra Donostian bildu zen Juan Velázquez korrejidore berriarekin:

Vimos e catamos el quaderno e privilegio que [Henrike III.ak, 1397an] dió por leyes e constituciones a la dicha tierra, [eta kontuan hartuta] que non se podrían librar e determinar los dichos negoçios por lo contenido en el dicho quaderno e privilegio, e que, si se oviesen de determinar por el derecho común del rregno, tarde o nunca en esta tierra abría complimiento de justicia, honakoa ezartzea erabaki zuten: çiertos capítulos e ordenanças adelante en lo contenido por los dichos quaderno e privilegio, [horrela hobeto] regidos e gobernados e juscados [izateko helburuarekin].

Horiek horrela, hamar ordenantza berriak, Juan II.ak 1415eko martxoaren 23an Valladoliden berretsiak⁸, 1397ko koadernoaren osagarri gisa sortu ziren, eta bertan honako agindua ezartzen zen: *Que sean puestos en el quaderno de la dicha Hermandad e que sean avidos por leys e ordenanças, así como todo lo otro contenido en el dicho quaderno*. Ez dute, beraz, benetako foru-bilduma osatzen. Zuzenbide berri bezala bakarrik uler daiteke. Gizarteak bazuen idatzizko legeri bat –legeri itxia, beraz–, eta gizarte baten aldaketak eta garapenak eragiten dituzten hutsune logikoak betetzeko zuzenbide berri bat da. Batzarrak bere azalpenean esaten duena oso esanguratsua da:

Porque, segunt rason natural e la esperiençia de la práctica lo muestra de cada día, que más son los negoçios que entre las gentes acaesçen que non las leys e ordenanças estatuydas para ellas, e asy como las nuevas enfermedades e llagas han menester nuevas melesinas, asy los negoçios que nuevamente acaesçen han menester nuevas leys e nuevas ordenanças por onde se libren e determinen...

Hainbat urte geroago, araudi honi beste bost ordenantza gehitu zitzaizkion; aipatutako Juan II.ak berretsi zituen 1453ko apirilaren 23an Dueñas herrian⁹.

1.2. Ermandadearen Ordenantzen bigarren bilduma. 1457

Gipuzkoako bigarren foru-bilduma XV. mendearen erdialdean egin zen, *Cuaderno Viejo de Ordenanzas de Hermandad de Guipúzcoa* deritzona-rekin. Koaderno hori Henrike IV.ak berretsi zuen Gasteizen 1457ko martxoaren 30ean¹⁰, eta bertan, lehen aldiz, halako sistematika bat ageri da, testuaren aurretik idazpuruen taula bat ageri baita eta xedapen guztiak 146 idazpurutan banatuta baitaude.

Bilduma horren aurretiko inguruabar historikoa bandoen arteko borroken une larrienean kokatu behar da: 1448ko Arrasateren erreketak eta ahaide nagusiek Gipuzkoako zenbait hiribilduri eta partikularri 1456an egindako desafiaoa; horren ondorioz Erregeak 1457an emandako ondoriozko epaia, zigortuen dorreen goialdeak mozteko agindua eman zueneko.

Egoera liskartsu harengatik (*falta de paz e sosiego*) eman zion Erregeak Gonzalo Morori 1397ko Koaderno agiteko agindua. Antzeko egoerak saiheste-

⁸ AGG-GAO JD IM 1/11/3. Elena Barrena Osorok argit., *op. cit.*, 51-59. or.

⁹ AGG-GAO JD IM 1/11/7 eta 1/11/13. Elena Barrena Osorok argit., *op. cit.*, 63-69. or.

¹⁰ AGG-GAO JD IM 1/11/13; eta RAH, Luis Salazar Bilduma, 66.602. dok. Elena Barrena Osorok argit., *op. cit.*, 73-136. or.

ko, ordenantza penal gogorak edukitzeko beharra zegoen. Horregatik, Kontseiluari honako agindua eman zion: *Mandase se viesse por los perlados, cavalleros y doctores del Consejo un quaderno de constituciones y leyes fechos por el Dotor Gonçalo Moro* [eta Juan Velázquez de Cuéllar doktoreak], *el qual visto, con diligencia examinando, porque aquello se halló ser bueno e justo e cunplidero al servicio de Dios y mío y a execución de la mi justia*. Erregeak koadernoan onartu zuen, Ermandadearen prokuradoreek beharrezkotzat jo zituzten zenbait kapitulu txertatu ondoren (*ciertos capítulos que para mejor reformation e guarda y confirmación de la dicha Hermandad eran necesarios*).

Beraz, araudi zaharra eta berria Koaderno bakar berri batean bateratu ziren. Eta azken kapituluan (CXLVI) esaten den bezala:

Los quales dichos capítulos suso yncorporados y cada uno de ellos por mí vistos y examinados, con acuerdo de los perlados e caballeros e doctores de mi Consejo, porque aquellos se fallan ser justos e buenos e complideros a servicio de Dios e mío y execución de la mi justia, e a buena paz e sosiego de la dicha tierra e de los vezinos e moradores de ella, y eso mismo con todo lo contenido en el dicho quaderno del dicho Doctor Gonçalo Moro.

Henrike IV.ak, bere dekretua eta errege agintaritza erabiliz, koadernoko edukiak berretsi eta betearazi zituen.

1.3. Ermandadearen Ordenantzen hirugarren bilduma. 1463

Probintzian bakea ezarri ondoren, egiteko bakarra geratzen zen: *Corregir e reformar la Hermandad de la Provincia de Guipuscoa et la poner e reducir en el estado e honor que debe*. Hau da, Ermandadea erakunde gisa indartzea. Horretarako, Henrike erregeak bere komisarioak –Fernán González de Toledo eta Diego Gómez de Zamora doktoreak– eta Pedro Alfonso de Valdivielso lizentziadunak bidali zituen eta, geroago, Juan García de Santo Domingo ere bai.

Mandatua Bizkaira eta Arabara ere zabaldu zen. Haren arabera, Erregea ondokoaren jakinaren gainean zegoen: *Que algunos capítulos del Quaderno de la dicha Hermandad non son goardados nin se goardan, et otros capítulo del dicho Quaderno están e son de rreformar et corregir, e algunos otros de añadir [...]*. Jakin bazekien artean delitu asko egiten zirela, eta hainbat neurri hartzea beharrezkoa zela bere justizia administratzeko: *Corregir o menguar o añadir, e faser e ordenar de nuevo otros qualesquier capítulos e cosas que nesçesarias e cunplideras fueren* (Hondarribia, 1463-V-4)¹¹.

¹¹ Henrike IV.a eta Aragoi eta Nafarroako Juan II.aren artean sortutako desadostasunak zirela eta, katalanek Vianako printzea beren subirano izendatu zutelako (Henrike IV.ak bere armekin lagundu zuen

Bi doktoreak eta Valdivielso lizentziaduna Gipuzkoara iritsi ziren, erregea bertan egon ondoren (1457) egindako delituei buruzko informazioa biltzera eta ikerketak egitera. Ikerketaren argitan, Ermandadea erreformatzeko beharra ikusi zuten, eta Erregeak Juan García de Santo Domingo lizentziaduna ere bidali zuen. Guztiak Batzarrean bildu ziren Ermandadearen prokuradoreekin 1463ko ekainaren 13an Arrasaten, baita beste hainbat agintari eta pertsona garrantzitsurekin ere:

[Ikusita] *cómo las leyes e ordenanças del Quaderno de la dicha Hermandad no han proveydo conplidamente en todos los casos e fechos que después de la data de las dichas leyes e ordenanças del dicho Quaderno han acaesçido e en las que podrán acaesçer de aquí adelante, segund que lo han mostrado la experiencçia de los fechos, que es madre de todas las cosas, et otrosy que las dichas leyes e ordenanças de la dicha Hermandad algunos son de declarar et en otras de añadyr e en otras de mengoar, et otras de reducir a concordia, que paresçen contrarias o ynpliar contradición las unas a las otras, e muchas de las dichas leyes e ordenanças que fablan de algunos casos señalados están defusas en el dicho Quaderno e son de asentar en su logar conbeniente e en la materia propia que fabla del tal caso o casos, que porque sean más prestamente falladas e entendidas, honakoa egitea erabaki zuten: una conpilación e ajuntamiento de las dichas leyes e ordenanças et las adiciones e declaraciones a ellas en un bolumen, para agora e para sienpre jamás, para que toda la dicha Provincia de Guipúscoa, en las cosas e fechos tocantes a la dicha Hermandad, sea regida e gobernada e judgada por las dichas leyes e ordenanças e adiciones e declaraciones que en este dicho bolumen sean escriptas e asentadas et non por otras algunas. E que estas dichas leyes e ordenanças sean abidas et tenidas perpetuamente por Quaderno e por leyes e ordenanças de la dicha Hermandad, et que de ellas sea dada copia e traslado a quien lo quisyere e lo oviere menester. E que las dichas leyes e ordenanças e Quaderno Viejo de aquí adelante non sean traydas nin presentadas en fechos nin en causas algunas de la dicha Hermandad salvo las que son contenydas en este dicho bolumen, pues todas las dichas leyes e ordenanças antyguas son reducidas a esta dicha conpilación et son encorporadas en ella con las dichas adiciones e declaraciones, como dicho es. Pero mandamos que el dicho Quaderno e ordenanças antyguas queden en su fuerça e vigor para validación e abtoridad de lo contenido en este dicho bolumen e copilación, e para saber e qué sea sabido e conosçido dónde emanó este dicho bolumen de leyes e ordenanças, e dónde ovo fundamento, et que non se pierda la memoria loable e fama et nonbre e abtoridad de los claros barones e prudentes personas que primeramente ordenaron el Quaderno e leyes e ordenanças pasadas.*

matxinada hura), Henrike IV.a Hondarribian zegoen Frantziako Luis XI.ak eman behar zuen epaia eza-gutzeko, bera baitzen arbitroa desadostasun horietan. Hiribildutik maiatzaren 9an joan zen [Cfr. Zaldibia, Bachiller Juan Martínez de, *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas*. F. Arotzenak argit. (Donostia, 1945), 137-138. or.

Gainera, Erregeak agindu zuenez, Ermandadeari emandako pribilegio eta gutun guztiak Koaderno Berrian bildu behar ziren:

Quier sea por leyes e ordenanças o en otra qualquier manera, que queden en su fuerça e vigor, salvo en quanto paresçe ser ynobado en las dichas cartas e previllejos, o añadido o mengoado o declarado en las leyes et por las leyes e ordenanças contenidos en este dicho bolumen, el qual queremos e mandamos que aya nonbre de Quaderno Nuevo de la dicha Hermandad.

Horrela sortu zen, beraz, 1463ko Koaderno Berria¹². Erregeak 207 kapituluak berretsi zituen (*de mi propio motu e çierta çiençia et poderío real absoluto de que quiero usar et uso en esta parte*), eta honakoa agindu zuen:

Todo abrogo e derogo en quanto a esto atañe e a lo contenido en la dicha mi carta, y que de lo que asy fisiéredes e mandáredes non aya apelación nin suplicación nin nulidad nin agravio nin otro remedio alguno para ante mí nin para ante los del mi Consejo nin oydores de la mi Andiençia e alcaldes e notarios, nin para otros jueses algunos.

Hala, bada, 1463ko bildumak Gipuzkoako zuzenbidea eguneratu zuen, baina Koaderno Zaharra gordetzea agintzen da, etorkizunerako memoria gisa (*para saber e que sea sabido e conoçido dónde emanó este dicho bolumen de leyes e ordenanças, e dónde ovo fundamento*) eta Koaderno Berriaren edukari baliotasuna eta autoritatea ematen diolako.

Koaderno Berri honen edukia lehenagokoekin gaingiroki erkatu ondoren hautematen denez, 1397ko Koadernoko 59 ordenantza jasotzen ditu, Juan II.ak 1453an egindako koaderno horren berrespenarekin batera; 1457ko Koadernoko 126 (60-186 legeak); eta 120 (187-207 legeak) lehen aipatu gabeak, batzuk, eta guztiz berriak beste batzuk¹³.

Baina, nahiz eta ahalegin handia egin, errege-komisarioek ez zuten beren mandatua erabat bete, Sebastian Intsaustik¹⁴ egindako oharpenak zioen bezala: *Asentar las leyes e ordenanzas que hablan de algunos casos señalados en su lugar conveniente e en la materia propia que habla del tal caso o casos, para que sean más prestamente halladas e entendidas*. Hau da, edukia sistematizatzea. Aldaketa ikusteko XVI. mendera arte itxaron beharko da.

¹² AGG-GAO JD IM 1/11/15-bis. Elena BARRENA OSOROK argit., *op. cit.*, 139-202. or.

¹³ Erkaketa hau Sebastián de INSAUSTIK egin zuen jada 1583ko Bildumaren edizioaren *Introducción* atalean, XXVII. or.

¹⁴ *Ibidem*, XXVII. or.

2. *Libro de los Bollones* liburua (1481-1506)

Nahiz eta, zehazki hitz eginez, bilduma juridiko bat ez izan, Erregeak Gipuzkoari emandako ordenantza, gutun- eta agindu-bilduma bat da; horiez gain, erabakiak, eskribautza probintzialaren eskritura formularioak eta Gipuzkoako Ermandadearen antolaketari, gobernuari eta eskumenei dagozkien beste dokumentu batzuk ere jasotzen dira liburu honetan¹⁵.

1481 eta 1505/1506 bitartean Probintziako eskribau leialek –Domenjón Gonzalez de Andia eta Antón, bere semea– idatzitako liburu honen izena azala babesteko zituen zilarrezko buloietatik (*bullones*) dator¹⁶, baina beste izen batzuk ere bazituen: *Libro del Quaderno e hordenanças, cartas e provisiones fechas por la Hermandad, Quaderno de la Prouinçia* edota *Libro e Quaderno prouinçial*, besteak beste.

Liburuak dioenez, honakoak biltzen dira: *Las cartas e prouisiones que tiene la Hermandad e Juntas de la noble e leal Prouinçia de Guipuscoa, de los rreyes de Castilla nuestros sennores, para su rregimiento e gobernación*. Halaber, beste bigarren liburu kopiatzaile bat ere bazela esaten da, beste hainbat gutun eta pribilejio kopiatzen dituen (otras cartas e preuillejos que tiene [...], en espeçial las cartas de abocación e otras prouisiones) [98. or. aurre./XCVII aurre.]. Egiaz, ordea, *Libro de los Bollones* liburuan lehen aipatutako Ermandadearen Koaderno batzuk ere jasotzen dira (1397, 1453 eta 1457koak), baita Batzarrek onartu eta 1463. urtearen ondoren Erregeak berretsitako beste ordenantza batzuk ere (1468, 1469, 1470, 1472, 1473, 1479, 1480, 1481, 1482, 1484 eta 1489koak).

Liburu honen elementurik garrantzitsuena, zalantzarik gabe, liburuari eman zitzaion erabilera praktikoa izan zen. Erabilera horren lehen berria 1533an aurkitzen dugu. Urte hartan, Batzarra Hernanin bildu zen, eta honakoa agindu zuen: *Escribir una carta a Antón Sáenz de Aguirre rogándole que viniese con las cartas y memoriales y sello y libro de Bellón que tiene en el ofiçio e, si no estuviese en disposición, lo envíe con persona de recaudo*¹⁷. Geroago, Batzarretan liburuaren erabilera praktikoa baieztatzen duten aipu gehiago daude¹⁸.

¹⁵ ZZ.AA., «El Libro de los Bollones y la escribanía fiel de la Provincia de Gipuzkoa.» *El Libro de los Bollones* liburuan, Foru Aldundiak argit. (Donostia, 1995), 25. or.

¹⁶ AGG-GAO CO MCI-n dago, 15. paper sortan. 1533ko azaroko Hernaniko Batzarrean aurkitu dugu, lehen aldiz, *Libro de los Bollones* izena [AGG-GAO JD AJI 1/19; orrialdeak: 7, 18, 35].

¹⁷ 1533ko Batzarra, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratua 1927an, 7. or.

¹⁸ Hernaniko 1551ko Batzarrean, liburuan jasotako ordenantza bat aipatzen da [AGG-GAO JD AM 4.10, 35. or. aurre.]. 1560an, berriz Hernanin bildutako beste Batzar batek, agiritegitik aurreko Batzarretako agiri batzuk ateratzea eskatu zion Tolosari: *Mas los libros y ordenanças y los otros recados que*

Dena dela, 1582an Zandategi lizentziadunak Gipuzkoako zuzenbidearen bilduma egiteko mandatua jaso zuenean, honakoa eskatu zitzaion: *Recopilar y reducir a buena orden los privilegios, çédulas reales y provisiones y ordenanças que están en los Bollones*¹⁹. Eta Pedro Inarrak –Batzarretako eskribauorde leiala– ere *Libro de los Bollones* liburutik hartu zituen 1567ko azaroaren 24ko Mutrikuko Batzarraren aginduz kopiaitu zituen Ordenantzak eta Koadernoak, Gipuzkoako Batzarretan botoa ematen zuten herrietara bidaltzeko²⁰.

3. Zaldibia batxilerraren Liburu Zaharra (1562)

Libro de los Bollones liburua corpus juridiko baino Probintziako eskribau leialaren eskuliburu praktikoa zenez, Gipuzkoako foruen azken bilduma, 1463koa, ordurako aspalditxkoa zen.

Gipuzkoan gertatzen ari zenak (aldaketa soziopolitikoak, garapen ekonomikoa eta probintziako herrien Ermandadearen indartzea) ondorioak izan zituen: Gipuzkoako erakundeak eta Gipuzkoak erresuman zuen estatus berezia, Erregeen babesarekin, sendotu egin ziren. Prozesu horren adierazgarri gisa, barne- eta errege-arauak gero eta ugariagoak ziren, Gipuzkoako Ermandadean gero eta gehiago ari baitziren arautzen bizitza politikoaren, juridikoaren eta sozialaren alderdiak.

Denboraren poderioz sortutako dokumentazioa ugaria zenez eta eskribau leialak bere etxean gordetzen zuela kontuan hartuta, Batzarrak, historian lehen aldiz, agiritegi probintzial bat sortzea erabaki zuen 1530ean²¹. Agiritegia, Tolo-

conbien para esta Junta, en uno con el libro de los Bollones [Ibidem, 6.7, 1. or. atze.-2. or. aurre.]. 1564an liburua berriro aipatzen du Amador lizentziadunak, esanez: *Que se autorize ante el señor Corregidor el Libro de los Bollones y el Quaderno de la Hermandad de la Provincia e, sinado, se ponga en el archivo* [Hernaniko Udal Agiritegia, E/2/1/2, 12. or. aurre.].

¹⁹ AGG-GAO JD IM 1/11/46 (1582). Txosten honek mandatarien korrespondentzia, Probintziako ordenantzen bilduma egiteko, jasotzen du.

²⁰ Hala adierazten da Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako Kodexaren Azterketan (1995), 31-31. or. 1457ko eta 1453ko Ordenantzak, etxeen zerrenda, eserlekuen eta botoen zerrenda eta *Libro de los Bollones* delakoan idatzita zeuden beste zenbait ordenantza kopiaitu ziren, baita Batzarretako presidentearen 1506ko ordenantza ere. Inarraren jatorrizko testua, lehenengo orria galduta badago ere, kontserbatzen da: AGG-GAO JD IM 1/11/42 bis (1567). Testu horren kopia, osorik, Eskoriatzako udal agiritegian dago [102. kutxa, 13. zk.].

²¹ Agiritegia sortzea 1530-V-4ko Zumaiako Batzar Nagusian onartu zen: *Este día, hablado sobre el archibo de los preuilejos e escripturas e prouisiones que tiene esta Prouincia, donde deben estar en goarda todo, en conformidad acordaron que se ponga el harchibo principal de las escripturas oreginales en la villa de Tolosa, en la yglesia d'ella. Y el traslado de las prouisiones e preuilegios autorizados en la villa de Azcoytia. El procurador de Azpeytia dixo que abría rrecurso a su conçejo. Y que las dichas*

sako Santa Maria elizan kokaturik, Probintziako barne dokumentazioaren gor-detegi, bere iraganaren lekuko bizi, Ermandadearen funtzionamenduaren zutabe eta foruaren babeski bihurtu zen. Laster, Batzarretako mandatariek artxibategia aberastuko zuten hainbat dokumentu bilatu eta aurkitu zituzten kanpoko agiritegietan –batez ere, Simancaseko errege-artxibategian– eta Gipuzkoako udal agiritegietan, eta Tolosara eramán zituzten.

Handik aurrera, foru-bilduma on bat edukitzeko egiten ziren ahaleginekin batera, ezinbestean, Probintziaren dokumentu eta pribilegioen inbentario on bat edukitzeko ahaleginak egin zituzten.

Kontsultatutako dokumentazioak²² erakusten digunez, 1551n jada ba-zegoen tankera horretako inbentario bat (*de todos los previlejos, probisiones, ordenanças y estatutos que la dicha Provincia tiene*)²³. Hala ere, etengabe doku-mentazio berria sortzen zenez eta dokumentazioa ordenatu gabe zegoenez, Pro-bintziak ez baitzuen dokumentazioa zaintzeko artxibozainik, 1553az geroztik Batzarrak behin eta berriz agindu zion bere eskribau leialari (Zaldibia batxile-rrari edota tankerako mandatariren bati) dokumentu berriak agiritegian jasotze-ko, zegoen inbentarioa eguneratzeko eta dokumentuak ordenatzeko eta bakoitza bere tiraderan sartzeko (*estaban trastocados, por orden e conçepto, para que con façilidad se buscasen todas las bezes que fuesen menester*)²⁴.

villas hagan la obligación e solepnidad en forma cómmo los rreçiben etc. Y que donde está el dicho archibo se haga vna rrexá, donde se pongan en cada villa, y que de todos los dichos preuilejos e prouisiones se pongan por ynventario. Y que tenga el dicho archibo tres llaves, y la una la tenga el conçejo donde estouiére el dicho archibo, e la otra la villa donde se fiziere la Junta General, y que baya de Junta en Junta, y la otra tenga el escriuano fiel. Y que en la Junta que se manda faser en Tolosa se (visite) el dicho archibo e escripturas de la dicha villa por el escriuano fiel para que las personas que hallí se nonbraren efetúen lo suso dicho etc. Que hagan obligación e o(mena)je de la tener en buena goarda e que acudirán con ellas a la Prouincia e a la mayor parte quando ge los pidiere, y que lo hordenen todos los presidentes [AGG-GAO JD AM 1,2; 4. or. atze.].

²² 1550-1650 denboraldiari dagozkion Batzar eta Diputazio guztietako aktak hustu dira eta argitaratu dira; egileak: L. M. Díez de Salazar eta M^a Rosa Ayerbe; argit.: Gipuzkoako Batzar Nagusiak/ Gipuzkoako Foru Aldundia; 30 liburuki.

²³ Donostiako Batzar Nagusia, 1551-IV-17 [AGG-GAO JD AM 4,9; 17. or. aurre. eta 31. or. aurre-atze.]. Hemen esaten denez, Miguel Idiakaitz jaunari –Batzarretako eskribau leiala– Bilbora joateko man-datua eman zioten Artzeo lizentziadunaren aginduz –Erregearen Komisio epailea–, eta honek Probintziako eskribau leialari inbentarioa eskatu zion (*del ynventario de todos los previlejos, probisiones, orde-nanças y estatutos que la dicha Provincia tiene, sacado del archibo d'ella*); edonola ere, hainbat arrazoitarteko ez zizkion eman (*por causas legítymas que para ello tuvo e no ser él parte para lo poder dar*).

²⁴ Getariako Batzar Nagusia, 1553-XI-16 [AGG-GAO JD AM 4,15; 6. or. atze.]. Korrejidorea Tolosara joaten zenean berarekin joan zedila agindu zion Batzarrak Miguel Idiakaitz eskribau leialari, herriko ohiko alkatea eta Juan Otxoa de Zorrobiaga eta Domingo de Aburrutza eskribau osoak ere aurrean egon behar zirelarik, eta honakoa agindu zion: *Pusyese en el archivo de la dicha Provincia, por ynventario, todas las provisyones e çédulas e despachos que* [bera eskribau izandako garaian]

Seguran 1554ko azaroan²⁵ Miguel de Idiakaitz bere eskribau leialari emandako aginduak, azkenean, eragina izan zuen. Juanes Aburrutzarekin eta Juan Lopez de Olazabalekin batera, artxiboa ordenatu eta inbentario berria egin zen: *ynbentario de todos los dichos previlejos, çédulas, provisiones y escripturas que la dicha Provinçia tenía*²⁶.

Dokumentuen bolumen guztia kontrolpean jarri ondoren, Probintziak laster azaldu zuen foru-bilduma berria egiteko beharra. Hondarribiko 1557ko Batzarrak honakoa hausnartu zuen:

Que sería cosa muy provechosa que las hordenanças d'esta Provinçia se reduxiesen a un bolumen y se recopilaren las que se ussan y se acostunbran guardar, por ser muchas e dibersas e aver mucha confusión en ellas; e así, reduzidas e puestas en sus títulos, repertorios e alfabeto, las villas de la dicha

han benido e se han ynbiado para ella, para qu'estén en el dicho archibo guardadas e aya quenta y razón d'ellas. Y porque los prebillejos, probisyoness y escripturas qu'estaban en el dicho archibo d'esta Provinçia estaban trastocados de sus caxones, conbenía que se pusyesen en horden. Beraz, alkateari, Zaldibia batxilerrari, Juan Otxoa de Agirrerri eta Domingo Aburrutzari eskribauarekin batera agiritegira sartzea agintzen zitzaien, dokumentuak ordenatzeko: Por horden e por conçierto, para que con façilidad se allasen todas las bezes que fuesen menester.

Zestoako Batzar Nagusia, 1554-IV-7 [AGG-GAO JD AM 4,16; 2. or. atze.]: Korrejidorea Tolosara joaten zenean berarekin joan zedila agindu zion Batzarrak Miguel Idiakaitz eskribau leialari, herriko ohiko alkatea eta bere bi eskribau oso ere aurrean egon behar zirelarik, eta honakoa agindu zion: *Por ynventario, todas las probisyoness e çédulas e despachos que* [bera Gipuzkoako eskribau leial izandako garaian] *han benido e se han ynbiado para ella, para qu'estén en el dicho archibo guardadas e aya cuenta e razón d'ellas. E porque los prebillejos, probisyoness e escripturas qu'estaban en el dicho archibo estaban trastocados de sus caxones e conbenía que se pusyesen en orden. Beraz, alkateari, Zaldibia batxilerrari, eskribauarekin batera agiritegira sartzea agintzen zitzaien, dokumentuak ordenatzeko: E pusiesen todos los prebillejos, probisyoness e escripturas que la dicha Provinçia tenía en el dicho su archibo, por orden e conçierto, para que con façilidad se buscasen todas las bezes que fuesen menester.* 17an [29. or. atze.] Juan Lopez de Agirrek taldearekin bat egin zuen, honako helburuarekin: *Poner en horden las escripturas del archibo d'esta Provinçia en el ynventario de las escripturas que yo el dicho escribano he de poner en el dicho archibo.*

²⁵ Segurako Batzar Nagusia, 1554-XI-15 [AGG-GAO JD AM 5,1; 4. or. atze.]: Zestoako Batzarreko akta irakurrita agiritegia ordenatzeko agindua ikusi zen. Erabakia berretsi zuten eta eskribauari, Batzarra amaitu ondoren, Tolosara joateko agindu zioten, Juanes Aburrutzarekin (herriko alkatea) eta Juan Lopez de Olazabal eskribauarekin batera, agiritegia ordenatzera (*pusiese por horden e conçierto todos los dichos prebillejos, probisyoness y escripturas que la dicha Provinçia tenía en el dicho su archibo*).

²⁶ Azpeitiko Batzar Nagusia, 1555-IV-30 [AGG-GAO JD AM 5,2; 7. or. atze.-8. or. aurre]: Segurako Batzarreko akta irakurrita agiritegia ordenatzeko agindua ikusi zen. Miguel Idiakaitz eskribau leialak bere deskargua eman zuen, Juanes Aburrutzarekin (alkatea) eta Juan Lopez de Olazabalekin (eskribaua) Tolosara joan zela esanez eta, Seguran agindu zioten bezala, honakoa egin zuela: *Puesto todos los previlejos, çédulas y provisiones y escripturas de la dicha Provinçia en el dicho archibo por su horden, e asy mismo las provisiones y çédulas e despachos que a poder de mí el dicho escrivano fiel en mi tiempo abían benido, por ynventario en forma; y cómo se avía hecho nuevo ynventario de todos los dichos previlejos, çédulas, provisiones y escripturas que la dicha Provinçia tenía, y estava el dicho archibo puesto en horden.*

Provincia las pudiesen si quisiesen, cada uno tener en sus pueblos para estar ynformados de lo en ellas contenido,

Hala Zandategi lizentziadunari eta Antonio Estanga diputatuari beharrezko ziren ordenantzak biltzea agindu zien (*vean y recopilen y reduzgan, y hagan un bolumen*), gero Atxaran eta Estensoro batxilerrek azter zituzten²⁷.

Zandategik mandatua bete ez zuenez gero, 1558ko Bergarako Batzarrak bilketa lana Estensoro batxilerrari eta Josep bere semeari agindu zien, eta bere eskribau leialari beharrezko ordenantzak haiei emateko agindu zion. Batxilerrak ezin izan zuen lana burutu osasun-kontuak tarteko (*por razón de su vejez e falta de salud*), eta Mutrikuko hurrengo Batzarrean lan hori Juan Otxoa de Berriatuari eta Otxoa Sebastian de Berriatuari agindu zieten, egin behar zuten bilduma azaroan Tolosan ospatzekoa zen hurrengo Batzarrera eramateko aginduarekin²⁸.

²⁷ Hondarribiko Batzar Nagusia, 1557-XI-19 [AGG-GAO JD AM 5,8; 20. or. aurre.-atze.]: Batzarrean honakoa esan zen: *Que sería cosa muy provechosa que las hordenanças d'esta Provincia se reduxiesen a un bolumen y se recopilaran las que se ussan y se acostunbran guardar, por ser muchas e dibersas e aver mucha confusión en ellas; e así, reduzidas e puestas en sus títulos, repertorios e alfabeto, las villas de la dicha Provincia las pudiesen si quisiesen, cada uno tener en sus pueblos para estar ynformados de lo en ellas contenido.* Eta agindu zen: *las dichas hordenanças y todo lo que por la dicha Provincia está hordenado, proveydo e mandado en sus Juntas, se reduxiesen e sacasen lo necesario en un bolumen. Para las sacar e reducir e poner la horden necesaria mandaron que el liçençiado Çandategui y el Diputado que en esta Junta fuere nonbrado, vean y recopilen y reduzgan las necesarias y hagan un bolumen de las que así les pareçieren y, fechas, se junten en uno con los Bachilleres Acharán y Estensoro, los quales así bien las vean si están bien y las pongan por la horden sobre dicha, e que para la primera Junta General, que será en la villa de Vergara, las ynbién hechas para que allá se bean. Y para el dicho hefeto mandaron se entregasen por mí el dicho escribano, a los dichos liçençiado Çandategui e Diputado, las hordenanças y lo proveydo e hordenado por las dichas Juntas.*

²⁸ Bergarako Batzar Nagusia, 1558-IV-29 [AGG-GAO JD AM 6,2; 18. or. atze.]: Batzarrean, Hondarribian erabakitakoa irakurri zen; hots, Zandategi lizentziadunari eta Antonio Estangari –biak Gipuzkoako diputatuak– agindu zitzaiena: *Reduxiesen en un bolumen todas las ordenanças de la Probinçia.* Estangak bere deskargua eman zuen: *Cómo no se pudo azer por causa de las ocupaciones que tubo el liçençiado Çandategui.* Batzarrak, Hondarribian emandako aginduak jarraiki, bilketa-lana Estensoro batxilerraren eta Joseph Estensororen –bere semea– esku utzi zuen, eta Mutrikuko hurrengo Batzar Nagusira lana egina eramatea agindu zien, han ikus zitezen (*para que allá se vean*). Mandatariei ordenantzak emateko agindua eman zitzaion Batzarreko eskribau leialari –Miguel Idiakaitz–.

Hurrengo Mutrikuko 1558-XI-15eko Batzar Nagusiak [AGG-GAO JD AM 6,5; 7. or. aurre.] pertsona beren esku utzi zuen bilketa lana, bilduma hurrengo Tolosako Batzarrera bidal zezaten (*las ynbién hechas para que allá se vean*). Azaroaren 18an [16. or. aurre.-atze.] honakoa esan zuen bere aitari buruz: *Avía estado y estava mal dispuesto [y] no avía podido entender en la recopilación de las hordenanças que a ellos fue encomendado, e aunque el dicho Bachiller tenía toda voluntad para las cosas que tocaren a esta Provincia, por razón de su vejez e falta de salud no estava en disposición de entender en ello.* Hortaz, bere aita lan hori egitetik salbuetsi zezatela eskatu zuen. Batzarrak bilketa Juan Otxoa de Berriatua batxilerrak –Batzarreko presidentea– eta Otxoa Sebastian de Berriatuak egin zezatela agindu zuen (*por la horden que estava mandado*), Tolosako hurrengo Batzar Nagusirako. Eta eskribauari agindu zioten beharrezko ordenantzak mandatariei emateko (*el scrivano truxiese a esta villa y entregase en ella [mandatariei] las dichas hordenanças y lo demás que para la dicha recopilación hera necesario*).

Bilketa lan horri buruz, oraingoan ere mandatari berriek ez zuten aurre-rapenik egin, ez dugu horren berririk behintzat. Hurrengo urteetan, Batzarraren ahaleginak berriro inbentarioa eguneratzera eta sortutako dokumentazio berria bere agiritegian jasotzera bideratu ziren²⁹.

Hala ere, oraingoan, Probintziak Zaldibia batxilerrari agindu behar izan zion aipatutako bilketa lana, hain zen beharrezkoa eta desiratu. Juan Martinez Zaldibiak –Tolosako herritarra, Probintziako agiritegia zegoen hiribildukoa, hain zuzen ere– ezagutzen zuen agiritegia, eta Gipuzkoan estimatua eta entzutsua zen.

Zaldibiak lanari ekin, eta 1560rako ia amaiturik zuen egitekoa. Estensoro batxilerrari iritzia eskatu ziotenean, honek ontzat jo zuen (*laborioso y provechoso, brebe y conpendioso*); baina honakoa gehitu zuen: punturen bat legelari bati

²⁹ Elgoibarko Batzar Nagusiak, 1561-IV-24 [Arrasateko udal agiritegia. Batzarrak, 2. kutxa, 6. or. aurre.]: Eskribauorde leialari honakoa agindu zitzaion: *Ponga en el archivo d'esta Provincia todas las escrituras e recaudos que tiene sacados del dicho archivo, conforme al ynbentario, y las demás que no estén en el ynbentario ynbentándolas. E así vien se pongan las otras escrituras e recaudos que están en poder de los Diputados que son e an sido e se pongan por ynbentario.*

Apirilaren 26an [11. or. atze.] Juan Martinez de Sarastume eskribauorde leialari honakoa agindu zitzaion: *Jure y declare qué escrituras, privilegios, hordenanças, cartas y provisiones y otros recaudos tiene sacados del archibo en su poder de las que están en el ynbentario, y otros que tiene fuera del dicho ynbentario sacadas del dicho archibo y han benido a su poder como a teniente de escrivano fiel, o en otra manera, para que se buelban y metan en el dicho archibo y se pongan en el dicho ynbentario y archibo. Y a las bezes que alguno se hubiere de sacar del dicho archibo, ansí a pedimiento de la Provincia como de otro particular, el dicho Sarastume o otro teniente que fuere en el dicho ofiçio no salga de Tolosa hasta [que], sacado aquello que es menester, lo torne al dicho archibo, por manera que siempre esté en el dicho archibo lo que se pidiere. Y que del dicho archibo y escrituras del escrivano fiel y su teniente saquen treslados de las escrituras del dicho archibo, las que le pareçerá, con autoridad del Corregidor o alcalde de Tolosa y de qualquier d'ellos, para que los dichos treslados dé a las partes que lo pediere lo que fuere y obiere menester y se le pediere.*

Debako Batzar Nagusia, 1561-XI-15 [Arrasateko udal agiritegia. Batzarrak, 2. kutxa, 4. or. atze.]: Juan Lopez de Olazabali (Tolosako alkatea), Probintziako diputatuari eta eskribau leialari honakoa agindu zitzaion: *Agan nuevo ynbentario de las escripturas y probisiones del archibo de la Probinçia.*

Errenteriako Batzar Nagusia, 1562-IV-13 [Arrasateko udal agiritegia. Batzarrak, 2. kutxa, 2. or. atze.]: Batzarrak honakoa agindu zuen: *Que se recojan todas las scripturas que faltan del archibo y todas ellas, con las demás que hubiere que poner, se pongan en el dicho archibo y se aga el nuevo ynbentario que está començado por las personas a quien en la última Junta se cometió.* Egun batzuk geroago, honakoa agindu zuen: *Que se recojan todas las scripturas que faltan del archibo y todas ellas, con las demás que hubiere que poner, se pongan en el dicho archibo y se aga el nuevo ynbentario que está començado por las personas a quien en la última Junta se cometió.*

18an [23. or. atze.] Batzar berak, Tolosako alkateari mandatua ematea agindu zuen, alkatea Antonio Estangaren paperetan sar zedin: *Y en ellos busque las cédulas, probisiones y recaudos que en su poder están tocantes a la Provincia, y por ynbentario los entregue a mí el dicho escrivano para que se pongan en el archibo. Y en caso que Martín de Aztina, a cuio cargo están los dichos papeles, no los quisiere entregar, que el dicho alcalde le ynbie con ellos.*

kontsultatu behar zitzaionez gero, zeren *de la sinple letura no se perçibe bien el sentido de la escritura*, bere iritziz Gortera bidalitako nuntzioek proposatzen zutenaren zain egotea komeni zela, *sabida su negoçiaçión*, gero gehitzeko *lo bueno que de allá truxieren*, y *entonces se terminará a remirar, conforme a lo que el jurisconsulto dice*³⁰.

Horri buruzko berririk gabe, 1562ko apirilaren 17an Errenteriako Batzarrak Estensorori idaztea erabaki zuen, honek egindako lana Batzarrera ekar zezan (*lo que a echo en lo de la recopilación de las ordenanças*); halaber, agiritegiaren inbentario berria egiteko izendatutako pertsonak memorial bat (*un memorial de los privilegios que les parecen que se deben confirmar*) egin zezatela eta Getariako Batzarrera aztertzeraz eraman zezatela agindu zuen (*para que en ella se trate sobre la orden que se a de tener*)³¹.

Hiru egun geroago (1562-IV-20) batxilerra Batzarrean agertu zen, agindu ziotena egin zuela eta erabiltzeko prest zegoela esanez (*a echo la recopilación de las ordenanças, çédulas y provisiones d'esta Provincia*). Atxaran batxilerra, Zandategi lizentziaduna, Juan Lopez de Agirre eta Martin Muxika (*o los que d'ellos pudieren*) Pazkoko hirugarren egunean Tolosan bil zitezela agindu zuen Batzarrak, batxilerrak egindakoa ikus eta Estensoro batxilerrak emandako iritzia egiaztatu zezaten, eta beraien ustez hartu beharreko erabakia Getariako Batzarrera eraman zezatela. Halaber, Zaldibia batxilerrari agindu zion berak egindako guttia eskribau leialari emateko, izendatutakoek ikus zezaten (*y que si se obiere de ynpremir sea la ynpresión para el dicho Bachiller Çaldivia, atento que él lo a travajado*)³².

Eta gaia hurrengo Segurako Batzarrera arte luzatu zen. Azaroaren 15ean Zandategi lizentziadunari eta Zaldibia batxilerrari idazteko agindua eman zen, biak Batzarrera bertaratu zitezen eta batxilerrak bere lana eraman zezan (*trayga consigo la obra que tiene hecha*)³³. Aldi berean, inbentario berria (*nuevo ynventario de las escrituras del archivo*)³⁴ egiteko premia azaldu zen.

³⁰ Estensoro batxilerraren gutuna (Segura, 1560-IV-25) [AGG-GAO JD IM 1/11/46 (1582)].

³¹ Arrasateko udal agiritegia. Batzarrak. 2. kutxa, 20. or. aurre.

³² Arrasateko udal agiritegia. Batzarrak. 2. kutxa, 25. or. atze.

³³ Arrasateko udal agiritegia. Batzarrak. 2. kutxa, 3. or. atze.

³⁴ Aurreko Batzarretan erabakitakoaren arabera, 17an honakoa agindu zen: *Se aga nuevo ynventario de las escrituras del archivo. Y para ello, en uno con mí el dicho escrivano, nonbraron al alcalde de la villa de Tolosa e a Joseph de Estensoro, y por escribano a Juan López de Olaçaval* [Arrasateko udal agiritegia. Batzarrak. 2. kutxa, 12. or. atze.]. Zarauzko Batzar Nagusian, Juan López de Olazabali 3.000 marabedi igorri zitzaizkion 10 egunez agiritegiaren inbentario berria egiten jarduteagatik eta zigitatutako bi inbentario bidaltzeagatik [Hondarribiko udal agiritegia E/2/1/2; 38. or. aurre.].

Hilaren 19an bi gutun irakurri ziren, bata Zandategi lizentziadunarena eta bestea Zaldibia batxilerrarena. Lizentziadunak esaten zuen Batzarrera ez zela joan, gaixorik zegoelako, baina ahal izango balu agertuko zela (*durante ella*). Lizentziadunaren ondoeza zela eta, hara zer zioen Zaldibiak: *Dexa de benir aunque el ber lo que él a escripto no se podiera azer tan de corrida sino con algún reposo y tienpo, y qu'él no quiere otro premio por ello salvo la ynprisión que suele ser para los que scriben, y que la Provinçia ponga la diligençia y costa de azerlo ynprimir*. Bi gutunak irakurri ondoren, Batzarrak bien etorrera itxarotea erabaki zuen³⁵.

Batzarra bukatzeaz zegoela, eta Zandategi eta Zaldibia artean iritsi gabe, biak eta eskribau leiala Segurara joan zitezela agindu zuen Batzarrak, Estensoro batxilerrarekin batera Zaldibiak egindako bilduma ikustera eta beren iritzia Azpeitiko Batzar Nagusira eramateko (*la recopilación que está hecha de las hordenanças y probisiones d'esta Provinçia y las obras qu'el dicho Bachiller Çaldivia tiene hechas, y sobre todo den su pareçer de lo que adelante se debe conseguir en ello*)³⁶.

Batzarra Azpeitian bilduta, 1564ko apirilaren 17an Zandategi lizentziadunaren gutuna irakurri zuten. Gutunak zioen Segurako Batzarrean agindu zitzaioela, Estensoro eta Zaldibia batxilerrekin batera, azken honek egindako bilduma ikusteko (*la recopilación de las hordenanças y la «Suma de las cosas memorables» que Çaldivia ofreçía*) iritzia eman zezan, eta Azpeitira joan zela agindua betetzera; ondoren, Diputatuarekin hitz egin ondoren Tolosara joan zela eta bilduma ikusi zuela (*donde bió la recopilación de las hordenanças y probisiones y la brebe «Suma de las cosas memorables» d'esta Provinçia. Y porque el dicho Bachiller no quiso yr a Segura dexó de yr, pero que él está presumido en anbos negoçios y dará su parezer todas las vezes que mandaren*). Edonola ere, gaixorik zegoelako Batzarrera ez zela joan esan zuen (*por enfermedad de su persona*)³⁷.

Batzarrak agindu zuen Zandategi lizentziaduna, Zaldibia batxilerra eta Batzarreko presidenteak (Amador eta Akemendi lizentziadunak) Pazko ondorengo lehen astelehenean Tolosara joan zitezela, bilduma ikustera:

Y si ay en ella algunas hordenanças o provisiones o otra cosa que parezca que se deba quitar o si se an dexado de poner en ella otras hordenanças o provisiones, y todos ellos se corrigan y pongan en horden y, así hecho, den su pareçer de lo que en ello la Probinçia debe probeher y la horden que para adelante se debe thener.

³⁵ Arrasateko udal agiritegia. Batzarrak. 2. kutxa, 17. or. aurre.

³⁶ Arrasateko udal agiritegia. Batzarrak. 2. kutxa, 22. or. aurre.-atze.

³⁷ Arrasateko udal agiritegia. E/II/1/2; 3. or. atze.

Liburua artean Gortetik itzuli gabe, 1586ko apirilean Tolosako Batzarrak Donostia, Segura, Ordizia, Azpeitia, Azkoitia eta Arrasateko prokuradoreei liburua aztertzeko agindu zien, bai eta gero emateko ere: *[Viesen el] libro de los privilegios y hordenanças d'esta dicha Provincia para que, enterado d'ellos, se pueda mejor e con más deliberación hordenar, prober y mandar todo lo que se tratare, probeyere y mandare en esta Junta*⁸⁹. Geroxeago, eskribau leialari Arrasatera eta Bergarara bildumaren kopia bana (*sendos traslados de la recopilación que agora se hizo de las hordenanças d'esta Provincia*) bidaltzeko agindu zitzaion, zegokiona ordainduta, bai eta eskaera egiten zuten hiribilduetara ere⁹⁰.

Garibaik egindako ohartarazpenaz –dokumentuak erkatu gabe zeudela esan zuen– jabetuta, apirilaren 26an, *atento que con el ynbentario no concuer-*

⁸⁶ Tolosako Diputazioa, 1584-V-1: Juan Idiakez jaunaren eta Bartolome Irarragaren (*a quien se encomendó la ynpresión de la recopilación de las hordenanças d'esta Provincia*) eskutitzak iritsi zirela esan zen, apirileko 13 eta 19koak; bilduma jaso zutela esaten zuten, eta gainera: *por agora, por justas causas, son de parecer se suspenda su ynpresión* [AGG-GAO JD AM 12,9; 1. or. aurre.].

⁸⁷ Azpeitiko Diputazioa, 1585-VII-9: Lukas Zabalarri –Gortean agente– idazteko agindua eman zen, Domingoren eta Bartolome Irarragaren eskuetatik ordenantzen bildumaren liburua har zezan, *que se les ymbió para consultar y pedir su ympresión, [...] y le enbñe a esta Provincia con persona de recaudo* [AGG-GAO JD AM 13,1; 10. or. atze.].

⁸⁸ Mutrikuko Batzar Nagusia, 1585-XI-22: Lukas Zabalarri –Gortean nuntzio– honakoa agindu zioten: *Que la recopilación de las hordenanças d'esta Provincia que diçe tenerle en su poder en la villa de Madrid, lo envñe a poder de mí el dicho scrivano fiel* [AGG-GAO JD AM 13,3; 33. or. atze.].

⁸⁹ Tolosako Batzar Nagusia, 1586-IV-19: Donostia, Segura, Ordizia, Azpeitia, Azkoitia eta Arrasateko prokuradoreek liburua azter zezatela erabaki zen: *[Viesen el] libro de los privilegios y hordenanças d'esta dicha Provincia para que, enterado d'ellos, se pueda mejor e con más deliberación hordenar, prober y mandar todo lo que se tratare, probeyere y mandare en esta Junta, a quienes se mandó entregar el libro de los dichos privilegios y hordenanças* [AGG-GAO JD AM 13,6; 3. or.-atze.-4. or. aurre.].

⁹⁰ Apirilaren 22an eskribau leialari Arrasatera eta Bergarara bildumaren kopia bana (*sendos traslados de la recopilación que agora se hizo de las hordenanças d'esta Provincia*) bidaltzeko agindu zitzaion zegozkion eskubideak ordainduta (*pagándome mis derechos*), bai eta eskaera egiten zuten hiri-bilduetara ere [AGG-GAO JD AM 13,6; 9. or. atze.].

dan las escrituras, privilegios y hordenanças qu'están en el archibo por estar herrados los números o también están fuera d'él e faltan muchas de las dichas hordenanças, provisiones y otros recados, Tolosako Batzar berak honakoa agindu zuen: hiribilduko alkateak, bere Diputatuak eta Luis Cruzatek (*que hizo la recopilación de las dichas hordenanças*) agiritegi guztia ikuskatu zezatela eta inbentario berria egin zezatela, eta handik kanpo egon zitezkeen paper guztiak ere, eskribau leialaren eskuetan nahiz Pedro Inarraren oinordekoen eskuetan edota beste nonahi (*y en otra qualquier parte*), bil zitzatela eta Francisco Aierdik –Gipuzkoako agentea Valladoliden– Simancaseko agiritegiko inbentarioak (*los ynbentarios del archibo de Simancas*) ikuska zitzala.

Beraz, beharrezkoa zen agiritegiko paperen inbentarioa eguneratzea eta osatzea bildumaren hobekuntzari ekin aurretik. 1587ko apirilean lana Luis Cruzati agindu zioten berriro⁹¹, Juanes Iriarte Tolosako alkate eta diputatuarekin⁹², eta eskribau leialari bere eskuetan zeuzkan dokumentuak agiritegian utz zitzaizkien⁹³. Cruzatek, ordea, ezin izan zuen bere zeregina bete. Heriotza iritsi zitzaionean –urte berean azaroko Hernaniko Batzarrean jakinarazi zuten–, Martin Elkanok ordezkatu zuen⁹⁴.

Zendu zen, bada, Gipuzkoako lehenengo bilduma sistematikoaren benetakoa egilea izan zena, Zandategik prestakuntza sakonagoa bazuen ere; agidanez, adineko gizona zen⁹⁵. Cruzatek jaso zituen Tolosako agiritegitik paperak eta

⁹¹ Cruzat eskarmentu handikoa zen agiritegien inbentarioak egiten. Gogora dezagun 1581ean Donostiako agiritegiko paperen inbentarioa egin zuela, gaur «Colección de Documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa» bilduman argitaratua, 2 (1958), 57-106. or.

⁹² Donostiako Batzar Nagusia, 1587-IV-16: Luis Cruzati (Donostia) eta Juanes Iriarteri (Tolosako alkate eta Diputatuak) honakoa agindu zitzaizkien: *Agan nuevo ynbentario del archibo d'esta Provincia e sus papeles, los quales se pongan asentados por el dicho inventario con los demás que por mí el dicho escrivano estubieren recogidos y se allaren fuera del dicho archibo* [AGG-GAO JD AM 15,1; 14. or. aurre.].

⁹³ Tolosako Diputazioa, 1587-VI-21. Ia gauza bera errepikatu zen, errege-gutun berriak iritsi zirela eta eskribau leialari agiritegian jartzeko agindu zitzaion: *En el archibo, [...] poniéndose por ynbentario y en debida forma en el ynbentario del dicho archibo* [AGG-GAO JD AM 15,4; 28. or. atze.].

⁹⁴ 1587-XI-17an, Batzarrek, *en lugar de Luis Cruzat, que es ya difunto*, Martin Elkanori (Zarauzko prokuradorea) eta Joanes Iriarteri (Tolosa), Tolosako Diputatuarekin, inbentario berria egiteko agindu zien: *Hagan nuevo ynbentario de los papeles del archibo d'esta Provincia, los quales se pongan a gesto por el dicho ynbentario con lo que demás que por mí el dicho escrivano fiel estubieren recogidos y se allaren fuera del dicho archibo* [Hondarribiko udal agiritegia, E/2/I/5; 7. or. atze.-8. or. aurre.].

⁹⁵ Sebastian Intsaustiren esanetan, *Zandategui debía ser para entonces bastante anciano o, al menos, lleno de achaques, pues no podía salir de casa [...] y consta que había fallecido antes de noviembre de 1583*. Gainera, Cruzat baino adituagoa eta eskarmentu handiagokoa zen (*más ducho y experimentado en la aplicación práctica de las leyes provinciales*) [«Introducción a la edición de la Recopilación de 1583», XXXVI. or.].

bera ibili zen Azkoitian eta Azpeitian; berak aurkeztu zuen Zarauzko Batzarrean bilduma, eta berari agindu zitzaion bilduma hori argitaratzea, zuzenketa-batzordeak jarritako gehikuntza eta zuzenketekin. Berak eman zuen, 1583ko azaroan, Tolosako Diputazioan 97 orrialdeko liburu hura (*un libro cubierto de cuero de becerro amarillo y dorado, escrito en noventa y siete hojas*), berari ordaindu zitzaizkion 50.000 marabedi, egin zuen lanagatik, (Zandategiri, ordea, 10.000 igorri zitzaizkion⁹⁶), eta geroago, baita esleitutako kopuru hori bikoiztu ere⁹⁷.

Baina heriotza iritsi zitzaionean bere liburua artean Gortean zegoen. 1587ko azaroan, Batzarrak agenteari liburua eskatu behar izan zion berriro: [Bidal zezala] *el Libro de la recopilación de las hordenanças d'esta Provincia que cobró de Vartolomé de Yrarraga y se alla en su poder, para que el oreginal se ponga y guarde en el harchibo y se sirba la dicha Provincia en sus Juntas con él*⁹⁸.

Garibaik bestelako iritzia eman bazuen ere, 1583koa bilduma ona izan zen. Antzinako Gipuzkoako Ermandadearen Ordenantza haietatik hasita, konpilazio desberdinak egin ahala agindu kopurua handitzen zihoan, baina bildumaren egileen lana aginduak metatzea baino gehiago izan zen: trebetasun handiagoa edo txikiagoa erakutsiz, baina kodifikazio lan bat egin zuten, arauak ordenatu eta sistematizatu zituzten, eta kode modernoei aurea hartu zieten, jatorrizko dokumentuen gehiegizko prosa enfatiko eta errepikakorra laburtu baitzuten, aginduen funtsa mantenduz. Egileek egindako berrikuntza, gero 1696ko Bilduma Berrian erabili zena, Gipuzkoako Foruarentzat behin betiko molde organikoa izan zen. Oso garrantzitsua da, beraz, gure foru-bildumaren tradizioan⁹⁹.

Bilduma Gipuzkoaren deskribapen batekin hasten da eta jarraian ondoko gai hauek jorratzen ditu: antzinatasuna eta noblezia, erregeekiko leialtasu-

⁹⁶ 1582-XI-24an 50.000 marabedi ordaindu zitzaizkion Cruzati (*por el trabajo que ha tenido en la recopilación de los privilegios y hordenanças d'esta Provincia*), eta beste hamar dukat bere etxetik kanpo hamar egun igaro zituelako Azpeitian, Tolosan eta Azkoitian; Zandategiri 10.000 marabedi arrazoi beragatik [AGG-GAO JD AM 12,2; 40. or. aurre.].

⁹⁷ Azaroaren 23an, Luis Cruzati beste 50.000 marabedi ordaintzeko agindu zuten: *Demás y allende de los 50.000 mrs. que primero se le libraron por la recopilación de las hordenanças, a cumplimiento de doçientos ducados*. Donostiak, 50.000 marabedi horiez gain, beste 200 dukat ematea proposatu zuen (*porque su voluntad y lo mucho que a trabajado en lo suso dicho mereze aquellos e muchos más*) [AGG-GAO JD AM 12,7, 63. or. atze.]. Egiazki, 40.000 marabedi igorri zitzaizkion (=100 ezkutu) [AGG-GAO JD AM 12,7; 83. or. atze.].

⁹⁸ Hernaniko Batzar Nagusia, 1587-XI-16: Batzarrak Elgoibarreko hurrengo Batzarrerako liburua bidal zezala agindu zion Lucas Zabalarari –Gorteko bere agentea–: *Enbíe el Libro de la recopilación de las hordenanças d'esta Provincia que cobró de Vartolomé de Yrarraga y se alla en su poder, para que el oreginal se ponga y guarde en el harchibo y se sirba la dicha Provincia en sus Juntas con él* [Hondarribiko udal agiritegia, E/2/I/5; 3. or. atze.].

⁹⁹ Telletxea Idigoras, Jose Ignazio, Prólogo a la edición de la Recopilación de... 1583, VII-VIII or.

na, bere zerbitzuengatik erregeek azaldu izan dioten estimua eta aitorpena, bere gailentasuna eta pribilegioak, eta bere ezkutua. III. idazpurutik aurrera Probin-tziako gobernu- eta justizia-erakundeak arautzen dira; hala nola, korrejidorea, merioak eta alkateak.

Baina liburuaren zati handiena Ermandadeak eta bere erakundeek hartzen dute. Ermandadearen egitura eta bere Batzarren arautzea (presidentea, eskribau leiala, prokuradoreak, abokatuak, Diputazioak, banaketak, diruzaina, etab.) IV -IX idazpuruetan jorratzen dira; Ermandadeko alkateak X-XIII idazpuruetan, eta XI-XVI idazpuruetan eskribauaren egitekoa, kartzelak, bere alkaideak eta prozesu judizialak.

Bigarren multzo batean merkataritzari buruzko hainbat alderdi biltzen dira: esportazioen alkatetza (XVII); salbuespenak eta merkataritza askatasuna, eta tratu, merkataritza, eta nabigazioari buruzko xedapenak (XVIII-XIX); pi-suak eta neurriak (XX); sagardoak (XXI); debekatutako gauzak (XXII); galtza-dak (XXIII). Gerra eta babesaren antolaketa (XXIV-XXV); gizartean eragina duen erlijio bizitza, hala nola bulda baimenak, onuren hornidura, meza berriak, ezkontzak, hiletak edo ehorzketak (XXVI-XXVII).

Hirugarren multzo batean Probintziaren bizitza politikoaren defentsa bil-tzen da: zilegi ez diren elkarketak, kofradiak (XXVIII); indarkeriak, gabetzeak eta lapurretak (XXIX); gaizkileen estaltzeak (XXX); alderraiak (XXXI); esparru hesituak (XXXII); gezurrezko lekukoak (XXXIII); armak (XXXIV); su-etenak, azpikeriak eta erronkak (XXXVI).

Eta, azkenik, bizitza ekonomikoaren zenbait alderdi: burdinolak, mea-tzeak eta zuhaitzak (XXXVII-XXXVIII); larreak eta aziendak (XL); eta Probin-tzian herritartzea (XLI).

Jose Ignazio Telletxea Idigorasek honako hau esaten du 1583ko bildu-mari buruz: *En cantidad de normas, en amplitud de ámbitos regulados y, sobre todo, en ordenación y sistematización de preceptos supera largamente a todas las anteriores y, sobre todo, establece definitivamente el marco al que se ajustará, añadiendo o suprimiendo leyes, la Recopilación de Aramburu (1696) y el Suplemento impreso de los Fueros (1758)*.¹⁰⁰ Beraz, bitarteko bat izan zen (*intermediaria entre los intentos recopiladores precedentes y la definitiva reco-pilación*)¹⁰¹.

Izan ere, 1583az geroztik, Batzarretan etengabe aipatzen zen bildumaren liburua presidentea aukeratzeko nahiz korrejidoreari liburuko xedapenak bete-

¹⁰⁰ 1583ko Bildumaren edizioaren hitzaurrea, VIII. or.

¹⁰¹ Sebastian Insaustiren hitzaurrea, bere edizioan, XIX. or.

tzea galdegiteko (*los privilegios y ordenanzas que la dicha Provincia tiene, que están escritos en el libro de la Recopilación, por títulos y leyes del dicho libro en suma*)¹⁰².

Lege testu honen zenbait kopia ezagutzen ditugu gaur:

Bat Gipuzkoako Artxibo Orokorrean, baina 1590eko datarekin.

Beste bat Donostiako Elizbarrutiko Artxiboan, Errezilgo parrokiakoa da (Sebastian Intsaustik 1983ko ediziorako erabili zuen testua, hain zuzen ere).

Beste bat Villabonako udal agiritegian¹⁰³

Beste bat Soralezeko udal agiritegian¹⁰⁴

Beste bat Bidegoiango (Bidania-Goiatz) udal agiritegian.

Beste bat Madrilgo Liburutegi Nazionalean¹⁰⁵; kopia hau, bilduma berreteko Gortera bidalitako kopia dela susmatzen zuen Jose Ignazio Telletxeak¹⁰⁶

5. Bilduma osatzeko saialdi berriak

1587tik aurrera, Cruzat hil ondoren, zenbait Batzarrek Martin Elkanori –Zarauzko eskribaua– inbentario lanarekin jarraitzeko mandatua eman zioten¹⁰⁷. Elkano Debara joan zen 1588ko azaroan, egin zuenaren berri ematera (*lo que en ello avía fecho y se le ocurría, y la orden que le parecía se debía tener en su conservación*), eta memorial bat eman zuen; bertan, gutun, hornidura eta errege-zedula guztiak ordena kronologikoan eta egilearen arabera sailkatzea komeni zela adierazi zuen, agiritegia txukunago (*con más curiosidad*) edukitzeko. Ez zen lan luzea izango, dokumentu bakoitzari bere data jarri baitzion¹⁰⁸.

¹⁰² Bergarako Batzar Nagusiko adibidea, 1594-IV-23, [AGG-GAO JD AM, 20,1; 3. or. aurre.].

¹⁰³ Paper sorta: «Libros y Ordenanzas de Guipúzcoa 1581-1583».

¹⁰⁴ Katalogo zk.: 84-A.

¹⁰⁵ 10.463 kodexa. J. L. Orellaren berri laburrean aipatua, *Mundaiz* aldizkarian, 24. zk. (1982) 50. or., J. Ignazio Telletxea Idigorasen «Leyes y Ordenanzas de Guipúzcoa (1583). Embrollo bibliográfico y algo más» idazlanean esaten denez, *BRSBAP* buletinean, XL. urtea, 1-2 koaderno (1984) 274. or., baina guk ez dugu aipu hori aurkitu.

¹⁰⁶ «Leyes y Ordenanzas de Guipúzcoa (1583). Embrollo bibliográfico y algo más» idazlanean, op. cit., 275. or. Egileak dionez, beste kopiekin erkatuta honek aldaera bat du, Osunako dukeak egina: Filipe II.ari zuzendutako eskutitz bat dauka, liburua inprimatzeko baimena eskatuz.

¹⁰⁷ Martin Elkano –Zarauzko eskribaua– 1587ko azaroko Batzarrean izendatu zuten, eta 1588-V-2ko Elgoibarko Batzar Nagusian honako agindu hau eman zioten: *Consiga y lleve a debido hefeto el azer del ynventario del archivo de papeles d'esta Provinçia*. Debako Batzarrean libratu zuten [AGG-GAO JD AM 15,6; 6. or. atze.].

¹⁰⁸ Debako Batzar Nagusia, 1588-XI-16. Martin Elkanok Batzarrean eginikoa: *Hizo larga relación por escrito de lo que en ello avía fecho y se le ocurría, y la orden que le parecía se debía tener en su*

Baina Elkanok zioenez, agiritegiaren antolamendua ez zen egokia, ez baitzegoen ondo antolatuta (*está en mal puesto, desautorizado y muy esquivo para le abrir e çerrar, donde no ay lugar para sacar los caxones y los papeles d'ellos con mucho trabajo e dificultad*). Beste toki zabalago batera lekualdatzea kome-ni zela zioen, eta sakristia leku aproposa zela (*la sacristía de la dicha iglesia, açiando azer ençima d'ella un aposento*), Donostiako San Bizente elizan kokaturik dagoen agiritegiaren eran.

Batzarrak aintzat hartu zuen bere proposamena eta Tolosarekin hitz egin zezala eta, gastu neurritsu batekin, agiritegi berriaren diseinu bat presta zezatela esan zion¹⁰⁹. Bitartean, Elcanoren memoriala eta inbentarioa aztertzeko, Segura, Azpeitia eta Oiartzungo prokuradoreak izendatu zituen. Haien iritzia ikusita, azaroaren 19an Batzarrak Elcanori, berak proposatu zuen bezala, bi liburu prestatzeko agindua eman zion, agiritegiaren funtzionamendua hobetze aldera, batean dokumentuen ateratzekak idazteko, eta bestean agiri garrantzitsuak kopia-tzeako: *Çédulas y otros recados de ynportançia*, [baita] *algunos buenos provei-mientos y hordenanças de Juntas que sean de ynportançia para el gobierno de la república [ere]*¹¹⁰.

conservación, firmado al pie de todo de su nombre que, oreginalmente, queda en mi poder. Y porque entre otras cosas que en el dicho memorial refiere ay un capítulo, y por él dize que le pareze que para que el dicho archivo quedase y estuviese con más curiosidad conbernia que todas las provisiones, cartas e çédulas de los senores reyes se pusiessen las de cada Rei por sí por sus datas, lo qual se podría agora azer en menos de quinze días, porque todo está retulado con sus datas, [eta Batzarrak agindu zuen] prosiga e continúe el ynventario en lo que falta de azer, conforme a su memorial, poniendo las dichas provisiones y cartas e çédulas reales las de cada Rei por sí, según que en su memorial por el dicho capítulo refiere [AGG-GAO JD AM 15;9; 6. or. atze.-7. or. aurre].

¹⁰⁹ Debako Batzar Nagusia, 1588-XI-16. Halaber, Elkanok zioen: *Que el archivo está en mal puesto, desautorizado y muy esquivo para le abrir e çerrar, donde no ay lugar para sacar los caxones y los papeles d'ellos con mucho trabajo e dificultad, por lo qual conbiene mudarlo a otro puesto esento y espaciosso, y que éste le pareze sería en la sacristía de la dicha iglesia, açiando azer ençima d'ella un aposento, de la manera que la villa de San Sevastián tiene fecho para el suio en la de San Viçente, se probeyó e mandó que el propio Martín de Elcano comunique lo suso dicho con la villa de Tolosa y lo confiera y trate con ofiçiales que d'ello entiende, y tome el tanto de lo que pueda costar, con que la traça que se huviere de tomar sea la más moderada que se pudiera aver. Y para ver el ynventario que ansí a fecho el dicho Martín de Elcano con el memorial que ansí presenta, e su trabajo e ocupación, se comete a los procuradores de Segura, Azpeitia e valle de Oyarçun. Gaineratu zuen beren iritzia eman zezatela [AGG-GAO JD AM 15;9; 6. or. atze.-7. or. aurre].*

¹¹⁰ Debako Batzar Nagusia, 1588-XI-19. Batzarrak honakoa agindu zuen: *[Que], en lo que toca a los dos libros que a de aver en el dicho archivo para asentar qué recados se sacan d'él e quién los lleba, y lo mismo para ver los recados que ai en los dos despachos de las Juntas, ansí en el tienpo de mí el dicho escrivano como de mis antecesores, para, si en ellos se allaren algunas çédulas y otros recados de ynportançia, sacar e poner en el dicho archivo, y lo mismo algunos buenos proveimientos y hordenanças de Juntas que sean de ynportançia para el gobierno de la república, cometían todo lo suso dicho al mismo Martín de Elcano para que lo aga e ponga como conviene e refiere en su memorial. Eta bere lanagatik 80 egun ordaindu zekizkion agindu zen, teniendo consideración al trabajo que a tenido,*

Elkanok bere inbentarioa 1589ko apirileko Batzarrerako amaitu zuen, eta agiritegi berriaren diseinua Erreteriarara eraman zuen. Izendatutako komisarioek¹¹¹ diseinua egokia zela esan zuten (*en mucho conçierto, horden e comodidad, que de la obra d'ella se echa bien de ber el cuydado con que a entendido en ella*), lanak laster hasi behar zirela eta aurrerantzean Elkanok xehetasunez proposatutako protokoloa jarraitu behar zela, dokumentuen ateratzeari eta agiritegiaren kudeaketari zegokienez¹¹².

Ildo horretan, oso interesgarriak dira agiritegitik ateratzen ziren artxiboak kontrolatzeko Elkanok proposatu zituen oharrak (*advertimientos*),¹¹³ eta berezi-

demás de 50 días que en ella se a ocupado otros muchos en su casa [AGG-GAO JD AM 15,9; 26. or. atze.-27. or. aurre.].

¹¹¹ Josepo Estensoro, Pedro García de Albisu, Miguel Garin eta Juan Ibañez Albisu.

¹¹² Erreteriarako Batzar Nagusia, 1589-IV-21: Martin Elkanoren erantzuna, agiritegiko paperen berantolaketari buruz, aztertze izendatutakoek (hau da, *los ynventarios que a conpuesto e reformado de los privilegios, executorias, çédulas e provisiones y los demás papeles de V.S^a y la traça de su archivo nuevo que tiene mandado acer*) beren irizpenean honakoa zioten: *están en mucho conçierto, horden e comodidad, que de la obra d'ella se echa bien de ber el cuydado con que a entendido en ella*. Eta honakoa esan zuten:

- Agiritegiaren diseinua egokia zela (*está açertada, y conforme a ella estará el dicho archivo en muy buena parte, segura y acomodada*), lehenbailehen egin behar zela (*azerse el dicho archivo con mucha brevedad*) eta lanak burutzeko ardura, Elkanorekin batera, Tolosako alkate eta diputatuari ematen zitzaiola, horretarako 400 dukat esleitzen zirelarik (Batzar hartan 200 dukat banatu ziren), *así para los materiales que se an juntado en la obra como para principio de la manufactura de los maestros e de los menuzeros que an de acer los armarios e caxones donde an de estar los papeles, y el resto se libre conforme al dicho con çierto y remate con lo que llebare de mejoría y la estensión y buena proporción del dicho archivo*.

- Elkanok paperak zaintzeko aurkeztutako metodoa, *quando al sacarlos y bolver en el archivo* [liburu batean idaztea zein paper ateratzen ziren], *por ser muy açertado para el hefeto, se deve guardar y executar a la letra, e para ello yncorporarse en el registro d'esta Junta. Y conforme a la dicha orden, quando se acavare el archivo nuevo e pasaren a él los dichos papeles se agan los libros referidos en la dicha orden*.

- Elkanok izandatatukoei emandako oharrak beharrezkoak zirela eta Batzarreko erregistroan ezarri behar zirela. Eta oharren lehenbiziko atalak zioena betetzeko bi pertsona izenda zitezela, Gipuzkoako abokatuekin batera, honakoa egin zezaten: *Senallen los privilegios, executorias, cartas, çédulas e provisiones que se deve trasladar, signar e autorizar. Y lo que ellos así senallaren el scrivano fiel lo aga luego trasladar dentro en el mismo archivo, pues abrá aparejo para estar en él los escrivientes, aunque les pareçe tanbién que, como se tenga e guarde la demás orden que el dicho Elcano tiene dada en quanto al sacar e bolver los dichos papeles del archivo, se podría heuitar esta otra diligencia de sacar los treslados, porque, demás que se recreçen gran costa, es de mucho lavorintio*.

- Agiritegia prestatzen zenean, inbentario berrietako paperak agiritegira eramaterakoan, bertan egon zitezela Tolosako Udaleko bi pertsona, bere diputatua eta Elkano, eta azken honi 100 dukat emateko lan horretan eman zituen 60 egunengatik [AGG-GAO JD AM 16,1; 43. or. aurre.-47. or. atze.].

¹¹³ Erreteriarako Batzar Nagusia, 1589-IV-21. Elkanoren oharrek honela zioten:

- *La horden que pareçe se deve tener en sacar los papeles de los archivos e después bolverlos a su lugar es que aya dos libros que estén dentro, el uno con el mismo abecedario del ynventario en el*

ki azpimarragarria da 1463ko Ordenantzen Koadernoaren kopia egiteko duen interesa, hondatuta baitzegoen (*casi rocto e carcomido*), eta zeren: *Estas son las ordenanças más anctiguas e sustançaies, porque en ellas están ynclusas e reformadas las de otros dos quadernos más anctiguos e mandadas derogar, e que no se use d'ellas sino para ber el origen d'estas otras dozientas e siete. Los quales dos quadernos biejos por esta razón quedan agora aparte, conbernia que d'este otro se sacasen uno o dos treslados autorizados e uno quedasse en el mismo archivo e el otro en poder del scrivano fiel.*

qual, quando se saca algún papel, se asiente así: «d'este caxón, letra A o B o C, etc., legajo primero, segundo o tercero, etc., número tal, se sacó tal cosa en tal día y se entregó a Fulano por mandado de Guipúzcoa para tal caso», y la firmen el alcalde e Diputado de Tolosa y el scrivano fiel, todos tres. E sin que todos tres concurran no se pueda sacar ni bolver ningún papel, porque esto ynporta mucho. Y en el otro libro se asienten los conoçimientos de los tales papeles que se sacan, y los firmen aquellos a quien se encargaren, y también los dichos alcalde, Diputado y scrivano fiel. E que las personas a quien se entregaren sean raigadas y avonadas, para que anden con más seguridad y se obliguen en los tales conoçimientos de los bolver dentro de un término competente, según el caso para que se sacaren e dieren. E que al tienpo que se bolvieren al dicho archivo los dichos alcaldes e Diputado y scrivano fiel los pongan en sus mismos caxones, ligaxos e números de donde se sacaron, asentando en el margen del libro: «bolvióse esto en tal día y se puso en su propio lugar». Y echo esto borren el conoçimiento que d'ello se hizo asentando también en su margen la misma razón porque, si esta quenta no se tiene, se puede desconçertar el archivo e ynventario presto. Para remedio de lo qual le parece que el scrivano fiel tenga otro libro en que también asiente la razón de lo que se saca del archivo e cuándo e de qué caxón, legajo y número. Y en el mismo libro y margen de cada cosa así sacada asiente también la razón de lo que se buelbe. E que este libro lo traiga consigo a las Juntas Generales y en cada una d'ellas se tome quenta de lo que entre Junta y Junta se a sacado y buuelto para que, si algo faltare, se aga bolver e no se olvide. E por que esto de tomar la quenta en cada Junta tanpoco se olvide en todos los registros d'ellas, V^a S^a mande asentar un proveymiento que trate sólo d'esto para que, quando se leyere en registro e tocare esto, se pida la dicha quenta.

- *Que para que los privilegios, çédulas, cartas e provisiones reales del dicho archivo estén sienpre en él, sin sacar cosa d'ello si no fuere para caso forçoso, le parece se debria sacar un traslado de todos los sustançaies, que agora se podía ber quáles estos sean con façilidad por los nuevos ynventarios. E que este traslado autorizado ant'el Corregidor e signado del scrivano fiel lo tenga él en su poder para que d'él puedan sacar esta Provinçia e otros qualesquier que hubieren menester los treslados de que tubieren neçesidad. Y con esto se escusará el andar como se anda de hordinario en el dicho archivo sacando e bolviendo los oreginales, de que a resultado también averse perdido algunos.*

- 1463ko Ordenantzen Koadernoaren kopia egin zedila, hondatuta baitzegoen (*casi rocto e carcomido*). Eta, zeren: *estas son las ordenanças más anctiguas e sustançaies, porque en ellas están ynclusas e reformadas las de otros dos quadernos más anctiguos e mandadas derogar, e que no se use d'ellas sino para ber el origen d'estas otras dozientas e siete, los quales dos quadernos biejos por esta razón quedan agora aparte, conbernia que d'este otro se sacasen uno o dos treslados autorizados e uno quedasse en el mismo archivo e el otro en poder del scrivano fiel.*

- Diruzainek kobratutakoaren eta ordaindutakoaren zerrenda, egiaztagiriekin, Batzarretara igor zezatela, zeren: *D'esta manera se saneava Guipúzcoa y los acreedores quedavan satisfechos. Eta agindua egokia zenez (horden sancta y buena), aurrerantzean bete zedin jakinarazten zuen.*

- Eta emandako jarraibideekin nuntzioek eta Diputatuek ere gauza bera egin zezatela, beraiek egin dakoa (*lo executado y negoçiado*) atalka idatziz. Jarraibide horiekin eskribauak koadernoak osatzen

Halaber, Elkanok proposatu bezala, lanak amaitu ondoren paperak agiritegi berrira eramaterakoan bertan egoteko, Tolosako alkate eta Diputatua, soldatapeko abokatuak, Pedro García de Albisu (Ordizia) eta Josepo Estensoro (Segura) izendatu zituen Batzarrak.

Lanak egitea Juan Martinez Zaldibiaren esku utzi zuten, eta Pedro Mendiola (Errezilgo hargina) azkendu zituen ekainaren 1590ean, 650 dukaten truke. Lanak amaituta (*en perfección*), 1592ko apirilean Ordiziako Batzarrak paperak ematerakoan bertan egon zitezen agindu zien Martin Elkanori (*que tiene fecho el ymbentario d'ellos*), Zarautz doktoreari (Batzarreko presidentea) eta Juan Martinez Zaldibiari (*que a tenido quenta de poner e componer el dicho archivo*)¹¹⁴.

Elkanok azaroko Batzarrera berriro eraman zituen inbentarioa, memoriala eta oharrak. Agiritegitik paperik ez ateratzeko (*ningún papel oreginal*) agindua eman zuten, baita agiriak erkatzeko agindua ere: *La recopilación que [yzo] el Bachiller Caldivia de muchos privilegios, provisiones e cartas reales que están en poder del escrivano fiel con el ymbentario nuevo que agora se a fecho para si ay en el dicho archivo otros recaudos esenciales, demás de los que están en el dicho libro*.

Erkaketa Elkanori agindu zioten (*como persona que a pasado por sus manos todo lo que ay en el dicho archivo*), eta memorial bat egiteko agindu zioten (*una memoria de todo lo que allare no estar en la dicha recopilación*). Ondoren, memoriala eskribau leialari emango zioten, korregidorearen baimenarekin, agiriari kopiak egin zitzaizkion, zuzendutako eta jatorrizkoekin erkatutako agiri ho-

zituen, *de lo de dos o tres años uno, [...] y otro de los poderes, otro de las fianças y otro de cartas, y lo demás de entre Junta y Junta. Y en estos quadernos retulados se allava todo junto y a mano. Le parece también esta orden muy buena e neçesaria. Y lo mismo se azía e debría azer en que el scrivano fiel asiente a las espaldas de cada petición que con recaudos o sin ellos se presentaren en Junta, su presentación e proveimiento, e lo firme e dexe el legajo del despacho de la Junta retulado ençima de cada cosa para que con más façilidad se alle lo que se quisiere buscar. Y que las ynformaciones de residençia de los alcaldes de sacas y sus sentençias junte el scrivano con los libros de sus manifestaciones y los demás recaudos* [AGG-GAO JD AM 16,1; 43. or. aurre.-47. or. atze.].

¹¹⁴ Probintziako agiritegia (*para la guarda de los privilegios y cédulas y probisiones reales y otros papeles y recaudos*) Juan Martinez Zaldibiaren ardurapean (*a cuyo cargo está*) egin zen, 1590ean. Proiektua Martin Elkanok egin zuen eta Zaldibiak materiala prest zegoela esan zuen. Lanak (*fábrica y edificio de la obra del archivo*) Tolosako Santa Maria elizan egin ziren (*sobre la sacristía de la yglesia*), Zestoako Batzar Nagusiaren aginduz, eta Pedro Mendiola (Errezilgo hargina) azkendu zituen, 1590eko ekainaren 17an, 650 dukaten truke.

Lanak amaituta, *en perfección*, *donde se an de mudar y poner todos los papeles de la dicha Provincia*, Ordiziako Batzarrak, 1592-IV-21ean, bertaratzeko agindu zien (*y hagan la dicha entrega en nombre d'esta Provincia*) Martin Elkanori, *que tiene fecho el ymbentario d'ellos*, Zarautz doktoreari (presidentea) eta Martinez de Zaldibiari, *que a tenido quenta de poner e componer el dicho archivo* [AGG-GAO JD AM 18,1; 56. or. aurre.-atze.].

riek bilduman jartzeko, betiere orri bazterrean hainbat datu idatziz (*la razón del armario, caxón, legaxo y número donde sus oreginales estén*). Hartara, geroago behar adina kopia ateratzeko aukera egongo zen, agiritegitik jatorrizko agiriak ateratzen ibili behar gabe¹¹⁵.

Halaber, aurrerantzean bi urtetik behin Gipuzkoako agiri berriak (*las executorias, provisiones y demandas e recados que esta Provincia fuere goardando y aciendo de nuevo*) agiritegian sartzeko agindu zen, inbentarioa eguneratuz (*a la forma y traça del que agora se a echo, (...) y que lo esençial de todo ello se baya trasladando y anadiendo a la dicha recopilación*). Gainera, honako beste agindu hauek eman zituzten: 1463ko Koadernoaren bi kopia egiteko (*que son*

¹¹⁵ Azkoitiko Batzar Nagusia, 1592-XI-17. Martin Elkanok, Zarauzko eskribau osoak alegia, *a quien fue cometido la reformation y conpostura de los previlegios, executorias, provisiones e cartas reales y demás papeles e recaudos de su archivo, e la traça de sus armarios*, inbentarioa Batzarrean aurkeztu zuen, *y nventario con el registro oreginal que d'ello a fecho, e una petición de los avertimientos y horden que le pareciesse de aquí adelante se deva tener en el sacar e poner los papeles del dicho archibo, con una memoria que se a de poner de la dicha traça y horden en el dicho archibo para que se guarde la dicha orden*. Batzarrak presidenteari, Francisco Egañari eta Hernando Erraztiri inbentarioak aztertzeko eta beraien iritzia emateko agindua eman zien [Arrasateko udal agiritegia. Batzarrak. 3. kutxa. 7. or. atze.].

Azaroaren 20an, agiritegiko paperak ordenatzeari buruz Martin Elkanok idatzitako memoria eta jarraibideak aztertzeko izendatutakoen iritziarekin, honako agindua eman zuen: [Lehenengo oharra] *que trata que si no fuere para casos muy nescesarios e forcossos no se permitan que del dicho archibo se saque ningún papel oreginal, e para mejor azer se mande cotexar la recopilación que [yzo] el Bachiller Caldivia de muchos privilegios, provisiones e cartas reales que están em poder del escrivano fiel con el ymbentario nuevo que agora se a fecho para si ay en el dicho archibo otros recaudos esenciales, demás de los que están en el dicho libro, [agindu zuten Martin Elkanok] como persona que a pasado por sus manos todo lo que ay en el dicho archibo, aga el dicho cotexamiento e saque una memoria de todo lo que allaren no estará en la dicha recopilación y lo dé al escrivano fiel, el qual aga sacar [traslado] de todos ellos autorizándolo ante el señor Corregidor, corregido e concertado con sus oreginales, [y] lo anada y ponga con la dicha recopilación, de donde podrán sacar los treslados que fueren necesarios, con que se escussará el andar de ordinario en el archibo sacando y bolviendo los oreginales d'él. Y en los treslados que así se sacaren se ponga en la margen de cada cossa la razón del armario, caxón, legaxo y número donde sus oreginales estén. Y esta diligencia se aga de aquí para la Junta de Zumaya, donde el dicho escrivano fiel lo lleve todo ello* [Ibidem, 20. or. aurre.-atze.].

Beste ohar bati buruz, *la Junta mandó poner por capítulo ordinario en los registros de las Juntas que quando es necesario se aian de sacar algunos recaudos oreginales del archibo el alcalde y Diputado de Tolosa y el escrivano fiel d'esta Provincia, en cuyo poder están las llaves del dicho archibo, guarden la orden que están en el papel que el dicho Martín d'Elcano a entregado en esta Junta. El qual se a de poner en una tabla colgada en la sala del dicho archibo para que, quando entraren en ella, las bean y cumplan. E que también tenga el escrivano fiel un libro, además de otros dos que an de estar en el mismo caxón donde el ymbentario para lo contenido de suso, y en el dicho libro asienten la misma razón que en el que a de estar en el dicho archibo de lo que se sacare d'él y bolviere a él. Y el dicho libro el escrivano fiel lo trayga consigo a las Juntas Generales y en cada una d'ellas, quando llegaren en el dicho registro a este capítulo, le tome quenta de lo que entre Junta e Junta se a sacado y buuelto al archibo y a él para que, si algo faltare por debolver, se buelva e no se olvide* [Ibidem, 20. or. atze.-21. or. aurre.].

las más antiguas y se ban rompiendo y cessando la letra), horietako bat eskribauaren eskuetan jarriko zelarik; Nuntzioek eta Diputatuak beren txostenak idatziz eman zitatzela eta, josita, aurrerantzean agiritegian gorde zitezela; Eskribauak koaderno bat egin zezala (*aga quaderno cossido*) jarraibide eta erabaki guztiekin (*de lo de dos anos en uno, otro de los poderes, otro de las fiancas y otro de cartas escriptas y rescevidas de Junta en Junta*). Eta, azkenik, Probintziarentzat garrantzitsuak ziren hainbat agiri bilatu zitezela eta haien kopia baimenduak atera zitezela (hala nola, esportazioen alkatetzaren agiria, galtzada, zubi eta pontoien alkatetzarena edo Juarez de Toledo doktore bisitariak Gortera eramane zituen 1559-1569ko Batzarretako aktak), eta eskribauak azken hogei urteetako aktei begirada bat eman diezaiola (*pase los ojos por los registros de veinte años a esta parte, senalle e saque los proveimientos más esenciales d'ellos y los traslade en un quaderno, y adelante baya continuando lo mismo en el dicho quaderno, el qual traiga consigo a las Juntas juntamente con la dicha recopilación*)¹¹⁶.

1593ko udaberriko Batzarrean agiriak agiritegitik ateratzearen gaia berriro planteatu zen, baita Zaldibiak bildutako dokumentuak eta pribilegioak Elka-

¹¹⁶ Azkoitiko Batzar Nagusia, 1592-XI-20 [Arrasateko udal agiritegia. Batzarrek. 3. kutxa. 7. or. atze.]. Beste ohar batean, ondokoa agindu zen: *Que de dos anos baian metiendo en el archivo las executorias, provisiones y demandas e recaudos que esta Provincia fuere goardando y aciendo de nuevo ymbien al poder del escrivano fiel sin que más se trate y olvide. Y que para ello se baya proseguendo ymbentario nuevo a la forma y traça del que agora se a echo, de manera que cada cossa se ponga en su propio lugar, según que en el dicho capítulo se contiene. Y que lo esencial de todo ello se baya trasladando y anadiendo a la dicha recopilación.* (Lehenengo kapituluak zioen bezala.)

Halaber, 1463ko Koadernoko 307 ordenantzen bi kopia egiteko agindu zen: *Que son las más antiguas y se ban rompiendo y cessando la letra, [se saquen dos trasladados] de buena letra lexible e, sinados, el uno se ponga en el archivo con su oreginal y el otro se quede con la recopilación em poder del escrivano fiel.* [Nuntzioek eta Diputatuak] *den por escrito su descargo respondiendo a cada capítulo de sus ynstruciones, según que antiguamente se solía azer, y el escrivano fiel que tenga cossido para poner todo junto en el archivo, cada cossa en su lugar.* [Eskribau berak] *aga quaderno cossido de todas las ynstruciones y lo negociado en su cumplimiento, de lo de dos anos en uno, uno de los poderes, otro de las fiancas y otro de cartas escriptas y rescevidas de Junta en Junta, para que todo se alle junto e como e que con más facilidad [esté en el] archivo cada cossa en su lugar, y asiente en las espaldas de cada petición que con recaudos o sin ellos se presentaren en las Juntas su presentación y proveimiento, y lo firme y cosa con las peticiones que con los recaudos se presentaren. Y dexe el despacho y llegajo de la Junta retulado encima d'ella, de forma que con facilidad se alle lo que d'ello se quisiere buscar.*

Oro har, probintziarentzat garrantzitsuak ziren hainbat agiri bilatzeko eta haien kopia baimenduak ateratzeko agindu zen (hala nola, esportazioen alkatetzaren agiria, galtzada, zubi eta pontoien alkatetzarena edo Juarez de Toledo doktore bisitariak Gortera eramane zituen 1559-1569ko Batzarretako aktak), eta eskribau leialak azken hogei urteetako aktei begirada bat emateko: *Pase los ojos por los registros de veinte años a esta parte, senalle e saque los proveimientos más esenciales d'ellos y los traslade en un quaderno, y adelante baya continuando lo mismo en el dicho quaderno, el qual traiga consigo a las Juntas juntamente con la dicha recopilación* [22. or. aurre.]. Martin Elkanori 60 dukat ordaintzeko agindu zen, memorialagatik eta bere txostena ematera bertaratzeagatik.

noren inbentarioarekin erkatzearen gaia ere, honek jasotako mandatua luze baitzihuan eta Zaldibia batxilerraren liburuan agertzen ez ziren zenbait dokumentu garrantzitsuren memoriala egin beharra zegoen (*de los que son sustanciales y no estubieren en el dicho libro del dicho Bachiller ni en los sueltos*), Tapia eskribauak kopia baimenduak atera zitzaizkion (*e los anada e junte con el libro del dicho Caldivia, y los traiga consigo para que los que huvieren menester se aprovechen d'ellos sin sacar los oreginales del dicho archivo, por el daño que de traerlas fuera d'él redundo, porque se pierden y se rompen*)¹¹⁷.

Baina Elkanok bere mandatua betetzen ez zuenez, Mutrikuko 1594ko azaroako Batzarrak Zarautz doktorearen esku utzi zuen lana, Tolosako diputatuarekin eta eskribauarekin batera¹¹⁸.

¹¹⁷ Zumaiaiko Batzar Nagusia, 1593-V-4. Batzarrean erabaki zenez, agiritegitik jatorrizko agiri batzuk (*algunos recaudos oreginales del archivo*) ateratzeko beharra izanez gero, alkateak, diputatuak eta eskribau leialak (*en cuyo poder están las llaves del dicho archivo*) ondoko arauak bete beharko dituzte: *Goarden e cumplan la horden que está puesta en un papel o tabla dentro en el archivo para que quando entraren en ella los vean e cumplan. E que tanvién tenga el escrivano fiel un libro, además de otros dos que an de estar en el mismo caxón donde el inventario estuviere, para lo contenido de suso. Y en el dicho libro se asiente la misma razón que en el que a de estar en el dicho archivo de lo que se sacare d'él e volviere a él. El qual libro el escrivano fiel lo traiga consigo a las Juntas Generales y en cada una d'ellas, quando llegaren en el dicho registro a este capítulo, se le tome cuenta de lo que entre Junta y Junta se huviese sacado e vuelto del archivo y a él, para que, si algo faltare por volver, se buelva e no se olvide* [AGG-GAO JD AM 19,1; 7. or. atze.].

Egun berean, Martin Elkanori paperak erkatzeko emandako mandatuari buruz honakoa erabaki zen: [*Cotejar*] *el ynventario que a fecho de los papeles e privilegios del dicho archivo con los que tiene Joan López de Tapia en el libro del Bachiller Caldivia e otros sueltos, para que, de los que son sustanciales y no estubieren en el dicho libro del dicho Bachiller ni en los sueltos, aga un memorial d'ellos para que el dicho Joan López de Tapia aga sacar traslados autorizados d'ellos e los anada e junte con el libro del dicho Caldivia, y los traiga consigo para que los que huvieren menester se aprovechen d'ellos sin sacar los oreginales del dicho archivo, por el daño que de traerlas fuera d'él redundo, porque se pierden y se rompen. E porque esto no se a fecho, se ordenó que se buelva a encomendar lo suso dicho al dicho Martín de Elcano para que lo mande hansí hazer e cumplir. Eta Diputatuari kopiak (el traslado sacado de las hordenanças viejas) agiritegian jarri arazteko agindu zitzaion: haziéndolas autorizar ante el señor Corregidor, juntamente con sus originales. Y haviéndolo corregido se saque del dicho traslado otro para traer el escrivano fiel consigo, juntamente con los demás papeles que trae de las Juntas* [Ibidem, 10. or. aurre.-atze.]. Maiatzaren 7an Gipuzkoako ordenantzen bildumaren kopia bat egin zezala agindu zitzaion eskribau leialari, eta Diputatuak Gorteko Agenteari (*que lo a pedido*) bidal ziezaiola [Ibidem, 22. or. atze.].

¹¹⁸ Mutrikuko Batzar Nagusia, 1594-XI-18. Martin Elkanori emandako mandatuari buruz hitz egin zen: [*Para que*] *cotexe el ynventario que ha hecho de los papeles del dicho archivo con los que tiene el escrivano fiel en el libro del Bachiller Caldivia y otros sueltos, para que los que fueren esenciales y no estubieren sacados aga sacar traslados autorizados y los anada y junte con el libro del dicho Bachiller Caldivia, y el dicho escrivano fiel los trayga consigo con el libro y se aprovechen los que los hubieren menester, para que d'esta forma se escuse de sacar del archivo los privilegios y ordenanças y otros papeles de que hubieren necesidad y no se pierdan. Batzarrak honakoa agindu zuen: Zarautz doktoreak, Tolosako diputatuak eta eskribau leialak, mandatu hura bete zezatela (y se tome razón de los que d'ellos*

Hurrengo urteetan Probintziaren ardura nagusia Zaldibiaren bilduma eguneratuta mantentzea izan zen, eta zenbait Batzarretan Elkanori honako agindua eman zioten: *[Que] aga un libro grande de papel blanco donde se traslascen las cédulas y provisiones que huviere después de la recopilación del libro del Bachiller Çaldibia*¹¹⁹.

Baina 1601. urtearen bukaeran ordenantzen erreformari buruz (*reformaçión de las hordenanças de la dicha Provincia y otras provisiones reales*) hitz egiten hasi ziren. Hala, azaroaren 16an, Azkoitiko Batzarrak batzorde bat izendatu zuen. Korrejidoreak, soldatapeko abokatuek, Juan Lopez de Ondarrak, Domingo de Iriartek eta Martin Elkanok osatutako batzorde honen eginkizuna erreformatu beharreko ordenantzen zerrenda (*en qué cassos*) lehenbailehen egitea zen, emaitza Azpeitiko Diputaziora eramateko¹²⁰.

Dirudien ez zuten beren mandatua bete, Azpeitira ez baitzuten emaitzarik eraman eta, 1602ko apirilaren 22an Zumaiako Batzarrak, batzordeko kideei, berriro lanari ekin ziezaiotela eta maiatzaren 10ean korrejidorea bere Audientziarekin bizi zen hiribildura bertaratu zitezela agindu zien¹²¹.

estubieren rotas y hubiere nescesidad de sacar de nuebo), eta Diputazioari edo lehenengo Batzarrari, abokatuari ondoen iruditzen zitzaion bezala, guztia berri eman ziezaiotela [AGG-GAO JD AM 20,2; 55. or. aurre-atze.].

¹¹⁹ Zarauzko Batzar Nagusia, 1600-XI-16. Eskribauari honako agindua eman zitzaion: *Recoja e junte todas las cédulas y cartas reales y otros recados que huviere tocantes a esta Provincia después que se hizo el inventario del archivo d'ella. Y que se suplica al señor Corregidor mande dar traslado autoriçado de las que Su Merçed tuviere tocantes a la dicha Provinçia embiadas por Su Magestad e sus Conssejos, para que todo ello se ponga en el archivo y en el inbentario en el puesto que se deve*. Horrez gain, liburu bat egiteko agindu zen: *Que se aga un libro grande de papel blanco donde se traslascen las cédulas y provisiones que huviere después de la recopilación del libro del Bachiller Çaldibia*. Lan hori Martin Elkanori agindu zitzaion, eta lehendabizi inbentarioa egin zuen (*que primero hizo el inbentario del dicho archivo*) [AGG-GAO JD AM 26,4; 16. or. aurre.].

Ordiziako Batzar Nagusia, 1601-V-16. Martin Elkanori honako agindua eman zitzaion: *[Que] aga un libro grande de papel en blanco donde se traslascen las cédulas y provisiones que huviere después de la recopilación del libro del Bachiller Caldivia* [AGG-GAO JD AM 27,1; 25. or. atze.].

¹²⁰ Azkoitiko Batzar Nagusia, 1601-XI-16: *Para la reformaçión de las hordenanças de la dicha Provincia y otras provisiones reales*, korrejidoreak, soldatapeko abokatuek, Martin Elkanok, Juan Lopez de Ondarrak, Domingo Iriartek eta eskribau leialak erreformatu beharreko ordenantzen zerrenda egin zezaten erabaki zen: *las bean y saquen una resulta de las que tuvieren que reformar y en qué cassos, y con su relación, acavada la dicha reformaçión, la lleven a villa e Diputado para que allí se provea lo que más combenga. Lo qual se haga luego con toda brevedad de forma que se acave durante la tanda de la dicha villa de Azpeitia* [AGG-GAO JD AM 27,3; 7. or. atze.].

¹²¹ Zumaiako Batzar Nagusia, 1602-IV-22. Batzarrak Azkoitiko Batzarrean 1601-XI-16an erabakitakoa gauzatzeko agindu zuen: *En todo e por todo, como en él se contiene. Y que las personas nombradas para el dicho efeto se junten en la villa donde el señor Corregidor residiere con su Audiencia*, el 10 de mayo, *so pena que la Diputaçión pueda ymbiar e ynbié un alcalde de la Hermandad por ellos a su costa* [AGG-GAO DJ AM 28,2; 6. or. aurre.].

Handik gutxira, ordenantzak erreformatzeko ardura hori bilduma bera erreformatzeko ardura bihurtu zen. Izan ere, Mutrikuko 1603ko Batzarrak ondoko gogoeta egin zuen: *En el libro de la recopilación de las dichas hordenanças ay muchos capítulos inpertinentes y que en la hera presente no ay necesidad ni combiene que anden en el dicho libro*. Hala, Batzarreko zenbait prokuradore izendatu zituen aipatutako bilduma presidentearekin batera azter zezaten (*recorran y bean la dicha recopilación y los dichos capítulos*) eta desegokiak (*ympertinentes*) ziren ordenantzak seinala zitzaten, gero Batzarrera eramán eta erabaki egokiena hartzeko (*se revean y se provea sobre ello lo que más combenga*)¹²².

Ez dugu azterketa horren emaitza ezagutzen, eta ez dakigu Batzarrak agindutakoa bete zen ala ez, baina hurrengo urteetan hainbat Batzarretan errepi-katu zen ordenantzen bilduma bat egiteko beharra: *Las ordenanças confirmadas que se huvieren fecho después que se hizo la Recopillación d'ellas, se asiente y ponga la razón en el libro de la Recopillación, cada cossa en su lugar, y en el inbentario la razón de todo ello, y en qué letra y caxón y número se ponen*¹²³.

Agiritegia, beraz, antolatuta gelditu zen, ez ordea bilduma. Horregatik, 1626an Gipuzkoako soldatapeko abokatuek (Torre Arizmendi doktorea eta Portu lizentziaduna) bilduma bat edukitzearen beharra adierazi zioten Probintziari (*porque quando se pediere la confirmación es sin duda que querrán ver lo que es y lo que an de conçeder*).

Izan ere, ahaide nagusien matxinadaren (*rebelión*) ondorioz (haiek Villabonan ezkutuan bildu baitziren, beren lurak Ermandadearen eskumenetik salbuetsi nahi zituztelako, bere eskumenetik kanpo zeudela irizten baitzuten) eta xede horrekin Gortean jarri zuten auziaren ondorioz, Francisco Berastegi jaunak –bere etxeko jauna– sustatuta, Probintziak, bere zuzenbidearen defentsan, artean berretsi gabe zeuden ordenantzak berresteko beharra ikusi zuen, ahaide nagusiek fiskalari Gipuzkoan indarrean zeuden legeak erreformatzeko beharra iradokiko ote zioten beldur zelako.

Urte askoan ordenantzak biltzearen beharrari buruz eta ordenantzen errege-berrespena lortzearen garrantziari buruz hitz egin zuten; izan ere, ordenantzek berrespena ez ezik, usadioa ere bai baitzeukaten (*además de estar confirmadas (de forma individual) por los reyes, lo están por la costumbre, que tiene fuerza de privilegio rodado, y con eso se gobierna V.S^a con muy grande quietud y paz en todo su cuerpo*). Beldur ziren, antza denez, koadernotik ordenantzak kenduko ote zituzten (*se quiten del cuaderno las ordenanzas que son tan rigurosas para ellos*)¹⁵². Probintziak bere eskumena Gipuzkoa osoan gailentasunez gauzatzeko eskubidea bermatzeko bide bakarra ordenantzak berrestea zen. Eta bere abokatuek ondo zekiten hori. Horregatik, berretsi beharreko ordenantzak (*las hordenanzas y leies y lo demás que pretende que S.M. confirme*) har zitzala eta Azpeitiko Diputaziora eraman zitzala agindu zioten Juan Lopez de Arteagari¹⁵³, eta Martin Perez de Zubiaurreri eta Juan Lopez de Ondarrari ordenantza horiek biltzeko mandatua eman zieten.

aurreko Batzarreko dekretua berretsi zen, Donostia hiribilduak Arteaga lizentziadunari –artxibozaina– paperak eman ziezazkion: *Todos los papeles que tubiere en su archivo tocantes a la dicha Provincia, para poner por ynbentario en el archivo d'ella* [Ibidem, 47,2; 19. or. aurre.]. Gauza bera berretsi zen 1627-IV-20ko Zestoako Batzar Nagusian [Ibidem, 48,1; 12. or. atze.], eta 1628-IV-27ko Segurakoan [Ibidem, 48,3; 8. or. atze.].

¹⁵² AGG-GAO JD IM 1/6/19 (1624).

¹⁵³ Azpeitiko Diputazioa, 1626-III-3. Francisco Berastegirekin zegoen auziari buruz, Gipuzkoako abokatuek –Torre Arizmendi doktorea eta Portu lizentziaduna– emandako iritzian honakoa irakur daiteke: *Para su lugar y tiempo será bien tener echa una recopilación de todas las hordenanzas y leies porque quando se pediere la confirmación es sin duda que querrán ver lo que es y lo que an de conçeder*. Hala, Juan Lopez de Arteaga lizentziadunari –bere artxibozaina eta Tolosako diputatua– dei ziezaiola eta berretsi beharreko ordenantzak (*las hordenanzas y leies y lo demás que pretende que S.M. confirme*) Batzarrean eraman zitzala [AGG-GAO JD AM 46,1; 132. or. aurre.-atze.].

Arteagak zerrenda bat prestatu zuen (*una relación estendida de muchas cosas ymportantísimas que se deben poner en la recopilación de las ordenanças de Guipúzcoa*), eta mandatariei beren lanarekin jarraitzeko eskatu zitzaizen; ordenantzen bilduma osatzen, alegia (*[pusiesen] la recopilación de todas las dichas ordenanças como cossa de tanta ymportançia*). Guztia ere, korrejidorearekin eta Martin Idiakez Isasi jaunarekin harremanean¹⁵⁴.

Baina, ez Zubiaurrek ez Ondarrak, ez zuten eskatutako bilduma osatu. Artxibozainak berak, Arteaga lizentziadunak, bukatu behar izan zuen, eta Hernaniko 1634ko Batzarrean aurkeztu zuen. Batzarrak bilduma aztertzeko mandatua eman zien Martin Idiakez Isasi jaunari, Juan Lapatza jaunari (biak Santiagoko zaldunak), eta Martin Perez de Eleizalderi (Tolosa). Azken horiek azalpenak eman zituzten: *[Dieron cuenta] de haver visto esta hobra y lo alegado y çitado en las materias, trabajando en sus concordancias y platicando diversas veçes sobre ello*. Hala, Arteagaren lana goraipatu zuten: *Que con particular trabajo y estudio de quanto ay escrito en los papeles de S. S^a con tal prontitud y felicidad a dispuesto esta obra de tanta conssideración*.

Hortaz, Batzarrak, bilduma inprimatzeko Arteagari agindu zion, eta Pro-bintzia irudiak (*las dos láminas de las armas y mapa de Guipúzcoa para que queden en su archivo*) egitekotan gelditu zen. Eta Gorteko nuntzioarekin harremanetan jartzeko eskatu zion:

*Para la confirmación de algunas hordenanças que no estuvieren, enbiando memorial ajustado de ellas y de las que están confirmadas y neçessitan de nueva confirmación, haçiendo así mismo declaración de las que se fundan en privilegios y executorias, porque d'éstas no se a de pedir confirmación sino tan solamente exsivir los títulos e ynstrumentos en que se fundan, para que d'esta manera se facilite la liçençia que se a de pedir en el Consejo de SM para la ympression de todo el Quaderno que está hordenado*¹⁵⁵.

¹⁵⁴ Mutrikuko Batzar Nagusia, 1632-XI-23: Martin Perez de Zubiaurrek eta Juan Lopez de Ondarrak Batzarrean azalpenak eman zituzten, Bergarako Batzar Nagusian agindu zitzaizenari buruz. Adierazi zuten, Juan Lopez de Arteagak –agiritegiko arduraduna– zerrenda bat prestatu zuen (*una relación estendida de muchas cosas ymportantísimas que se deben poner en la recopilación de las ordenanças de Guipúzcoa*, y que a traydo a esta villa para que S.^a mande ber y ordenar lo que más conbenga). Batzarrak honakoa agindu zuen: *Que los dichos nombrados continúen la obra y pongan la recopilación de todas las dichas ordenanças como cossa de tanta ymportançia, comunicando todo lo neçesario* [Luis de Castilla korrejidore jaunari], *que con tanto çelo encamina las cossas que tocan a Guipúzcoa*, eta Martin Idiakez Isasiri. Eta Tolosan egitekoa zen hurrengo Batzar Nagusirako lana eramateko (*lleven la obra que hizieren, puesta en forma, para que en ella se bea*). Halaber, erabaki hau hartu zuten: hiribilduek kopiak (*copia de los apuntamientos que an echo y de lo que adelante fueren trabajando*) eskatuko balituzte, Arteaga lizentziadunak eman ziezazkiela, hiribilduen kontura [AGG-GAO JD AM 51.5; 29. or. aurre.-atze.].

¹⁵⁵ Hernaniko Batzar Nagusia, 1634-XI-17: Martin Idiakez Isasi jaunak eta Juan Lapatza jaunak –biak Santiagoko zaldunak– eta Martin Perez de Eleizaldek (Tolosa), *que tratan de la recopilación de*

Antza denez, hain irrikatua zen berrespina lortzeko oztoporen bat sortu zen, 1635ean artean erregeari –honek eskatutako diruaren truke– berrespina eskatzeari buruz hitz egiten baitzen: *Confirmación de sus hordenanças y liçençia para su ynpresión en el modo que están recopiladas y dispuestas por horden de V.S^a en poder del liçençado Juan López de Arteaga*¹⁵⁶. Izan ere, 1638an, lizentziadunari berriro agindu zioten ordenantzen bilduma osatzen jarraitzeko, korrejidorearekin harremanean: *[Prosiguiese] en la recopilación que de nuevo se trata de hazer de las hordenanzas [de la Provincia] asta la confirmación*¹⁵⁷.

Hala ere, Probintziak ezin izan zuen, oraingoan ere, foru-bilduma osatu. Donostiako Diputazioak bere artxibozain leial, Tolosako alkate eta Probintziako diputatu zena 1641ko urriaren 2an zendu zela jakinarazi zuen, eta bere etxean zeuzkan agiritegiko paperak jasotzeko agindu zuen.

las hordenanças de S.S^a que a dispuesto y conçertado el liçençado Joan López de Arteaga –hiribulduko alkatea eta artxibozaina–, *dan quenta de haver visto esta hobra y lo alegado y çitado en las materias trabajando en sus concordancias y platicando diversas vezes sobre ello, que se remiten en todo al dicho liçençado Arteaga, que con particular trabajo y estudio de quanto ay escrito en los papeles de S.S^a con tal prontitud y felicidad a dispuesto esta obra de tanta conssideración*. Batzarrak bilduma inprimatzeko agindua eman zion Arteagari: *Se consiga la ynpresión de las dichas hordenanças como está acordado en las Juntas passadas, por quenta del dicho liçençado Arteaga y a su costa, haçiéndose por la de S.S^a las dos láminas de las armas y mapa de Guipúzcoa para que queden en su archivo*. Kostuei aurre egiteko 100 dukat ordainduko zitzaizkiola erabaki zuen, eta Arteagak gastuen banakatzea Batzarrera eramane beharko zuela. Batzarrak honakoa agindu zion: *Cuide de correspondersse con el nunçio de S.S^a en Madrid para la confirmación de algunas hordenanças que no estuvieren, enbiando memorial ajustado de ellas y de las que están confirmadas y neçessitan de nueva confirmación, haçiendo así mismo declaración de las que se fundan en privilegios y executorias, porque d'estas no se a de pedir confirmación sino tan solamente exsivir los títulos e ynstrumentos en que se fundan, para que d'esta manera se facilite la liçençia que se a de pedir en el Consejo de SM para la ympresión de todo el Quaderno que está hordenado*. Gorteko nuntzioari zuzemen honen berri ematea erabaki zen, eta Arteaga korrejidorearekin harremanetan jar zedila (*para ajustar lo referido como conviene*) [AGG-GAO JD AM 52,5; 15. or. aurre.].

¹⁵⁶ Elgoibarko Batzar Nagusia, 1635-IV-30. Bergara hiribilduak honako proposamena aurkeztu zuen: Erregeak eskatutako 20.000 dukatak ematen baziren, eta horren truke saria eskatzeko aukera balego, ordenantzen berrespina eska zedila (*[se pida] confirmación de sus hordenanças y liçençia para su ynpresión en el modo que están recopiladas y dispuestas por horden de V.S^a en poder del liçençado Juan López de Arteaga, atendiendo que por todos los donativos passados no a pedido ni conseguido V.S^a ninguna merçed particular*). Batzarrak ez zuen proposamena aintzat hartu [AGG-GAO JD AM 53,1; 26. or. aurre.].

¹⁵⁷ Azpeitiko Batzar Nagusia, 1638-X-26: Debak hala proposatuta, Batzarrak honakoa agindu zion Juan Lopez de Arteagari: *Que a entendido, a una con otros caballeros nombrados, en la recopilación que de nuevo se trata de hazer de las hordenanzas que tiene S.S^a, comunique lo que en esta razón tiene trabajado con el señor Don Juan Chacón (Corregidor) y, conformándose con lo que a Su Merçed pareçiere, prosiga adelante en las diligencias asta la confirmación. Y que para esto se le remita a Su Merçed un traslado de dicha recopilación, y quando con su vista diere aviso al dicho Don Juan López, acuda a la comferençia y no en el ynterin, por que se evite la costa que pueda aver, a lo menos sea la menor que ser pueda* [AGG-GAO JD AM 55,1; 35. or. atze.].

Juan Perez de Egurtzak –Batzarretako idazkari leiala– jaso zituen eta, giltzekin batera, agiritegian utzi zituen¹⁵⁸. Azaroaren 15ean Mutrikuko Batzarrak artxibozain berria izendatu zuen, eta postua Francisco Amezketari (Tolosako herritar eta eskribau osoa) egokitu zitzaion, zeren *conbiene dar a este ofiçio dueño que corresponda a las obligaciones d'él*, eta Pedro Aranbururi eta Martin Perez de Zirartegiri agiritegiko paperak 1622an (Arteaga artxibozain izendatu zutenean) eta 1629an egin ziren inbentario zaharrekin erkatzeko mandatua eman zieten, paperak artxibozain berriari emateko helburuz (*con quenta y raçón e ynventario echo ante escribano público*)¹⁵⁹.

¹⁵⁸ Donostiako Diputazioa, 1641-X-18. Juan Perez de Egurtzak –Batzarretako idazkari leiala– paperak jasotzeko (*yr a Tolossa y recojer y poner en cobro los papeles del archivo d'esta Provincia*) eman zioten aginduari buruzko azalpenak eman zituen. Horretan Aialdeburu lizentziadunari –alkatea– eta Martin Perez de Eleizalderi –Diputatua– lagundu ziela esan zuen. Honakoa adierazi zuen: [*Dice*] *haber recojido en cassa de Don Juan López de Arteaga, [archivero] difunto, todos los papeles que hallamos conçernientes al dicho archivo y puéstolos en él por ynventario, quenta y raçón, y tomado seis llaves con que se çierran y abren dos puertas por donde se entra al dicho archivo, dos de las dichas llaves el dicho alcalde, otras dos el dicho Diputado General y otras dos yo el dicho escrivano, conforme a la horden que me dió la Diputación* [AGG-GAO JD AM 57,1; 12. or. aurre.-atze.]

¹⁵⁹ Mutrikuko Batzar Nagusia, 1641-XI-15: Juan Lopez de Arteaga jaunaren heriotzaren ondoren (*archibista, a cuió cargo y encomienda estava el archivo de papeles d'esta Probinçia*) artxibozain berria izendatu behar zenez, zeren *conbiene dar a este ofiçio dueño que corresponda a las obligaciones d'él*, Batzarrak artxibozain berria izendatu zuen eta postua Francisco Amezketari (Tolosako herritar eta eskribau osoa) egokitu zitzaion [AGG-GAO JD AM 57,1; 4. or. atze.]

Azaroaren 15ean bertan izendatu zituzten Pedro Aranburu kapitaina eta Martin Perez de Zirartegi, aita: *para que bean y reconozcan los papeles del dicho archibo con los ynventarios biejos, y el que se hiço al tiempo que se entregó el dicho archibo al dicho Don Juan López de Arteaga, y en particular el que se hiço el año de 1629. Y si faltaren algunos papeles, así de los que constare por los dichos ynventarios haverse entregado al dicho Don Juan López de Arteaga, como los que después se le entregaron, se aga cargo d'ellos a sus herederos para que den la satisfacción neçesaria. Y después de haverse echo esta diligencia se entreguen los papeles del dicho archibo al dicho Françisco de Amezqueta, con quenta y raçón e ynventario echo ante escribano público, en cuió poder a de quedar por registro, y un tanto en el dicho archibo y otro en poder de mí el secretario. Y así bien se entreguen las llaves del dicho archibo (por iguales partes) al alcalde de la dicha villa de Tolossa y al Diputado General d'esta Probinçia en ella, que agora son y adelante fueren, y al dicho Francisco de Amezqueta, archibista. El qual se obligue de dar quenta y raçón con satisfacción de los papeles del dicho archibo y cada uno d'ellos, pena de pagar todos los daños que de faltar alguno o algunos de los dichos papeles resultaren a la Provincia. Y para ello dé fiança bastante ante el alcalde de la dicha villa de Tolossa. Y que el dicho archivista y los demás en cuió poder an de estar las llaves del dicho archibo no puedan sacar ni saquen d'él papel alguno sin expressa horden de la Probinçia en Junta o Diputación. Y de los papeles que (con la dicha horden) se sacaren del dicho archibo, el dicho archivista asiente y aga asentar y firmar a las partes a quien se entregaren los conoçimientos en el libro d'ellos, y los borre quando se bolvieren los dichos papeles al dicho archibo. Y en esto tenga muy particular cuidado y puntualidad, como en todo lo demás que tocara al buen gobierno, custodia y disposición del dicho archibo. Con expressa calidad y condiçión que todas las beçes que se ofreçiere ocasión de compulsar y sacar alguno o algunos tantos de qualesquier papeles del dicho archibo, ora sea para causas de la misma Probinçia hora para las de otros particulares, los aya de firmar, signar y autoriçar yo el secretario (por tocar esto a mi ofiçio) y que no lo pueda haçer el*

Aurrerantzean, Probintziaren kezka premiazkoena agiritegiaren inbentarioa eguneratzera¹⁶⁰ eta dokumentazioa osatzera bideratu zen, eta 1642an Nuntzio Apostolikoaren «paulina» bat lortu zuen (*para que parezcan los papeles que faltan del archivo*)¹⁶¹.

Zirartegik bi urte baino gehiago eman zituen inbentario berria egiten¹⁶², eta azaroaren 23an Hernaniko Batzarrean eman zuen (*en su debida perfección*).

dicho Francisco de Amezueta, archibista (como escribano que es) ni otro escribano alguno, so pena de nulidad y de que, en caso contrario, se proveerá lo que conviniere [Ibidem, 5. or. aurre.-atze.].

¹⁶⁰ Baina kezka hori 1640tik zetorren. Izan ere, 1640-XI-7ko Segurako Batzar Nagusiak Juan Mz. de Bengoetxea –Tolosako Diputatua– eta Mateo Jauregi –Azpeitiko prokuradorea– izendatu zituen: *Para que vean el ynbentario viejo y el que se hizo de los papeles del archivo d'esta Provincia al tiempo y quando se entregaron a Don Juan López de Arteaga, a cuyo cargo a estado y está el dicho archivo, y, ajustándolo todo, hagan nuevo ynbentario de los papeles que se hallaren en el dicho archivo. E echo esto se entreguen las tres llaves d'él: uno al Diputado General d'esta dicha Provincia en la dicha villa de Tolossa, otra al alcalde hordinario d'ella, y otra al archivero del dicho archivo, para que todas las veces que se ofrescieren ocassiones de neçessidad de alguno o algunos de los dichos papeles concurran en sacarlos todos tres nonbrados, y las veces que avisare el archivero a los demás de la tal ocassión y neçessidad sean obligados a concurrir con él sin dilación alguna. Y en quanto a los papeles que faltan del dicho archivo, se guarde y cunpla el decreto echo en esta razón. Y los unos y los otros den quenta de lo que se les encarga para la primera Junta General* [AGG-GAO JD AM 56,9; 77. or. aurre.-atze.]. Eta 1641eko apiriliko Bergarako Batzar Nagusiak (72. kap.) honako agindua eman zion Diputatuari: Bengoetxeari eta Jauregiri beren mandatua betetzeko gogorazaz ziezaiela, hau da: *Haçer ynbentario nuevo de los papeles del archivo d'esta Provincia y la forma nueva de tener y guardar sus llaves* [AGG-GAO JD DJ 95,1; 10. or. aurre.].

¹⁶¹ Mutrikuko Batzar Nagusia, 1641-XI-17. Egun berean, 17an, agiritegian falta ziren paperak berreskuratzen saia zedila eskatu zioten Francisco Amezketari (*recobrar y recojer los papeles originales tocantes a esta Provincia que faltan de su archibo*), eta, horretarako Juan Gorostidiri –Gorteko nuntzio– idatz ziezaiola. Gorostidik Espainiako Nuntzio Apostolikoaren «paulina» bat lortu zuen 1642an (*para que parezcan los papeles que faltan del archivo*) [AGG-GAO JD AM 57,1; 50. or. atze.].

¹⁶² Tolosako Batzar Nagusia, 1642-IV-28. Batzarrak honakoa agindu zuen: Pedro Aranburu kapitainak eta Martin Perez de Zirartegik landutakoa (*está trabajado y dispuesto en horden a conponer y ynbentariar los papeles del archibo d'esta Provincia*) Domingo Kortaberriari eta Pedro Saloguen kapitainari jakinarazteko, iritzia eman zezaten, komenigarriena erabakitzeko [AGG-GAO JD AM 57,3; 4. or. aurre.].

Maiatzaren 2an Kortaberriak eta Saloguenek probintziaren paperen agiritegia (*y de lo que en su reconocimiento y ynbentario viene trabajado Martín Pérez de Cirartegui*) ikusi zutela adierazi zuten. Batzarrak Zirartegiri bere lanarekin jarraitzeko agindu zion, baina Batzarra amaitu ondorengo 50 egunetan buka zezala, eta lan horregatik eta lanean eman zituen beste 50 egunengatik 50.000 marabedi igorriko zizkiola, erdia Tolosako Batzarrean eta beste erdia Arrasatekoan, non inbentarioa amaiturik eman behar zuen. Horrez gain, Arteagaren –hildako artxibozaina– oinordekoei agiritegitik falta ziren paperak eskatzea erabaki zen [Ibidem, 13. or. atze.-14. or. aurre.].

Arrasateko Batzar Nagusia, 1642-XI-22: Zirartegik Probintziako agiritegian egin zuen lanaren berri eman zuen (*en conponen y ynbentariar los papeles del archivo*), eta inbentarioa garbira pasatzea bakarrik falta zitzaioela esan zuen (*sólo le resta sacar en linpio el ynbentario, que lleva mucha máquina de escriptura*). Zirartegik bere lana ikusteko (*[su] gran trabajo*) eskatu zion Batzarrari, eta merezi zuen begirunea izan zezala. Batzarrak honakoa agindu zion: bi hilabeteko epean buka zezala lana (*acave de*

Batzarrean Pedro Aranburu eta Francisco Amezketa izendatu zituzten inbentarioa eratzeko¹⁶³.

Erkaketa egin ondoren, 1647an Azpeitiko Batzarrak berriro ekin zion bil-dumaren gaiari. Eta Arteagak egindakotik abiatuta, berriro Aranburu eta Amezketa izendatu zituen, hauek nahi zuten abokatua izendatuta eta eskribau leiala-rekin, koadernoazter zezaten (*[viesen] el dicho quaderno con todo cuidado*), hutsik gabe jar zezaten (*[lo pusiesen] en perfección, quitando lo que pareciere superfluo y anadiendo todo lo que conviniera*) eta Gorteko agenteari kopia bat bidal diezaioten, koadernoaren berrespena eskatzeko¹⁶⁴.

poner todo el trabajo referido en su debida perfección) eta Francisco Amezketari –agiritegiaren arduraduna– eman diezaiola, Pedro Aranburu kapitainak, Martin Perez de Eleizalde eta Antonio Ugartek ikus zezaten, azken horiek beren txostena egin eta komenigarriena erabakitzeke [AGG-GAO JD AM 57,3; 80. or. aurre.-atze.].

Donostiako Batzar Nagusia, 1643-IV-23. Zirartegiri hots egiteko agindu zuten, Batzarrera bertaratu zedin azalpenak ematera (*del estado en que tiene lo que se le encargó en horden a componer y ynventariar los papeles del archivo*) [AGG-GAO JD AM 58,1; 14. or. aurre.]. Apirilaren 28an, Batzarraren azken egunean alegia, Zirartegik inbentarioaren egoeraren berri eman zuen (*y de no haverlo podido acavar asta ahora por el mucho trabajo y larga escriptura que tiene*), eta lehenbailehen bukatuko zuela hitzeman zuen. Gainera, lana bukatzeko, Arteagaren oinordekoen eskuetan eta Batzarretako eskribau leialeren eskuetan zeuden paperak eman diezazkieten eskatu zuen. Hernaniko Batzarrerako lana bukatzeko (*en toda perfección y lo muestre y entregue allí*) agindu zion Batzarrak, eta eskatzen zituen paperak aurrez emango zitzaizkiola. Eta bere lan mardula kontuan hartuta beste 25.000 marabedi igorri zitzaizkion, baina baldintza batekin: lana ez bazuen eskatzen zitzaion bezala ematen, Probintziarentzat geldituko zirela [Ibidem, 23. or. atze.].

¹⁶³ Hernaniko Batzar Nagusia, 1643-XI-17: Francisco Amezketari agiritegitik falta ziren paperak, berreskuratu zituenez gain, bilatzen jarraitzeko agindu zitzaion: *Continúe sus diligencias en rastrear y recoger los demás papeles que faltan del dicho archivo, usando de la paulina que tiene sacada para este efecto* [AGG-GAO JD AM 58,1; 65. or. atze.]. Azaroaren 18an, Zirartegik egindako inbentarioa Pedro Aranburuk (diputatua) eta Francisco Amezketak (artxibozaina) azter zezatela erabaki zen, eta, guztiak ere aztertu ostean (*cotejado el dicho inventario con los dichos papeles y mirado con atención su disposición, den quenta de lo que sentieren a la Diputación*), bere lana egokiro egin zuela ziurtatu ondoren, Zirartegiri agindu zitzaizkion 25.000 marabediak emateko [Ibidem, 70. or. aurre.]. Azaroaren 23an Zirartegik honakoa adierazi zuen: *[Dijo haber] trabajado en la disposición del ynventario de papeles del archivo d'esta Provincia y tenerlo ya acabado en perfección, de manera que no le falta más de el cotejo con los papeles conçernientes*. Eta Aranburu eta Amezketa erkaketa hori egiteko izendatu zituztela. Eta Batzarrari honakoa erregutu zion: Bere lana haintzat hartzeko eska diezaiela Aranbururi eta Amezketari (*tengan atención a lo mucho que ha trabajado en esta obra, perdiendo grandes aprovechamientos que podría haver tenido en su ofiçio de escrivano, y ynformen d'ello a la Provincia para que se le dé la satisfacción que mereçe y se dispusiere por ella*). Batzarrak hala erabaki zuen, beren txostena hurrengo Batzarrera bidal zezaten aginduz [Ibidem, 90 bis or. aurre.].

¹⁶⁴ Azpeitiko Batzar Nagusia, 1647-V-11. Batzarrak honakoa adierazi zuen: *En diferentes ocasiones se ha tratado y conferido lo mucho que conviene a esta Provincia se confirmen por el Rey nuestro señor (que Dios guarde) los fueros y hordenancas, privilegios y exempciones, buenos hussos y costumbres d'ella, para su mejor onsservancia y cumplimiento. Y para este efecto se encargó a Don Juan López de Arteaga que, con vista del quaderno de las dichas hordenancas y de otras que se han echo después de su recopilación, y de los acuerdos ymportantes de diferentes Juntas, hiziesse un nuevo qua-*

Izendatutakoek ez zuten mandatua bete, eta 1650ean Bergarako Batzarrak lanari ekiteko eta Tolosako Batzarrerako bukatzeko eskatu zien berriro: *Trabajen en ello con asistencia del secretario y demás personas que les pareçieren, y hagan y acaben la dicha recopilación [para la Junta de Tolosa]*¹⁶⁵.

Ez zen lanik egin, eta 1651ko Tolosako Batzarrean ez zuten ezer aurkeztu. Baina Zestoak hala eskatuta, 1652ko apirilean Donostiako Batzarrak gaia berriro aztertu zuen. Hiribilduak zioenez, tamalez foruen eta ordenantzen –eskuz idatziriko– kopia gutxi zeuzkan Probintziak, eta, horrek arazoak sortzen zituen (*ynoraban su disposición los hijos de la Provincia que biven en Castilla y en las Yndias y otras partes*). Halaber, aspaldiko xedapen asko zaharkituta gelditu zirela zioen, eta hainbat xedapen berri (*convenientísimas, que se pudieran fundar en privilegios, zédulas reales y executorias que se allan en el archivo d’ esta Provincia*), ordea, ez zeudela koadernoan sartuta. Eta 12 urte –pasatxo– lehenago Arteagak prestatu zuen testua txukun jartzeko (*en toda buena orden y estilo, como está el fuero de Vizcaya y de otras provincias*) lan gutxi egin beharko litzatekeela kontuan hartuta, Batzarrari lan hori egiteko pertsonak izenda zitzala eskatu zion: *[Nombrase] personas de esperiençia y notiçiosas, que lo agan con vista de los papeles y sin alçar mano, pues los fueros y ordenanças las devían tener todos y saverlas para executar lo permitido y mandado por ella*. Lan hori egin beharra zegoen (foruen bildumaren erreforma, alegia), Gorteko agenteari bidali ahal izateko bilduma berrets zezaten.

Batzarrari egokia iruditutako zitaion Zestoaren proposamena, eta Domingo Aialdeburu jaun lizentziadunari –Tolosako abokatua– eta Juan Martinez de Bikuña kapitainari bilduma erreformatzeko eta eguneratzeko mandatua eman zien

derno, recopilando en él todo lo ymportante y conviniente. Y el dicho Don Juan de Arteaga travaxó en esta obra y puso en limpio, y aunque se dieron sus traslados a las villas, no se ha tomado ressolución. Y h agora acuerda y manda que el cappitán Don Pedro de Aramburu y Francisco de Amezueta, con facultad de nombrar un letrado que les pareciere, juntamente con mí el secretario, vean el dicho quaderno nuevo con todo cuidado y pongan en perfección, quitando lo que pareciere superfluo y anadiendo todo lo que conviniere. Y puesto en limpio, un traslado signado suyo remitan al Hagente en Corte para que presente ante Su Magestad y senores de su Consejo y pida su aprovación y confirmación em forma. Y sacado provissión real de diligencias remita a los dichos nombrados y ellos acudan a las informaciones y diligencias necessarias. Y hechas, se saque el despacho de la dicha confirmación real, con ynsserción de todo lo contenido en el dicho quaderno nuevo, que para todo se les da poder cumplido y a la maior parte d’ ellos em forma [AGG-GAO JD AM 60,2; 13. or. atze.-14. or. aurre.]

¹⁶⁵ Bergarako Batzar Nagusia, 1650-V-4. Azpeitian 1647an egindako dekretua berretsi zuen Batzarrak: *En raçón de hacer la nueva recoppilación de las ordenanças de esta Provincia, y mandó se ponga en execuçión. Y que se escriba al cappitán Pedro de Aramburu y Françisco de Amezueta para que trabajen en ello con asistencia del secretario y demás personas que les pareçieren, y hagan y acaven la dicha recopilación para la Junta General de la billa de Tolossa, que será de aquí a un año, para que en ella se bea y se tome el acuerdo que combenga [AGG-GAO SS 110; 6. or. atze.]*

(sin alcar mano de la dicha obra, como de sus personas, experiencia y letras se promete y espera), eta ondoren Juan Gorostidiri –Gorteko bere agentea– igor ziezaiotela agindu zien (para que aga confirmar a Su Magestad y ynprimir las dichas ordenanzas, y las remita para que la Provincia se balga d'ellas)¹⁶⁶.

Beren lanari ekin zioten biek, baina denbora gutxiren buruan Aialdeburuk ezin zuela jarraitu adierazi zuen gaixorik zegoelako (por la indisposición y enfermedad con que se halla), eta sendabide bat (los beneficios de la medicina) jarraitu behar zuelako¹⁶⁷. Sendatzen zenean bere lanarekin jarraitzeko esan eta gauza bera eskatu zitzaion behin eta berriz; hala nola, Elgoibarren apirilean egindako Batzarrean eta Hernanin azaroan egindakoa¹⁶⁸.

Agindutakoari buruz honakoa erantzun zuen Aialdeburuk:

Es cuidado que importa la quietud y buen gobierno de toda la república, [eta agindutako lanak] requiere dedicado estudio y las conveniencias de su disposición piden muy pensadas notiçias de todo lo que V.S^a a platicado en sus tiempos en los sucessos de su correspondencia y de todo lo que son merçedes

¹⁶⁶ Donostiako Batzar Nagusia, 1652-IV-22. Zestoak honakoa zioen: [La Provincia] tiene sus fueros y hordenancas manoescritas y avía tan pocos traslados d'ellas que ningunos o muy pocos particulares las alcançaban a tener, a cuya causa ynoraban su disposición los hijos de la Provincia que biven en Castilla y en las Yndias y otras partes. Y fuera d'esto se avía conoçido con el tiempo y experiencia larga que muchas d'ellas benían al presente a seer superfluas, y dejaban de estar anadidas y recopiladas otras muchas convenientísimas que se pudieran fundar en previlexios, zédulas reales y executorias que se allan en el archivo d'esta Provincia, en que está casi travajado por el Licenciado Don Juan de Arteaga a más de doze anos, y es poco lo que faltaba y muy conveniente que se ponga en toda buena orden y estilo, como está el fuero de Vizcaya y de otras provincias, sirviéndose la Provinzia de cometer esto a sus Abogados y una o dos personas de experiencia y notiçiosas, que lo agan con vista de los papeles y sin alçar mano, pues los fueros y ordenanças las devían tener todos y saverlas para executar lo permitido y mandado por ellas. Y acavada la obra se remita al Ajente de Corte para que lo aga confirmar e ynprimir. Gipuzkoako ordenantzak biltzen zituen koadernoa erreformatzea erabaki zuen Batzarrak: Se reforme como más convenga y se ponga en perfección en toda buena orden y estilo, quitando/ y anadiendo y recopilando lo demás que conviniere, fundando en los previlexios, executorias y zédulas reales que tiene la dicha Provinzia. Eta Domingo Aialdeburu jaun lizentziadunarekin –Tolosako abokatua– eta Diego Martinez de Bikuña jaun kapitainarekin pozik zegoenez, agindutako moduan bilduma presta zezatela eskatu zieten (sin alcar mano de la dicha obra, como de sus personas, experiencia y letras se promete y espera). Eta bilduma egin ondoren Juan Gorostidiri –Gorteko bere agentea– igortzeko agindu zien (para que aga confirmar a Su Magestad y ynprimir las dichas ordenanzas, y las remita para que la Provincia se balga d'ellas) [AGG-GAO JD AM 61,2; 24. or. atze.-25. or. aurre.].

¹⁶⁷ Hala zioen 1652-X-29ko eta 1653-XI-14ko eskutitzetan [AGG-GAO JD IM 1/11/46 (1582)].

¹⁶⁸ Hala idatzi zuen 1652-X-29ko eskutitzean. 1652-XI-6ko Batzarrak osasuna hobetzea opa ziola erantzuteko agindu zuen (y que se sirva de continuar en la disposición de sus hordenanças y recopilación de sus fueros, como hijo tan ylustre y de tan grandes prendas, valiéndose para las notiçias de las perssonas que le pareziere) [AGG-GAO JD AM 61,2; 18. edo 44. or. aurre.-atze.]. Bikuñak, ordea, memorial bat aurkeztu zuen, lan horretan 10 egun eman zituela azalduz, eta 5.000 marabedi igorri zitzaizkion.

y preeminencias del territorio, porque en el mérito de ellas y en la causa de su honor an de fundar los fueros de V.S^a su justicia, la ocurrencia de ella y el político decoro.

[Bilduma guztiak] *necesita de espacio y de mucha aplicación, con entregada asistencia. No exagero mi empleo pero represento a V.S^a lo trabaxoso del ejercicio, que es descuido de la grandeza examinar menos lo que importa más, y fortuna de la patria correr los hijos con menos curso en la propia.* Dena den, nahiz eta osasun eskasa eta oztopo ugari izan, Gipuzkoak zuzemen horretan parte hartzea nahi baldin bazuen, saiatuko zela esan zuen Aialdeburuk (*que mi réplica no puede tener jurisdicción quando venero los asomos del gusto de V.S^a*), eta hurrengo Batzarrerako berak egiten zuenaren berri emango zuela hitzeman zuen (*computando siempre a mi obediencia por blasón la dicha de servir a V.S^a*)¹⁶⁹.

Zer gertatu ote zen gero? Berriz ere osasun eskasa eta elizgizon egiteko nahia argudiatuz, kontua da ahalegin honek ere huts egin zuela¹⁷⁰. Nahiz eta 1654an Diego Martinez de Bikuñak Aialdebururekin bildumari buruz (*en razón de la recopilación de las hordenanças que se le havía encargado*)¹⁷¹ jardun zuen, 1659. urtera arte ez zen berriro gaiari buruz hitz egin.

Bitartean inbentarioa lantzen jarraitu zuten¹⁷² eta, Francisco Amezketa hil zenez, Antonio Aialdeburu izendatu zuten artxibozain berri¹⁷³. Garai hartako dokumentazioak foru, ordenantza eta ohiturak (*fueros, ordenanzas y costumbres*)¹⁷⁴ betetzeaz dihardu, baina ez da foru-bildumarik edo ordenantzen koadernorik agertzen.

1659ko apirilaren 23an, Bergarako Batzarrean, inbentarioa eguneratzeko beharra mahaigaineratu zen berriro. Batzarrean esan zenez, *haviendo reconocido que el ymbentario de los papeles de esta Provincia y su archivo no está en forma con abecedario, y para buscar los papeles que, tal vez por accidentes, son neçesarios con toda brevedad no se pueden hallar sin repasar todo el im-*

¹⁶⁹ Tolosa, 1653-IV-28 [AGG-GAO JD IM 1/11/64 (1582)].

¹⁷⁰ Elgoibarko Batzar Nagusia, 1653-IV-29 [AGG-GAO JD AM 61,3; 6. or. atze.-7. or. aurre.].

¹⁷¹ Hondarribiko Batzar Nagusia, 1654-IV-26: Bikuña 3.500 marabedi igorri zitzaizkion, Aialdebururekin batera Tolosan 7 egunez egin zuen lanagatik; 500 marabedi/egun, alegia [AGG-GAO JD AM 62,1; 18. or. aurre.].

¹⁷² Hondarribiko Batzar Nagusia, 1654-IV-18: Francisco de Urbiztondori kobrezko 250 erreal igorri zitzaizkion 24 egunez lanean aritu zelako, inbentarioa egiten eta artxibozainari eta idazkariari eman beharreko kopiak egiten [AGG-GAO JD AM 62,1; 9. or. aurre.].

¹⁷³ Azpeitiko Batzar Nagusia, 1656-V-6 [AGG-GAO JD AM 63; 25. or. atze.].

¹⁷⁴ Adibide gisa, balio beza 1658-X-3ko Bidaniko Batzar Bereziak [AGG-GAO JD AM 64,2; 96. or. aurre.].

bentario. Hala, Francisco Urbiztondori (Tolosa) honakoa agindu zitzaion: *[Que] reduzga el dicho ymbentario en forma por letras de ABCdario, con yndize, para que los papeles de la dicha Provincia se puedan buscar con toda brevedad y façilidad*¹⁷⁵.

Azaroan egitekoa zen Mutrikuko Batzarrerako Urbiztondok honako hau proposatu zuen: *[Un] método fáçil para buscar los papeles quando la ocassión requiere brevedad, juntando todos los que fueren conçernientes a una materia en un legaxo o más, seguidos uno tras otro, y poniendo a lo húltimo la tabla y señalando en ella los papeles tocantes a cada cossa de por sí*¹⁷⁶. Batzarrak Azkoitiko eta Bergarako prokuradoreei gaia aztertzekeo mandatua eman zien, eta horiek emandako iritzia onartu zuen Batzarrak; paperak gaika ordenatu behar zirela zioten:

No por los mismos papeles sino por las cossas a que tocan y de que hablan, como es: en la [A] alcaldía de sacas, aduanas, armas, etc.; en la B bastimentos, visitas eclesiásticas, etc.; en la C capitán general, coronel, conducción, etc.; en la D derechos, donativos, etc.; y lo mismo en las demás letras, componiendo de cada una letra una, dos o más targetas, divididos en número primero, segundo, etc., según cada xénero en cada letra lo pidiere.

Beraz, gaikako inbentario bati buruz mintzo ziren, kontzeptuala eta sistematikoa¹⁷⁷, eta inbentarioa egiteko agindua Urbiztondori eman zioten.

Probintzia bere agiritegiko dokumentazioa antolatzeaz eta kontrolatzeaz arduratu zen, baina, horrez gain, dokumentuen berreskuratze politika bat hasi zuen, ahazturik geratu zena. Hortaz, honako erabakiak hartu zituen: Nuntzio Apostolikoaren «paulina» lortzea parroketan argitara emateko eta, hala, Probintziaren dokumentuak zituzten herritarrei agiritegira itzul zituzten eskatzeko¹⁷⁸; agiritegitik atera ziren paper penalak itzultzeko ahaleginak egin zituzten eskatzea bere Diputatuei eta, aurrerantzean, ateratzen ziren paperen berri eman zezatela jakinaraztea (*de los papeles que en su tiempo se sacasen, o de no haver sacado algunos compulsados ni haver havido ocassión de sacarlos*), zeren derrigorrezkoa izango zen deskargu hori ematea; eta Valladolideko eta Madrilgo

¹⁷⁵ Bergarako Batzar Nagusia, 1659-IV-23: Antonio Aialdeburu artxibozainak bere eskuetan zeukan inbentarioa eman behar zuen [AGG-GAO JD AM 65, 11. or. atze.-12. or. aurre.].

¹⁷⁶ Mutrikuko Batzar Nagusia, 1659-XI-17: [AGG-GAO JD AM 65, 110. or. aurre.].

¹⁷⁷ Mutrikuko Batzar Nagusia, 1659-XI-18: [AGG-GAO JD AM 65, 112. or. aurre.].

¹⁷⁸ Arrasateko Batzar Nagusia, 1660-XI-20. Batzarraren hitzetan, *muchos papeles importantes a esta Provincia están fuera de su archivo y los tienen perssonas particulares*, eta, horrenbestez, Pedro Iartza diputatu nagusi jaunak Nuntzioaren «paulina» lor zezala (*sacasse paulina*) eta parrokia guztietan argitara eman zedila erabaki zen, eta probintziaren paper guztiak agiritegira itzultzeko egin beharreko zuzemen guztiak egin zitezela [AGG-GAO JD AM 66, 75. or. aurre.].

nuntzioei, halaber, auzi eta negozio desberdinetan bidal zitzaizkien paper penalak itzul zitzaten eskatzea¹⁷⁹.

Baina Zumaia, 1659an, foru-legedia zehazki ezagutzeko beharra zegoela mahaigaineratu zuen (*suma neçessidad*) berriro, nahiz eta Gipuzkoako zuzenbidearen bilduma ez zuen zehatz-mehatz aipatzen. Adierazpen hori Bergaran egin zen, apirilko Batzarrean. Bertan, Zumaia honakoa proposatu zuen:

*La suma neçessidad que se reconoce de adquirir notiçias de muchos fueros, hordenanças, previlexios [y] çédulas con que la Provinçia se halla en su archivo, para la forma y ajustada deliveraçión de muchos casos que ocurren, hace que, por no hallarse con el çierto conoçimiento de sus papeles, se dexa de dar la Provinçia muchas vezes el expediente proporcionado, demás de que la exsperiencia ha mostrado que en muchos cassos en que se han echo decretos y hordenanças y solicitado sus confirmaçiones, a ssido superflua la dilixençia y executados los gastos, por hallarse la Provinçia antegedentemente con los mismos fueros, previlexios y hordenanças confirmadas que nuebamente se solicitavan. Y que para ocurrir a este defecto y prover de remedio en lo que tanto ymportava, escusando los gastos que en tiempo de tan estrechura podían ser de mucha consideraçión, sería combeniente que la Junta encargasse a Don Martín de Eleyçalde, Cavallero de la Horden de Alcántara, que en la villa de Tolossa reçeviesse del archivo de Guipúzcoa los legaxos de hordenanças y provisiones y despachos antiguos que le pareçiesse y, dexando reçivo d'ellos, los traxesse a la villa de Azpeitia, pues ha de hazer jornada a la dicha villa de Tolossa. Y assí vien, con rreçivo d'ellos entregasse los que le pareziessse a cavalleros de Azpeitia y Azcoitia, de cuio çelo e yntelixençia entendiesse que con gusto y todo çelo del açierto se emplearían en mirarlos y reconoçerlos. Y que estos fuesen sacando una minuta de lo que contubiesen las hordenanças y demás papeles que entregasse a cada uno. Y que assí sacada la rraçón, se comunicasen entre ssí y a la primera Junta embiasen memoria y çusçinta relaçión de lo que les pareziessse digno de notiçia. Y que bueltos todos o algunos papeles de los que se sacasen, si se pidiesen más por el dicho Don Martín de Eleyçalde, con nuebo reçivo se le entregasen en el archivo más papeles para que en la mesma forma se fuesen reconoçiendo*¹⁸⁰.

Horrela erabaki zuen Batzarrak, eta gero Mutrikun berretsi zen; beraz, Martin Elizalderi, Pedro Ignacio Velez de Idiakez eta Gebara jaunarekin harremanean, agiritegiko paperak ezagutzeko agindua eman zitzaion, bilduma bat (*resumen y recopilación d'ellos*) egiteko xedearekin, gai garrantzitsua (*materia*

¹⁷⁹ Mutrikuko Batzar Nagusia, 1659-XI-17: [AGG-GAO JD IM 65, 110. or. atze.].

¹⁸⁰ Bergarako Batzar Nagusia, 1659-IV-25. Batzarrak hiribilduaren proposamena azertu zuen eta honako agindua eman zuen: *Se haga según y como se contiene en la dicha proposición, y que se execute al pie de la letra, por ser cossa muy combeniente al bien d'esta Provinçia y de sus naturales* [AGG-GAO JD AM 65, 20. or. atze.-21. or. atze.].

de tanto pesso y de tan suma importançia) baitzen, eta lehenbailehen egitea (*la brevedad de su execución*) eskatzen zioten¹⁸¹.

Bitartean, Frantziaren aurka 30 urte baino gehiago iraun zuen gerra luzea amaiturik, 1659an, Piriniotako Bakea izenez ezagutzen denarekin, Gipuzkoak Erregeari zenbait ordain eta sari eskatzeko asmoa zuen, Gipuzkoak emandako zerbitzuak –asko eta baliotsuak– ordaintzeko. Bildumaren gaia aztertzeko agindua Diego Martinez de Bikuñari eman zioten, eta honek 1661eko otsailaren 12an memorial zabala aurkeztu zuen Tolosako Diputazioan¹⁸²; lehenengo puntuan Filipe IV.ari Gipuzkoako foruen eta ordenantzen berrespena eskatzearen beharra azpimarratzen zuen, Bizkaian egindako moduan (*como se ha echo y haze con el Señorío de Vizcaya, quitando del quaderno antiguo las leyes y capítulos que no son neçesarios en el tiempo presente y añadiendo los que h agora combienen*). Beraz, foru-bilduma eguneratzearen beharrari buruz ari ziren berriro, bildumaren errege-berrespena lortze aldera.

Aldez aurretik, –Madrilen bizi zen– Juan de Idiakez Isasi jaunari iritzia eskatu zitzaion; honek 1661eko urtarrilaren 22an Diputazioari idatzi zion, eta honela zioen:

La confirmación de las hordenanzas es combeniente, [y] si a Su Magestad (Dios le guarde) quando entró a reinar no no se le suplicó que las confirmase, como suele hazerse, y el excluir del quaderno antiguo lo que no fuere a propósito toca al Consejo en la sala de Gobierno, y porque no ha de hazerlo sin mucho conosçimiento, parece que facilitaría lo que V.S.^a desea si, entregándoles todas a uno o dos abogados, las redujesen a títulos, como están el derecho y las leyes muniçipales de estos reynos, poniendo al fin de cada hordenanza o al margen (aunque ayan muchas en el título) quién la confirmó, y pedir que se aprueben y liçençia para imprimirlas, sin deçir las que se excluien. Y porque esta palabra de «fuero» en Castilla es odiosa y no la ha practicado V.S.^a, podrá excusarla.

Ez zen gutxi Idiakez jaunak ohartarazten zuena, eta Diputazioak Bikuñaren memoriala eta Idiakezen iritzia hiribilduetara, alkatetzetara eta bailaretara igortzea erabaki zuen, prokuradoreak prestatuta eta gaiaz jabeturik bidal zitzaizen hurrengo Batzar Nagusira, gehien komeni zena erabakitzeko.

1661eko maiatzean batzarkideak Donostian bildu ziren, bada, eta gaiari heldu zioten. Maiatzaren 6an batzarrak Hondarribiko eta Getariko prokuradoreei, gainerakoekin harremanean, beren iritzia emateko mandatua eman zien, hartu behar zen erabakia zehazte aldera¹⁸³. Maiatzaren 7an prokuradoreek iritzia

¹⁸¹ Mutrikuko Batzar Nagusia, 1659-XI-17: [AGG-GAO JD AM 65, 110. or. atze.].

¹⁸² AGG-GAO JD AM 60, 211. or. aurre.-atze.

¹⁸³ AGG-GAO JD AM 67,1; 13. or. aurre.

eman zuten, eta Erregeari sariak eskatzea erabaki zuten, ez ordea foruen berrespenik¹⁸⁴.

Hori izan zen, urte askoan, Gipuzkoako zuzenbidea osorik berresteko azken ahalegina. Probintziak foruak berresteko gogo bizia zuen, baina, dirudienez, atzera egin zuen; alde batetik, berretsitako ordenantzen bilduma on eta eguneratu bat ez zuelako; bestetik, Kontseiluan ordenantzak aztertzerakoan arazoak sor zitezkeelako. Horiek horrela, berriro eta behin betiko, zuzenbidearen berrespena planteatu arte 20 urte baino gehiago igaro ziren.

Alabaina, Gipuzkoaren eskubideen defentsarako erabil zezakeen Dokumentazioa edo *paperak* berreskuratzen jarraitzeaz arduratu zen, bere agiritegian ipintzeko. 1661eko maiatzaren 4ko Donostiako Batzar berean, Probintziari zegozkion paperak aurkitu eta bere agiritegira itzultzeari buruz lortutako «paulina» izeneko gutuna parrokia guztietan ezagutaraztea erabaki zen eta, argitaratu ondoren, hiribilduz hiribildu igortzea. Gutuna Hondarribian hasiko ziren argitaratzen (*y después según la nómina de las villas y lugares que por él se entendiese*), eta alkateek apaizei eta bikarioei gutuna beren elizetan argitaratu zezaten eskatuko zieten¹⁸⁵. Eta erabaki hori ondorengo Batzarretan berretsi zen urteetan zehar¹⁸⁶.

Gainera, beste zeregin batzuetaz ere arduratu zen: denboraren joanean agiri batzuk hondatu egiten ziren eta hori saihesteaz¹⁸⁷, Probintziako ordenantzen kopiak egiteaz¹⁸⁸, edota agiritegia konpontzeaz¹⁸⁹. Baina ez zuen, antza de-

¹⁸⁴ Erregeari honako sariak eskatu zizkieten: emaitza emateko betebeharraren salbuespena 50 urtez luzatzea (*porque todo es para su desempeño*); hutsik gelditzen ziren elizen babesa edo patronatua; Gipuzkoari (betiereko errenten zergengatik –*alcabala*–) urtero zegozkion 110.000 marabedietatik Erregeak hartu zituen urteko erdiak (*media anata*) itzul zitzala; eta urtero Amerikatik (*de Tierra Firme y Nueva España*) 600 tona gari ekartzeko baimena (300 tona flota bakoitzean) [AGG-GAO JD AM 67,1; 19. or. aurre.].

¹⁸⁵ *Corriendo la remisión de un lugar a otro y la publicación por cuenta de las villas, ciudad, alcaldías, valles y lugares que la nómina contuviere* [AGG-GAO JD AM 67,1; 8. or. aurre.].

¹⁸⁶ Hala: 1662-IV-25eko Elgoibarko Batzarrean [AGG-GAO JD AM 67,2; 5. or. aurre.]; 1662-XI-15eko Debako Batzarrean [Ibidem, 67,2; 56. or. aurre.]; 1663-IV-17ko Errenteriako Batzarrean [Ibidem, 68,1; 25. or. aurre.]; edo 1663ko azaroko Getariako Batzarrean [Ibidem, 68,1].

¹⁸⁷ 1662-IV-28an Elgoibarko Batzarrek, *por quanto muchos papeles de esta Provincia muy importantes, con el transcurso del tiempo se han gastando y su letra se hace inlexible*, bere artxibozain Antonio Aialdebururi honako agindua eman zion: [*Que*] *reconociendo los que fueren convenientes los copie, y de lo que fuere obrando vaya dando cuenta a las Juntas* [AGG-GAO JD AM, 67,2; 16. or. aurre.].

¹⁸⁸ 1662-IV-29an Elgoibarko Batzarrean Azpeitia hiribilduak Probintziako ordenantzen kopia aurkeztu zuen, Azpeitiak egina, eta Batzarrek Diputazioari kopia hori koadernatzea agindu zion [AGG-GAO JD AM 67,2; 17. or. atze.].

¹⁸⁹ Hala, 1673-IV-19ko Zestoako Batzarrek honako hau agindu zuen: [*Que*] *el archibista continúe en disponer los reparos del archibo* [AGG-GAO JD AM 72; 7. or. atze.].

nez, bilduma berri bat osatzeari ekiteko beharrik, indarrean zegoen zuzenbide gisa 1583ko bilduma erabiltzen baitzen, eta handik aurrerako lege-xedapenak artikuluen arabera aipatzen ziren.

II. GIPUZKOAKO PROBINTZIA TXIT NOBLE ETA LEIALAREN FORU, PRIBILEGIO, USADIO ETA OHITURA ON, LEGE ETA ORDENANTZEN BILDUMA BERRIA (1696)

Probintziak XVII. mendean foru-bilduma lortzeko egin zituen ahaleginak ez ziren alferrikakoak izan, nahiz eta hori Miguel Aranburu jaunarekin –Caballero de Santiagoko Zalduna eta Tolosako herritarra– bakarrik lortu zen. Horrek «Ordenatzak» hitza aldatu eta haren tokian «Forua» jarri zuen; hala, XVII. mendean erdialdean Gipuzkoan ezarritako usadioa finkatu zuen.

Bere izena, bilduma *berria*, harrigarria gerta daiteke; izan ere, 1696ko bilduma hau, egia esan, Erregeak berretsi zuen lehenengoa eta inprentara eraman zen lehenengoa da. Baina Aranburu jaunak berak justifikatu zuen Hitzaurrean bildumaren izenburua, la horretan bere aurrekoek egindako ahalegina gogora ekarriz:

Probintziari liburuak entregatu aurretik, Ugartek sari edo *adehala*²⁴⁶ gisa 30 ale hartu nahi zituen²⁴⁷, hiru inprimatzaile maisuri kontsulta egin zitzaion –horien artean Pedro de León maisuari (*mercader de libros y que más haze imprimir en diversas partes de España*), inprimatzaile maisuek inprimatzen ziztuzten liburuekin jarraitzen zuten ohitura ezagutzeko. 1697ko uztailaren 13an honela erantzun zuen Pedrok: *El ympresor que ymprime un libro deve entregar los que se le mandaron ymprimir sin plegar, si no es alzados y que no les falte pliego alguno*. Baina inprimatze lana enkargatu zuenak eman nahi ez balizkio, *deve entregar el número que concertó avía de ymprimir y sólo podrá quedarse con los que ubieren quedado de la mano perdida, y para los oficiales un tomo a cada uno. Y estos tres tomos son por cuenta del que compra la ynpresión*²⁴⁸. Beraz, sari gisa liburu batzuk eskatu zizkion Probintziari. Batzarrak gaia aztertu zuen eta, nahiz eta soil-soilik hiru liburu jasotzeko eskubidea zuen (*sólo tiene derecho el maestro a un libro para sí y dos para los oficiales que hubieren intervenido en la obra*), eta hiru maisuak bat zetozen horretan, Batzarrak liburuaren kalitatearen goraipamena aktan idatzita gera zedin erabaki zuen (*lo mucho que ha agradado a todos esta obra de la impresión, por ser de muy buena letra y papel, y con muy pocas erratas, por lo qual ha merecido el dicho Bernardo común aplauso de quantos lo han visto*)²⁴⁹ eta 14 liburu eta zilarrezko 30 ezkutu –kostuak estaltzeko laguntza gisa– ematea adostu zuen²⁵⁰.

Horiek horrela, 1697ko irailaren 15ean Miguel Aranburu jauna zendu zen Tolosan. Albiste bere seme Miguel Aranburu Atorrasagasti jaunak jakinarazi zion Probintziari irailaren 23an, eskutitz luze batean, bere aitak egindako zerbitzuak gogora ekarriz eta Probintziari eskerrak emanez.

[Por] la grande confianza que hizo de sus oficios en la disposición del libro de la Nueva Recopilación de sus ordenanzas en que [...] anheló muy cavalmemente el acierto, entregándose a este fin al inmenso trabajo que le acarreo la precisión y repaso por menor de la maior parte de los tesoros que guarda el

²⁴⁶ Dohain gisa ematen dena, prezio nagusiari edo ordainsari nagusiari erantsita.

²⁴⁷ 30 aleak 1697-V-13ko Arrasateko Batzar Nagusian eskatu zituen [AGG-GAO JD AM 83; 16. or. atze.-17. or. aurre.], honakoa esanez: *Es estilo y se permitían a los impressores, aún en menores obras que ésta y no concurriendo las ciscunstancias que aquí, pues los impressores no tienen más obligación que imprimir, dándoles el papel necessario. Y en ésta, aviendo el suplicante corrido con todo (en gran beneficio de la obra) por el corto precio de 3 maravedís por pliego impresso, con tantos gastos en el transporte de tanto número de papel desde la ciudad de Burdeos hasta la villa de Tolossa, con los inconvenientes en dicho viage y daños que en su execución ha tenido en la dicha villa de Tolossa, Azkoitiko Diputazioan 1698ko urtarrilean azaldu zituen arrazoiengatik, assegura quedar dannificado en más de 500 rs. de a ocho* [AGG-GAO JD IM 1/11/59].

²⁴⁸ AGG-GAO JD IM 1/11/59.

²⁴⁹ Arrasateko Batzar Nagusia, 1697-V-13 [AGG-GAO JD AM 83; 16. or. atze.-17. or. aurre.].

²⁵⁰ Ugarteri asko kostatzen zitzaion.

archivo de V.S.^a, y lo tubo por bien empleado quando bió el agrado que mostró V.S.^a en tantas y tan repetidas demostraciones, adecuadas a su generosa grandeza, de lo que obró en esto.

Baina heriotza zela kausa, esku artean zeramatzan negozioak amaitu gabe gelditu ziren, eta Miguel Aranburuk (semea) honela azaldu zuen foru-bildumaren inprimaketaren gaiaren egoera:

Acavóse la impresión lo mejor que se pudo y, porque V.S. se dignó a librar a su impresor de la obligación que tenía contrahída en una escritura de 28 de septiembre de 1695 de entregar encuadernados todos los tomos, en cuia impresión entendió, fue preciso al difunto, para hechar el último rasgo a su obra, diligenciar dos oficiales encuadernadores para que trabajasen asta mil libros que prudencialmente discurrió se expenderían en los reinos de España, señalándoles por meses el salario competente a su trabajo, en que han proseguido asta oy con la diligencia a que les incitaba el deseo que asistía a mi padre de la breve execución el servicio de V.S.

Y porque no me parece cumpliría con mi obligación en el estado que por maior represento a V.S. de esta dependencia si no pasase a participarle las circunstancias que, por menudas, se podrían despreciar por quien no atendiese tanto como yo al maior beneficio de V.S., pondré en su noticia, con la reverencia que debo, así las de esta dependencia como las de las demás que confió V.S. de su cuidado.

Siendo precisa la prevención de los materiales necesarios para la obra de la encuadernación escribí a Tudela para que le remitiesen asta cinquenta docenas de pergaminos²⁵¹ de tal calidad que con cada uno de ellos se pudiesen

²⁵¹ Tuteran erositako pergamino hauei buruz, Bernardorentzat ere hitz gogorrak bota zituen Aranburu jaunak. Hona hemen Beroiz anaiei zuzendutako 1697-IV-17ko eskutitzean Aranburuk zioena: *Me ha sobresaltado, habrá 15 días, con una de las mayores desvergüenzas que ha podido intentar su animosidad porque, habiéndole prevenido por su bien, al tiempo que despidió al flamenco, pues que no se hallaba con caudal ni con medios para comprar el pergamino que necesitaría la encuadernación, y que en la forma y en los precios que él los tenía concertados en Tudela los haría yo traer a esta villa por mi cuenta y pagando su valor con anticipación, por medios de un caballero amigo mío en aquella ciudad, que asistiría a la entrega de los pergaminos para saber el número y la calidad de ellos, y me los remitiría con los proveedores de vinos de esta villa para que viniesen bien tratados y no se trocase en el camino, con particular encargo mío todo ello, pero que habían de quedar en mi poder para que se fueran empleando meramente en la obra y no en otra cosa alguna, quedó entonces como satisfecho de la proposición. Y, habiendo yo hecho el empeño en Tudela para que en esta conformidad se labrasen y se remitiesen hasta 50 docenas por agora, y mostrándole lo que acerca de ello me escribía mi correspondiente, volvió la hoja y resueltamente me dijo que no me metiese en nada, que él dispondría de lo que conviniese pues era de su cuenta la encuadernación. Repliqué que la satisfacción de ella era de mi cargo y cuando se le hacía sobrado beneficio dejase correr lo que estaba tratado, sobre que tuvo más de un mediano enfado con él. Últimamente, habiéndome avisado se hallaban ya prevenidas 18 o 20 docenas de pergaminos y que sólo se aguardaba a mi orden para entregarlos a los arrieros, envié con ellos 20 escudos de plata y orden para que se entregasen los pergaminos al que llevaba el dinero. El cual, cumpliendo lo que se le mandó, dió al maestro de ellos, en presencia del caballero mi*

cubrir dos libros, al precio que fuese justo, que, concertado a nueve reales de aquel reino por cada dozena de ellos, sin incluirse en esta cantidad el porte de ellos, los fueron enviando juntamente con tres dozenas de baldres y arroba y media de cola. A que, añadiéndose acá los demás materiales de que usa este género de arte, se comenzó a trabajar con calor, principiando la obra con noventa libros que se pusieron en Mondragón durante la Junta de V.S. en ella, y se repartieron entre sus lugares. Y respecto de que estos no parecieron tan bien obrados como se podía, se procuró mejorarla con algunos cartones que se dispusieron para que, añadiéndose al pergamino, serviesen de tener más unidas las ojas del libro. Y aunque de esta manera se descubrían de bastante buena bista todavía, biendo la poca inclinación que avía a hacer empleo de estos tomos, se adelantó la mejoría del trabajo en ellos adornándolos con algunos colores en la cubierta y en los extremos, que, haciéndolos muy bistosos, devieran convidar a qualquiera a emplear la corta cantidad que impuso V.S. a cada uno. Con estos géneros de labor se han enquadernado asta el día de oy setecientos tomos poco más o menos y aunque se continúa en su trabajo es con la mira de que no se pierda un instante mientras V.S. se sirviere de mandar lo que fuere de su maior agrado, en el supuesto de que resta de consumirse el material que basta para cerca de quatrocientos libros y se hallan empeñados los oficiales que han entendido y entienden en la obra.

En conformidad de lo ordenado por V.S. comunicó mi padre e Don Domingo de Urbizu el deseo que tenía V.S. de que por sus medios se beneficiase en la América el maior número de libros que se pudiese. Y respondiendo con demostraciones de hijo tan principal de V.S. le advirtió se haría por aquellos reinos el empleo de asta dos mil tomos y que sería mejor se enviasen todos a su poder en papel tirado, sin enquadernar, para que él mismo pudiese disponer a toda su satisfacción esta labor. Pero le parecía sería de maior conveniencia de V.S. no se enviasen los dos mil de una vez, por los riesgos a que necesariamente

correspondiente, los 20 escudos y recibió 18 docenas de pergaminos para traérmelos a esta villa. En este medio tuvo este hombre honrado sus correspondencias con el pergamino que, con la buena fe de ser todo para un mismo fin, le respondió a una de sus cartas que enviaría los pergaminos con el arriero. Y sólo con este leve motivo le estuvo esperando el día que hubo de llegar acá y, engañándole con decir que vivía en mi casa y traería los pergaminos a ella, se apoderó de la cabalgadura en que venían y, sin hablarme una palabra y sin que lo pudiese yo saber, me los encerró en su cuarto, muy contento sin duda de haberme pagado la burla. Luego que tuve noticia por el arriero de lo que pasaba hice cargo a Su Merced cómo se tomaba semejantes licencias sin decirme nada. Respondiome con desembarazo que los pergaminos eran suyos y los tenía pagados. Instéle diversas veces buenamente delante de sus oficiales, en el obrador, me los trajese arriba, que yo los tenía pagados y me los habían enviado de Tudela por mi cuenta, y que sólo eran para emplearse en la obra por mis manos y no en otra cosa alguna. Y aún que, cuando fueran suyos, debiera tener la atención de entregármelos pues yo los había de pagar y no él, por no tener de dónde. Se cerró con sobrado aliento en que no me los daría y que hiciese lo que quisiese, lo que me obligó a decirle que ara un pícaro desvergonzado, y por no meterme con él, aún en mi propia casa, a cosa que pasase más adelante, si bien lo tenía bien merecido, hablé al alcalde para que le obligase a que me los entregase y se hizo así bien contra su voluntad [Serapio Muxikak argitaratua, «El Libro de los Fueros», 19-21. or.].

deven exponerse en las inconstancias de la mar, y por otras consideraciones de la maior utilidad de V.S. a que, atento el buen difunto como siempre, aprestó mil y setenta y siete libros, los ducientos enquadernados del último género de los que he representado a V.S. en el capítulo antecedente y los demás en papel suelto tirado, acompañados del blanco necesario y de las láminas que han de llebar por principio, aunque no todas, en diez y ocho cajones que se hicieron acá. Y, aviados en carros de esta villa a la de Hernani y desde ella por agoa al puerto de los Pasages, se embarcaron a los últimos del mes pasado en un navío de Simón de Celarain, nombrado «Ihesus, María, Joseph y las ánimas», dándole por su flete de aquel puerto al de Cádiz cinquenta escudos de plata, de que dio recivo, como también de los diez y ocho cajones que deve servir de conocimiento a Don Domingo de Urbizu, a quien se remitió sin perder tiempo. Y aunque deviera aver noticia, según el curso ordinario, del arribo de este navío a aquel puerto, no ha llegado asta aora, si bien se ha (sabi)do del recivo del conocimiento por (este) cavallero.

Para los novecientos y beinte y tres libros que restan al cumplimiento de los dos mil que pidió Don Domingo se han prevenido los cajones necesarios, que servirán en el interin que se ofrezca ocasión de navío de resguarda[r]los de qualquiera detrimento que pudiera sobrevenirles estando sueltos.

Al tiempo que el impresor hizo la entrega de la impresión dejó de hacerla, demás de dos mil estampas del blasón o escudo de armas de V.S. que lleban por principio todos los blasones, y, aunque después se le instó mucho diese cumplimiento a la obligación que tenía hecha en la esscritura que refiero arriba, no ha havido forma para que trate de benir a esta villa a executar esta obra con la prensa que es necesaria para ello, lo que obligó a mi padre a disponer la misma y a divertir para esta labor uno de los oficiales enquadernadores, atrasándose por este medio ambos exercicios mucho más de lo que se deviera. Y porque tampoco en esto como en lo demás se pierda instante alguno prosigue en la tirada de ello el oficial que la comenzó asta que V.S. disponga lo que fuere de su maior gusto.

De los libros que se han enquadernado se han remitido noventa a la Corte a poder de Don Thomás de Ybarguen para que, conforme dispuso V.S., repartiese a los señones del Consejo y a los cavalleros encomendados de V.S. los necesarios y beneficiase los demás entre algunos de los muchos hijos de V.S. que ay en ella. Y aunque hubo noticia de averse distribuído entre los senores consejeros no se save lo que ha podido beneficiar. También se enviaron a la ciudad de San Sevastián noventa y nueve a poder de Don Joseph Antonio de Leizaur, creiendo que en un lugar tan populoso como es aquél se extendería con facilidad este número, que deve de estar muy cerca de entero. En conformidad de lo que dispuso V.S. en su última Junta ha entregado el impresor los ducientos y veinte y dos tomos que, por faltarles un pliego, se dejaron de recevir con los demás, y más diez y ocho que ha podido junttar de los pliegos sueltos²⁵².

²⁵² AGG-GAO JD IM 1/11/59.

Irailaren 24an Probintzia Azkoitiko Diputazioan bildu zen eta Miguel Aranburu jauna (semea) izendatu zuen²⁵³, bere aitaren lana osa zezan. Bestalde, liburua banatzeko eta saltzeko, Fermin Txarolari –bere agentea– liburuaren 50 ale bidaltzeko agindua eman zuen²⁵⁴ (*[por ser] muy combeniente y aún nezesario para la debida observancia de los fueros de esta Provincia el que en la Chancillería de Valladolid se haga noticia de ellos y los tengan presentes los señores ministros de ella para las dependencias que pudieran ofrezerse*).

Baina urriaren 27an, ale gutxi saldu zirela eta atsekabetua zegoela aitortu zuen Aranburu jaunak (*bastantemente mortificado a bista del poco consumo que tienen los que se han enquadernado acá*), zeren Jose Antonio Leizaurri Donostiara bidali zitzaizkion 99 aleetatik zazpi besterik ez ziren saldu, Madrilera bidali ziren 90etatik ez zekien alerik saldu ote zen (*no ay noticia de empleo alguno*), eta bere eskuetan zeuzkan 300dik gora aleetatik hiru besterik ez ziren saldu (*sólo han salido de dos meses a esta parte tres*). Horiez gain, Txarolari igortzeko 50 ale prest zeuzkala (*encajonados y en la forma que an de yr*) zioen (*esperando la ocasión de su avío*)²⁵⁵.

1698. urtearen hasieran, artean, sobera inprimatutako liburuei buruz eztabaidatzen jarraitzen zuten Ugarterekin²⁵⁶, bilduma ahalik eta gehien hedatzeko ahaleginak egiten ziren bitartean. Horiek horrela, 1698ko apirilaren 24an Tomas Ibarguenek –Gorteko agentea– Madrilén egin zuen banaketaren memoria-

²⁵³ Azkoitiko Diputazioa, 1697-IX-24 [AGG-GAO JD AM 83; 51. or. aurre.-atze. eta 53. or. aurre.-atze.].

²⁵⁴ Azkoitiko Diputazioa, 1697-IX-24: Ministro bakoitzari ale bat eman beharko zion, eta aurrerantzean kontsultatzeko bi ale utziko ziren Entzutegi publikoaren Gelan eta Krimen arloko Gelan, Akordioaren lizentziarekin; beste bat beretzat hartuko zuen, eta gainerakoak saltzen ahaleginduko zen [AGG-GAO JD AM 83; 53. or. atze.].

²⁵⁵ 1697-X-28ko Azkoitiko Diputazioak Ugarteren esku libururik ez uzteko agindu zuen (*cuio beneficio pudiera minorar el precio de ellos*), eta Ugarterek sobera inprimatutako aleak hartzeko agindu zion Aranburu jaunari [AGG-GAO JD AM 83; 55. or. atze.].

²⁵⁶ 1698-I-23ko Azkoitiko Diputazioan, Ugarterek, hitzartutako 3.200 liburuaren inprimaketagatik zegoekion ordain ziezaiola eskatu zuen, ordaintzeke zukan paperaren parte bat ordaintzeko, eta eskatu zituen 30 liburuak eman ziezazkiola, inprimategietako ohiturari jarraiki. Diputazioak honakoa erabaki zuen: Ugarterek zeuzkan liburu eta kaier solte guztiak Aranburu jaunak har zitzala –zinpeko aitortza batekin, gehiago ez zituela esanez– eta honek 3.200 liburuak ordain ziezazkiola –dirurik baldin bazuen–, baina hark ematen zizkion soberako liburuaren ordainketa eteteko. Eta Bernardok eskatzen zituen liburuei buruz, Batzarrera joateko eta berak aipatzen zuen ohitura justifikatzeko eskatu zion [AGG-GAO JD AM 83; 66. or. aurre.-atze.]. Hilabete geroago (otsailaren 24an) Ugarterek ezin hobeki osatutako 148 liburu eman zizkiola esan zuen Aranburu jaunak (horietatik 134 ordaindu zizkion), baita kaier bat edo beste falta zuten beste 13 eta 4.136 kaier solte ere. Gainera, Aranburuk Pedro de Leónek idatzitako eskutitza igorri zuen (*que es el único papel que he podido hallar*), nahiz eta bere aitak hiru inprimatzaileraren eskutitzak jaso zituela gogoratu, hirurak gauza bera esanez: Ugarteri liburu bakarra eman behar zitzaiola eta inprimatzen jardun zuten bi ofizialei liburu bana, hori zela bidezkoa. Halaber, 50 aleak bidali zizkiola Txarolari esan zuen [AGG-GAO JD AM 83; 71. or. aurre.].

la aurkeztu zuen. Igorri zitzaizkion 90 aleetatik 47 entregatu zituela zioen: 28 Errege Kontseiluan entregatu ziren eta Ibarguenek bat hartu zuen. Gainerakoak jaso zituzten pertsonak hauek izan ziren: Navahermosako markesa, Adaneroko kondea, Oropesako kondea, Francisco Téllez, Joseph Bergara, Domingo Leal de Saavedra jauna (Kontseiluko ganbera eskribau zaharrena), Joseph Egizabal jauna, Juan Larrea jauna, Ogasun gobernadorea, Manuel de Isla jauna (Ogasun fiskala), Fernando Antonio Loiola jauna, Kontseiluko fiskal berria, eta Gregorio del Valle jauna, Torrubiaiko kondea, Fernando Mier jauna, Gregorio Solórzano jauna, Agustín García jauna eta Pedro de Urrutia jauna kontseilariak (*para tener [éste] en la Secretaría de la Presidencia de Castilla*)²⁵⁷. Gainera, nahiz eta liburuak saldu zitzan egindu bazioten ere, ez zituela saldu zioen, hori ez baitzitzaion itxurazkoa iruditzen ([Probintziaren] *dilijencia poco decorosa a la grandeça*).

Bost egun geroago, apirilaren 29an, Domingo Urbizuk ere bere zuzemeneen berri eman zuen. 1597ko abuztuan, Pasaiaetik Cádizera heldu zen itsasontzi batean 1.072 liburu zeuzkaten 18 kutxa jaso zituela (200 koadernaturik eta gainerakoak paperean) eta Sevillara eraman zituela zioen (*para ir disponiendo su despacho aquí y en América*). Baina Andaluzian ale gutxi (24 gehienez) saldu zituela esaten zuen (Sevillan hiru pesotan eta Cádizen kobrezko 50 errealetan); Amerikan, ordea, gehiago saltzea espero zuela: *Por lo que mira a Andalucía no se ha logrado todavía mi aplicación y desvelo por ser pocos los aficionados a estas cosas, aunque tan apreciables, (...) con que sólo queda el recurso de las Yndias (que siempre se consideró por el principal) para dar salida a estos libros*. Buenos Airesera 80 ale bidali zituela itsasontziz zioen, eta liburuak doan garraiatzea lortu zuela gainera (*de gracia, que en estos viages es de alguna consideración*); Amerikako Nueva España zeritzon koloniarara 300 edo 400 ale bidaltzeko asmoa zuela zioen, prestatzen ari zen flota batean, eta gainerakoak Amerikako beste toki batzuetara bidaliko zituela (*distribuyendo en la mejor forma que se pudiere*).

Hortaz, liburuaren banaketa eta salmentarekin ezin izan zen, inola ere, Probintziak gastatu behar izan zuen dirutza berreskuratu. Miguel Aranburu jaunak (semea) 1698ko maiatzean aurkeztutako kontuen arabera, zilarrezko 3.054 erreale jaso ziren, Sevillara bidalitako 18 kutxen prestaketa gastuak kenduta. Bere kontuak aztertu zituzten mandatariek²⁵⁸ garbi esan zuten, maiatzaren 14an: bere etxean oraindik koadernatutako 543 liburu geratzen baziren ere, liburu horiek saltzeagatik ezingo zitzaion saririk eman. Probintziak gauza bakarra egin zezakeela esan zuten: bere zerbitzuengatik eskerrak ematea, bere kontuak onar-

²⁵⁷ AGG-GAO JD IM 1/11/59.

²⁵⁸ Juan Antonio Leizaur jauna eta Domingo Lizaso.

tzea eta aipatutako prestaketa gastuak ordaindu ondoren bere eskuetan gelditzen zena beretzat ematea.

Kostu handi horien zati bat berreskuratzeko eta liburuen salmenta bizkortzeko (*adelantar el corto consumo que tan contra toda esperanza tienen estos libros*), honakoa proposatu zuten: *Lo más acertado el que en trozos se pongan a vender en algunas tiendas d'esta ciudad y de la villa de Tolossa, fixando en todas las repúblicas de V.^a unos carteles impressos que partiçipen esta notiçia*²⁵⁹.

Ale batzuk saltzen ziren bitartean²⁶⁰, bere etxean koadernaturik zeuzkan 543 aleak (*sin el resguardo de cajones y sujetos a desluzirse*) honda ez zitezen, liburuak agiritegian hutsik zeuden kutxetan utz zitezen eskatu zuen Aranburu jaunak 1698ko ekainaren 16an. Hala agindu zuen Donostiako Batzarrek, eta liburuak salmentarako ateratzeko baimena Aranbururi bakarrik eman zioten²⁶¹.

Hortik aurrera, inbertitutako dirua berreskuratzeko ezin izan zen gauza handirik egin²⁶². Aurrerantzean, Probintziaren kezka nagusia Filipe V.ak 1704an berretsitako foruak foru-bilduman txertatzea izango da. Berretsitako foru hauen 3.000 kopia egin ziren Donostian (*con la letra y en papel de la misma marca y calidad de el que llevan los libros impresos de su recopilación foral*)²⁶³.

3. Bildumaren balorazioa

Bilduma 41 idazpuruk osatzen dute, atalburutan edo legetan banatuta; bakoitzak aurretik bere epigrafea du, eta ertzetan xedapen bakoitzaren egilea eta jatorria adierazten dira.

²⁵⁹ Hala planteatu zuten 1697-XII-16ko Azkoitiko Diputazioan. Eta prezioari buruz, azkeneko Batzarrean liburuari bi ezkutuko salneurria ezarri bazitzaion ere, ale batzuetan kalitate hobeko koadernaketa egin zenez, inprimatutako paperean ezkutu laurden bat ($\frac{1}{4}$) gehitu zitzaiola esan zuten. Diputazioak, gainera, Juan López de Cuéllar y Vega korrejidore jaunari ale bat emateko agindu zuen [AGG-GAO JD AM 83; 62. or. atze.-63. or. aurre.].

²⁶⁰ 1698-VI-16an, 75 liburu saldu zituela esan zuen Aranburuk, eta salmentan kobratutakoa (zilarrezko 150 ezkutu) Leizaurren eskuetan utzi zuela [AGG-GAO JD AM 84; 21. or. aurre.].

²⁶¹ Donostiako Batzar Nagusia, 1698-VI-16 [AGG-GAO JD AM 84; 21. or. aurre.-atze.].

²⁶² 1730ean oraindik saltzen zen liburuak. Apirilaren 27an, 9 liburu saldu zirela jakinarazi zuen Miguel Beramendi artxibozainak, guztira kobrezko 198 errealetan (22 erreal/ale). Hona hemen liburuak erosi zuten zenbait pertsona: 1728ko Hondarribiko batzarkideak, Ventura Orue, Manuel Ignazio Agirre jauna, Joseph Tomás de Rivas jauna, Pedro Ignazio Zabala jauna, Felipe Agirre jauna eta Juan Larrube jauna (Valladoliden prokuradore) [AGG-GAO JD IM 1/11/59].

²⁶³ Enkargu hori 1704ko maiatzaren 24ko Zestoako Batzarrean egin zitzaizen Tomás de Nárdiz jaunari eta Domingo Perez Isabari. Berrestutako foruak agiritegian zeuden koadernaturiko 452 liburuetan txertatu ziren, beste errepublika batzuetan zeuden bederatzi liburutan, idazkaritzan zeuden hiru liburutan eta beste bederatzi liburutan, azken horiek honela banatuta: lau Donostian, bat Azkoitian, bat Mutrikun, bat Arrasaten eta bi Antonio Etxenagusia jauna eta Joseph Lazkaibar jauna Kontsultari lizenziadunentzat. Gainerakoak Miguel Aranbururi (semea) igorri zitzaizkion.

Guztira bi zutabedun 361 orrialdeko liburua da; hasieran idazpuruen eta atalburuen aurkibide bat gehitu behar zaio, eta bukaeran gaien beste aurkibide zehatzago bat; inprimaketan letra handia eta garbia erabili zuten.

Bizkaiko foruetan ez bezala, bilduman Gipuzkoako Zuzenbide Publikoa bakarrik arautzen da. Bere lehen bi idazpuruetan (atalburu bat eta hamaika atalburu dituzte hurrenez hurren) Gipuzkoako alderdi geografikoak eta historikoak biltzen dira, Probintziaren merituak baloratzeko garrantzitsua baitzen alderdi horiek erakustea, Garibaik 1584an ohartarazi zuen bezala. Eta III. idazpurutik aurrera Probintziako Zuzenbidea jasotzen da, ia barne sistematikarik gabe, honela:

- III. idazpurua (31 atalburukoa), pertsona bakarreko agintaritzei buruzkoa (korrejidorea, alkateak eta merioak).
- IV-IX idazpuruak (21, 8, 16, 3, 21 eta 4 atalburu), kide anitzeko agintaritzei buruzkoak (Batzarrak eta Diputazioak).
- X (22), XIII (26) eta XVI (5) idazpuruak: Ermandadearen eskumenak, bere alkateak eta prozesuak.
- XI (5) eta XIV (11) idazpuruak: Idazkaria eta zigilu probintziala, errege-eskribauak, eskribau leialak eta osoak.
- XII (7): diruzaina eta sukalde kopuruaren araberrako banaketa (*repartimientos foguerales*).
- XV (5): kartzela eta bere alkaidea.
- XVII (10): esportazioen alkatetza eta bere ofizialak.
- XVIII (13), XIX (13) eta XXII (2) idazpuruak: salerosketa, nabigazio eta merkataritza askatasuna.
- XX (3): pisuak eta neurriak.
- XXI (2): sagardoak.
- XXIII (3): zubi eta galtzaden konponketa.
- XXIV (6): matxinadak eta gerra kontuak.
- XXV (1): kapareen bermeak.
- XXVI (4) eta XXVII (3): elizako eta gizarteko gaiak.
- XXVIII-XXXVI idazpuruak (4, 11, 4, 2, 7, 2, 3, 4 eta 3): gaizkileak eta gizartearen nahasmenduak.
- XXXVII (4): burdinolak eta bere ofizialak.
- XXXVIII-XL idazpuruak (8, 2 eta 6): basoak eta larreak.
- XLI (13): herritartzeari buruzkoa.

Gipuzkoako legediaren historiako bilduma garrantzitsuena baldin bada ere, ez da perfektua, eta, Miguel Aranburuk berak 1697ko ekainaren lehen inprimaketari buruz zioenez, akats nabariak zituen, nahiz eta Batzarrak onartu zuen (*contiene notables malidades e imperfecciones propias de novicio en el arte*)²⁶⁴.

Baina iritzi zorrotzena Pablo Gorosabel abokatuak eman zuen, XIX. mendean; hau zen, bere ustez, bildumaren akatsik handiena:

La amalgama de disposiciones tan heterogéneas y de distinto orden en un mismo cuerpo legislativo destinado a proporcionar instrucción. Tales son las propiamente forales, los privilegios, mercedes, usos y costumbres, con las orgánicas, gubernativas, administrativas, penales, de procedimientos criminales, policía rural, reglamentarias de varias clases, de administración de justicia, etc.

Bere ustez, Probintziak bi bilduma desberdin eta independente egin behar zituen, eta horrela ez egiteak kalteak ekarri zituen: *En haber obrado de otra manera se cometió una gran falta, cuyas fatales consecuencias se experimentan aún en la actualidad, según es notorio a todos*²⁶⁵.

Autore horren ustez, bildumetako bat foruekin, pribilegioekin eta Probintziaren gobernuaren oinarri nagusiekin soilik osatu behar litzateke, *Foru koa-dernoa* izenarekin. Orrialde gutxiko liburuxka bat izango litzateke, konstituzio politiko baten modukoa, egonkorra, finkoa eta iraunkorra. Hala, Probintziarentzat benetan baliagarriak ziren legeak hobeto ezagutuko ziren eta errazago kontserbatuko ziren, eta hori abantaila haundia izango litzateke. Beste bilduma gobernu gaie buruz indarrean zeuden ordenantzekin osatu zitekeen, garaiko inguruabarrera egokitutako arauekin, zenbait xedapen korapilatsu (*fárrago de disposiciones reglamentarias, penales y otras de naturaleza variable*) kenduta. Bere izenburua 1583an proposatu zen berbera izan zitekeen (*Ermandaderaren Koaderno*a, alegia), edo antzeko beste bat, lege organikoen bilduma bat zela adieraziko lukeen izenburu bat.

Hala ere, bilduma aipatutako gai guztiekin egin zen (*formando un conjunto sumamente perjudicial bajo todos los conceptos; en términos de que a cada paso ofrece confusión, complicación y dudas, como se convence cualquiera a su simple lectura*). Ondorioz, Gorosabelen ustez, foruak eta funtsezko erakundeak desitxuratu egin ziren (*los fueros e instituciones fundamentales, cuya conserva-*

²⁶⁴ Beroiz anaiei idatzitako eskutitz batean honakoa zioen Bernardoren lanari buruz: *Si no hubiese tenido yo que lidiar tanto con él hubiera quedado tan bien acreditado como con los «Anales de Navarra»* [Serapio Muxikak argitaratua, «El Libro de los Fueros», 28-30. or.].

²⁶⁵ GOROSABEL, Pablo, *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*, La Gran Enciclopedia Vasca (Bilbo, 1972) III, 92. or.

ción interesa tanto a la Provincia, se hayan confundido, exponiéndose a perder aquella majestad y respetabilidad que debían tener a la manera de la arca santa de los israelitas)²⁶⁶.

Akatsak izanda ere, 1696ko bildumak Gipuzkoaren bizitza zuzendu zuen XIX. mendera arte. 1867an berriro inprimatu zuen Andres Gorosabelek Tolosan, Probintziaren inprimategian²⁶⁷.

Ordurako, ordea, garaikide batek esan zuenez (Gorosabelek berak), bildumako xedapen asko jadanik ez ziren erabiltzen, mende hartako ideiak eta ingurubarra desberdinak baitziren (*por estar en contradicción con las ideas y circunstancias reinantes*). Beste batzuk baliogabetu edo aldatu egin zituzten lege berriak onartu zituztenean, bai erresumako lege orokorrak, bai Probintziako lege partikularrak. Horrek zailtasunak eta nahasketa eragin zizkien abokatuei, bilduma egin zenean bi motatako legeak bereiztea beharrezkoa baitzen (*si cuando se hizo dicha compilación era conveniente ejecutar una entresaca de lo verdaderamente foral y constitutivo de lo que no tenía semejantes cualidades*), eta XIX. mendean are beharrezkoagoa eta premiazkagoa zen erreforma bat egitea (*tan pronto como las circunstancias especiales de la provincia lo permitan, [pues] la civilización actual no consiente que al lado de los preciosos fueros, privilegios y libertades del País, ocupen un lugar las bárbaras penas y otras muchas disposiciones absurdas de la antigüedad*). Laburbilduz, ulertezina zela bere hartan inprimatu izana, zioen, (*cómo se ha tratado en estos tiempos de hacer su reimpresión tal como es*)²⁶⁸.

Baina Gorosabelen iritzi guztiak ez ziren kritika suntsigarriak. Bere hitzetan:

Se ve que el mucho volumen que tiene es un inconveniente para su uso y manejo en el despacho de los engocios que diariamente se ofrecen a la Provincia. Los preámbulos, o sea, exposición de motivos, que generalmente preceden a cada capítulo de ella, sobre que son una obra de los sujetos que intervinieron en la redacción, puesto que no se encuentra en el texto de las ordenanzas originales, no sirven para otra cosa mas que para abultarla. Ni, por otra parte, deja de ser algo chocante el que se pusiesen semejantes razonamientos a disposiciones publicadas hacía ya tres siglos, adivinando el espíritu de ellas, el fin que se propusieron las mismas, o sus autores al dictarlas. En resumen, por más que la recopilación foral y legislativa que tiene Guipúzcoa reciba su autoridad o fuerza legal en las disposiciones originales en que se funda; por más defectuoso que sea el plan de trabajo el en que se halla formada, y el

²⁶⁶ GOROSABEL, Pablo, *op. cit.*, 92. or.

²⁶⁷ Liburu hori erabili zuen Lex Nova-k (Valladolid) bere 1976ko edizioan.

²⁶⁸ GOROSABEL, Pablo, *op. cit.*, 97. or.

*método con que se ejecutó, es indudable que su uso para la instrucción de las gentes y despacho de los negocios sirve de mucha utilidad. Bajo este concepto es digna de poseerse por todo guipuzcoano, sobre todo por los letrados, personas dedicadas al estudio de la historia y demás que se ocupan de los negocios públicos*²⁶⁹.

Baina, halaber, honakoa adierazten zuen:

*A quien corresponda, la necesidad de dar alguna más importancia que la que generalmente se le ha dado al conveniente arreglo y esmerada conservación de los documentos originales en que se funda esta recopilación. La confianza de que los derechos de la Provincia se hallan suficientemente justificados por el sólo hecho de su inclusión en ella, no es cosa prudente de hombres públicos; y menos es todavía en estos tiempos, en que hay un empeño de poner en cuestión todas las antiguas instituciones de esta Provincia*²⁷⁰.

Gure foru-bildumaren argi-itzalak, beraz. Bilduma, esan bezala, Andres Gorosabelek berrinprimatu zuen 1867an, *Gehigarri* batekin eta bere hartan; eta, azkenik, 1918ko azaroaren 28ko Gipuzkoako Foru Aldundiak hala erabakita, 1919an inprimatu zen Probintziaren inprimategian, Donostian.²⁷¹

III. EPILOGOA. 1758ko GEHIGARRIA

1696ko foru-bilduma egin zenetik ia mende erdia igaro zenean, Gipuzkoako zuzenbidea eguneratzearen beharra planteatu zen berriro. Horregatik, 1752an, bilduma hura egin ostean sortutako ordenantza berretsiak biltzea erabaki zuen Arrasateko Batzarrak, eta ordenantza berri horiek inprimatzea eta bilduma haren ondoren «Gehigarri» gisa koadernatzea.

Lan hori Nikolas Altunari agindu zitzaion, eta honek, 1756ko Debako Batzarrean, lana amaituta zeukala jakinarazi zuen. Bi zutabeko 91 orrialdeko liburua zen, eta zenbakitu gabeko bi orriko beste atalburu bat gehitu zitzaion. Liburua aztertzeke batzorde bat izendatu zen. Batzordea Donemiliagako markesak, Peñafloidako kondeak, Agustin Iturriaga jaunak eta Martin Areizaga jaunak osatzen zuten eta 1758ko maiatzaren 13an, Azpeitian, liburuaren edukia onartu zuen:

Obra mui util para lograr con facilidad una buena instrucción en el manejo de las dependencias y gobierno de ésta Provincia, porque las muchas par-

²⁶⁹ GOROSABEL, Pablo, *op. cit.*, 97. or.

²⁷⁰ GOROSABEL, Pablo, *op. cit.*, 97-98. or.

²⁷¹ Edizio modernoa da, zutabe bakarrekoa; 645 orrialde ditu eta, gainera, gaien aurkibide alfabetikoa.

*tes, que estában esparcidas acá y allá, ocupan el puesto, que á cada una de ellas corresponde, con aquél enláz, orden, y conexión, que hace perfecto un compuesto, y en que, sin mucho trabajo, se registra el todo, con un estilo liso, natural, y claro*²⁷².

Manuel Ignazio Agirre jaunak (Gipuzkoako Batzar eta Diputazioetako idazkaria) testua jatorrizko agiriekin bat zetorrela ziurtatu zuen, eta Batzarrek liburua inprimatzeko baimena eskatu zion korrejidoreari. 1758ko maiatzaren 26ko auto baten bidez, Pedro Cano Mucientes jaunak (korrejidorea eta inprimategien epaile ordezkaria) baimena eman zuen,²⁷³ eta liburua urte hartan bertan inprimatu zuen Lorenzo Riesgo y Monterok²⁷⁴ (Probintziaren inprimatzailea), Donostian, honako izenburuarekin: *Suplemento de los fueros, privilegios y ordenanzas de ésta Mui Noble y Mui Leal Provincia de Guipúzcoa*.

Bere edukiari dagokionez, 1696ko foru-bildumaren idazpuruen zenbaki berberekin eta idazpuru horiekin lotuta, Euskal Herriari zegozkion zenbait gairi buruz geroztik argitaratutako lege-xedapenak txertatu ziren, baina Pablo Gorosabelek²⁷⁵ zioenez bildumaren akats berberak zituen liburuak (*adolece de los mismos defectos con que se ordenó dicha recopilación, puesto que comprende igual mezcla de asuntos de naturaleza estable, reglamentaria y variable*) eta bere ustez ez zuen lege maila (*como mera colección impresa, carece de fuerza y autoridad legislativa*), nahiz eta xedapen bakoitza indarrean egon (*en tanto merecen estas cualidades en cuanto cada una de ellas la tiene de por sí en su original*).

1758ko foru-gehigarria XIX. mendearen hasieran berrinprimatu zen. Antza denez, 1814an lehen inprimaketa bat egin zen Ignacio Ramón Barojaren inprimategian, Donostian. Barojak ale bat aurkeztu zuen Batzarrean eta agiritegian gordetzen zen Foruaren 50 ale eskatu zituen, saldu ahala ordaintzeko asmoarekin (*con calidad de satisfacer su importe al paso que se vayan despachando*).

Getariako 1815eko Batzarrak eta Segurako 1817koak, hala ere, aurrekontua eskatu zieten Juan Manuel de La Lama (Tolosa)²⁷⁶ eta Ignacio Ramón Baroja (Donostia) inprimatzaileei. Azkenean, aipatutako Gehigarriaren 300

²⁷² Onarpen adierazpen hau Gehigarrian bertan inprimatu zen.

²⁷³ Baimen hori ere gehigarrian inprimatuta dago.

²⁷⁴ Probintziaren, Donostia hiriaren eta bere Kontsulatuaren eta Real Compañía Guipuzcoana de Caracas konpainiaren inprimatzailea zen.

²⁷⁵ Gorosabel, Pablo, *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*, La Gran Enciclopedia Vasca (Bilbo, 1972), III, 98. or.

²⁷⁶ Honek Tolosatik idatzi zuen, 1819-VI-4an. Gehigarria inprimatzea (*en buen papel y buena letra*) eta Foruaren 200 ale bere gehigarriarekin pergaminoarekin koadernatzea eskaintzen zuen, koadernaketa kobrezko 20 errealekin truke [AGG-GAO JD IM 1/11/89 (1819-1825)].

aleren inprimaketa Barojari esleitu zitzaion²⁷⁷, baina Barojak honakoa ohartarazi zuen: *La conveniencia de añadir alguna nota de las leyes vigentes, así como de las corregidas, por disposiciones posteriores a la última impresión, por las Juntas.*

1825ean gaiari heldu zitzaion berriro eta aurrekontua eskatu zitzaien lehengo inprimatzaileen oinordekoei, 1.000 edo 1.200 ale berrinprimatzeko asmoarekin. Francisco de La Lamak 600 ale berrinprimatzeko eta koadernatzeko aurrekontua bidali zuen, guztira kobrezko 20.050 errealetan²⁷⁸. Jose Maria Soroa Soroak²⁷⁹, Ignacio Barojaren izenean, berea igorri zuen, 500 ale berrinprimatzeko, guztira kobrezko 21.390 errealetan²⁸⁰.

Ez da agertzen bietako zeini esleitu zitzaion lana. Baina badakigu 1865ean Tolosan berrinprimatu zela, Probintziaren inprimategian²⁸¹.

²⁷⁷ Oartzundik idatzi zuen, 1819-VI-28an eta 30ean. Gehigarriaren 300 ale berrinprimatu zituela zioen, ale bakoitza kobrezko 10 errealetan [AGG-GAO JD IM 1/11/89 (1819-1825)].

²⁷⁸ Inprimaketa kostu baxuan egin ahal izateko, 600 ale inprimatzeko aurrekontua egin zuen, guztira kobrezko 20.059 errealetan. Hona hemen gastua, sailka bereizita:

- Inprimaketa kobrezko 13.650 erreal, honela: kaier bakoitza konposatzea eta botatzea, liburuak 110 kaier izango dituela emanda, kobrezko 75 errealetan (kobrezko 8.250 erreal); paperezko 150 bostehuneko, alferrik galdutakoa barne, 36 erreal/bostehuneko (kobrezko 5.400 erreal).

- Koadernaketa kobrezko 6.400 erreal, honela: 400 ale azalarekin, kobrezko 12 errealetan (kobrezko 4.800 erreal); eta 200 ale kartoi itxurako pergaminoarekin, kobrezko 8 errealetan (kobrezko 1.600 erreal).

Horretarako, kontratua sinatzerakoan, lanean hasteko 6.000 errealeko aurrerapen bat jaso beharko zuen; Ermandadeko herriek 120 ale harpidetuko lituzkete, horretarako kobrezko 42 erreal/bakoitzeko aurreraturaz (= kobrezko 5.040 erreal); Elizak 100 ale harpidetuko lituzke (kobrezko 4.200 erreal); eta Donostiako Kontsulatuak 24 ale (kobrezko 1.008 erreal). Beraz, kobrezko 16.248 errealekin hasiko zen eta gainerakoa, kobrezko 20.050 errealelara iritsi arte, berak egingo lukeen liburu salmentarekin ordainduko zen [AGG-GAO JD IM 1/11/89 (1819-1825)].

²⁷⁹ Donostia, 1825-V-24.

²⁸⁰ Lan handia zela eta (*por ser empresa de consideración*) kalkuluak gutxi gorabeherakoak zirela esan zuen; hala ere, honako aurrekontua bidali zuen (kobrezko 21.390 erreal):

- Inprimaketa kobrezko 15.840 erreal: 500 ale, bakoitzak 130 kaier, eta kaier bakoitzaren inprimaketa 80 erreal (kobrezko 10.400 erreal); paperezko 130 bostehuneko, alferrik galdutakoa barne, kobrezko 40 errealetan (kobrezko 5.440 erreal).

- Koadernaketa kobrezko 5.550 erreal: 250 ale azalarekin, kobrezko 14 erreal/bakoitzeko (kobrezko 3.300 erreal); 250 ale azal erdiarekin, kobrezko 9 erreal/bakoitzeko (kobrezko 2.250 erreal).

²⁸¹ Liburu horrekin batera zihoan Andres Gorosabelek 1867an (Probintziako inprimategian, Tolosan) berrinprimatu zuen Forua; hain zuzen ere, Valladolideko Lex Nova-ren 1976ko edizioaren oinarri izan zena.

Oraingo argitalpenerako oharrak

Gipuzkoak duen inprimatutako eta egiaztatutako Foru bakar honen argitalpen berriak denbora luzea eta lan gogorra darama. Testuaren lehen berrikuspen bat egin dugu 1867an Andres de Gorosabelen obra berrargitaratuaren testu eskaneatua baliatuz (bertsio honek 1696ko argitalpenaren isla dena, eta gerora erret-berrespenarekin eta 1758ko Gehigarriarekin aberastua dagoena). Ondoren testuari bestelako irakurketa mantsoagoa eman zaio, beharrezkoak zen puntuazioa jarritz, inpresioak aldatu zituen puntuazio akatsak zuzenduz, zentzua hobetze aldera. Bigarren irakurketa honetan jarraitu dugun irizpidea inprimatutako lanaren grafia eta hitzen azentuazioen errespetua izan da, beti ere akats bategatik ez balitz, edota bere jatorrizko zentzua aldatuko ez balu. Baina ohar-tarazi behar dugu termino toponimiko batzuen kasuan Aranbururen inprimatutako originalaren grafia ez dugula errespetatu. *Villa Franca*, *VillaFranca* ala *Villa-Franca*, *Villa Real* ala *VillaReal*, *Villa Bona* eta *Gypuzcoa* terminoak dira, garaiko grafiarekin bat egiten dutenak.

Bigarren berrikustea bukatuta, hirugarren fase batean testua Miguel de Aranburu jaunak idatzitako 1691ko jatorrizkoarekin erkatzeari ekin diogu. Horren emaitzak bi testuen arteko aldaera ugari existentsia ikustea lagundu digu, eta hauek orain aurkezten dugun bertsiorekin 500 oin-ohar baina gehiagotan jaso izan ditugu. Oin ohar hauek jatorrizko testuaren zeuden hitz ala adieretan oinarritzen dira, 1696ko inpresioan ez zeudenak, edota edizio horretan agertu ziren bestelako hitz eta adiera batzuk, Aranbururen jatorrizko testuan ez zeudenak. Oharretan ere, batzuetan, testu batean eta bestearen arteko aldaerak azaltzen dira, eta baita jatorrizko testuak izan zuen bekaldura, argitaratutako lanaren oharretan agertzen dena.

Azkenik, laugarren eta azken fasean, oharretan ikusitako eta seinalatutako aldaerak 1696ko inprimatutako testuarekin erkatu ditugu. Honi esker Andres de Gorosabel-ek 1867an egindako berrargitalpena 1696ko lehenengo inpresioaren kalko fidela dela ondorioztatzen eraman gaitu, bi testuak erkatzerakoan, bien arteko aldaera guztien koinzidentzia zehatza ematen baita.

Baina oraingo edizioa 1691ko Forua soila baino askoz gehiago dela ohar-tarazi behar dugu. Forua berez Hitzaurrea, legearen gorputza, edukien taula eta Joseph Garmendia artxibozainaren eta Leon de Aguirre y Zurco Probintziaren izazkariaren 1692ko lekukotasunekin osatzen da. 1696an inprimatutako lana, 1867ko bertsio faksimilian, bestelako dokumentuekin osatu zen: inprimatzeko lizentzia, 1702ko Filipe V.aren foruen berrespenarekin, eta materien aurkibidea (guzti hau grafia txikiagoan doana), eta 1758ko Foru-gehiagarria, bere eduki-taularekin.

Edonola ere, Foru gipuzkoarraren inguruan egin izan diren bertsioen artean, eskaintzen duguna zuzenena eta osatuena da.

M^a ROSA AYERBE IRIBAR

Zuzenbidearen Historiako Irakasle Titularra (UPV/EHU)